

Joxe Manuel Odriozola



SOZIOLINGUISTIKAREN
ATARIAN

Euskaltzaindia
Bilbao Bizkaia Kutxa

SOZIOLINGUISTIKAREN ATARIAN

JOXE MANUEL ODRIOZOLA

SOZIOLINGUISTIKAREN
ATARIAN

Mikel Zarate Saria, 1992

Euskaltzaindia
Bilbao Bizkaia Kutxa
BILBAO
1993

© JOXE MANUEL ODRIOZOLA
© BILBAO BIZKAIA KUTXA
Espainiako emparantza, 1
48001 BILBAO

ISBN: 84-8056-045-2

Depósito legal: B1-863-93

Fotokonposaketa: IPAR, S.C.L.
Impresioa: A.G. RONTEGUI, S.A.L.

*«Bildu dezagun nun nai
asaben lorea»*

X. LIZARDI

AURKIBIDEA

HITZAURREA	11
I. EUSKAL SOZIOLOGIAZKO AUZIGAI BATZUREN INGURUAN	
Ohar orokorrak euskararen gainean.....	15
Gizarte klaseak euskararen arazoan.....	18
Inposizioaren mamua alde-alde dabil.....	22
Euskarazko eskolaketaren bigarren urrats nagusia.....	26
Europa eta euskara.....	31
Euskalgintza: praktika baten gorabeherak.....	35
Din-gainegiturak euskararen joan-etortian.....	39
II. SOZIOLOGIAZKO ZENBAIT GOGOETA TEORIKO	
Elebitasuna: mitoak eta beste.....	45
Hizkuntz normalkuntzaz ohar batzu.....	49
Hizkuntz boterea Foucaulten eskutik.....	52
Bretoiera: botere-hizkuntza ez izatearen hondamendia.....	56
Kontzeptu soziologikoen jorraketan.....	60
Hizkuntz kontzientziaren gorabeherak.....	63
Ekoizpen-molde kapitalistak erakarri dituen hizkuntz ordezkapenaren fasealdi orokorrak.....	67
III. «EUSKARAREN AUZIAZ»: AITA VILLASANTEREN PENTSAKERA SOZIOLOGIAZKOAREN HAZTARREN BILA	
«Euskararen Auziaz»: Aita Villasanteren pentsakera soziologikoa haztarren bila.....	75
IV. HIZKUNTZ LEGERIAZ OHAR OROKORRAK	
Maila juridikoaren eragina hizkuntzazko gizarte-harremanen baitan.....	91

HITZAURREA

Euskararen zoriak apologisten beharra sortarazi zuen aspaldi hartan. Gramatikariak etorri ziren gero. Hizkuntzalariak geroago. Eta orohar hizkuntz jakintzaren adar zehatzetan ekarpen nabarmenak egin izan dira azken bolada honetan Koldo Mitxelenaen bidetik.

Alabaina, gerraurreko euskalari asko ohartu zen datu nagusi honetaz: euskararen barne arauketaz aparte, delako hizkera batuaren erdua finkatzeaz gain, bazuela gure hizkuntzak gizartezko arazorik bere baitan. Golpe huts egingo genuela alegia, besterik gabe, hiztegigintza eta gramatikaren atal guztiak jorratze soilarekin, aldiberko beste mugimendu bat suspertzen ez bazen. Horretan zeuden, lekukoek diotenez, Seber Altube eta beste hainbat.

Geroak, 1960. hamarraldian abiatu zen euskararen aldeko mugimendu zabalak, luzaro gabe bereganatu zuen hizkuntz arazoaren aspektu hau. Hain zuzen, euskara batasun bidean jartzearekin batera, euskara gizarteratu egin behar zela, ordezkapenak ez bait zuten aurteraka baizik egiten. Eta horrela hasi ziren, han-hemenka, ideia soziolinguistikoak zabaltzen: oker ez bagaude, ANAITASUNA aldizkaria hasi zen, besteak beste, disziplina jaioberriaren oinarritzko kontzeptuen zabalakunde egiten. Orduan hasi ginen zorioneko «diglosia» eta antzekoak irakurtzen, eta denboraren poderioz, oinarritzko tresneria teorikoa lantzen.

Aurrerapideak nabarmenak izan dira geroztik. Alde batetik, Txillardegi aipatu behar da arlo honetan ere, hainbat eta hainbat herritako hizkuntz auzien xehetasun jakingarriak geureganatuz. Bestetik, «Txepetx», 1970. hamarraldian ekin zion ikerbide oparoaren emaitzak euskal soziolinguistikaren baratza hemendik kanpora ere ezagutarazi duenez. Ezin ahantzi dugu, bidegabekeriaik egin gabe, Euskaltzaindiaren «Euskararen Liburu Zuria»: hemen, izan ere, jakintza maila haundiko lanak dauzkagu euskararen historia soziala ezagutzeko.

Ez gaude beraz, lan honen izenburuak dioen bezala, «Soziolinguistikaren Atarian». Hala ere, nik neuk neure burua oraindik gizarte jakintza honen atarian dakusat, eta horri zor zaio izena, izanarekin bat etortzeko. Ez da batere erraza honelako gai baten inguruan baliabide teoriko sendoz eta zorotzez hornitzea. Arrazoiak bat baino gehiago dira, izan, baina ez nuke orain hemen bat besterik aipatu nahi. Asko ja-

kin behar da, eta asko, ez jakintza-gai jakin batean soilik, bat baino gehiagotan baizik. Eta baldintza hori, zoritxarrez, gutxi betetzen dute gure artean. Izan ere, hizkuntza baten ibilbide historikoa behar bezala hautemango bada, bere barne bilakaera ez ezik, kanpokoari dagozkion eragin ekonomiko, politiko, juridiko eta psikologikoak ere noraezekoak bait dira arlo honetan.

Eskuarteko lan honetara mugatuz, esan dezagun, lau ataletan banatu dudala idaziana. Lehendabizikoan ageri direnak, neurri batean edo bestean, aldian aldiko koiuntura ideologikoari erantzunez moldatuak dira, unean uneko beharrek eraginda. Bigarren goen eragingarria areago da barnekaldera begira sortutakoa: norik bere buruarekin dituen zalantzarabideak argitzeko saiotoxa alegia. Hirugarrenean ez dago dudamudarik: liburu baten argitalpenak ziztatu ninduen hainbat idocietan zehar abiatzea. Laugarrena, azkenik, gure artean hain ohiartzun zaratsua duen gai batekin dator: legea eta hizkuntza, elkarren lehia eta elkarren osagarri, elkarrekiko dituzten harremanen arlo ilun-ezkutuan.

Bukatu baino lehen ohar batzu egin nahi nizkioke irakurleari, lan honek halakorik merezi baldin badu behintzat. Nolabait esateko, darabildan hizkera soziolinguistikoa ez da oso ohizkoa, jakintza-gai honen historiari so egiten badiogu behintzat. Ez naiz emanegia sentitzen psikolinguistikaren eta antropologiaren adarretara. Hortik dario, hain zuzen, halakoxe usain «lehor» bai hemengo hainbat testori, ulergaitz samarra egiteaz aparte, zama astunegiz josia irakurle askoren asperdurarako.

I.

**EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAZKO
AUZIGAI BATZUREN INGURUAN**

OHAR OROKORRAK EUSKARAREN GAINEAN

Euskararen zoria dela eta biztu nahi den debategan parte hartzeko asmoz marraztu dira ideia-ardatz hauek. Hemen eztabaida-diskurtsoaren koordenada nagusiak bideratu nahi dira, ez dago beste asmorik. Hausnarketa orok, izan ere, bere itxitura orokorra behar du: aztergaiaren haraindi-honaindiak finkatu nahi genituzke, baina termino orokorretan.

Ordezkapenaren zergatiak

Euskararen ordezkapena ez da koinuntura historiko jakin bati darion efektua. Ez frankismoari eta ez besteri. Izatekotan ere, Estatu modernoan sorrera-unean kokatu beharko genuke bere jatorria, baina hori ere ñabardura askoz xehetua. Pentsa dezagun beraz, egungo egoeraren zoria ez zaiola atzo-heranegungo gertakizun historikoei zor; ezta gaur egungo gizarte-faktoreei ere. Ikuspegi historiko honek erredukzionismoan erortzetik begira gaitzake. Eta ez da arrisku motela euskararen zoria dela eta egin ohi diren planteamendu orokorren baitan itxuragabeko murrizkeriak gailentzea. Historialari batzuek aipatu izan duten «iraupen luzeko» fenomeno baten aurrean gaude, gizarte-osakera konkretu eta historiko desberdinen harian burutu den prozesu baten aurrean alegia.

Determinazio-indarren dialektika

Euskararen zoria norabide historiko orokor baten ildoan hezurmatzen da. Eta ez litzateke gogoetagai ustela izango norabide hori determinatzen duten eragile-indarren neurria eta kokaguneaz zerbait esatea. Badakigu gauza zaila dela lan hau. Baina badakigu orobat, auziari buruzko ikuspegi orokor hau zirriboratu gabe, noragabeko hausnarbitetan gaitzeko arrisku bizia dagoela. Goazen bada, gure ahalmen mugatuaren argi laburretan, determinazio-elementu horien prozesu dialektikoa pittin bat zehaztera.

Erderen nagusitasuna eta euskararen menpekotasuna gauzatzen duten egitura-indarren artean, lehen-lehenik, klase sozialen hizkuntz praktika azpimarratu beharko litzateke. Klase-ajenteok bait dira gizarte-ingar sozialen norabidea zentzu batera ala bestera makurtzen dutenak eskuko dituzten euskarri eta ahalmenei esker.

Klase sozialen gizartegintzarako, eta zehazkiago gure gai-esparrura mugatuta, klaseon hizkuntz praktikaren hezurmarnikuntzarako, euskarri-erakundeak daude bitarteko. Egia da euskarri-erakundeok hemen hitzaren zentzurik zabalenean hartu behar direla eta hainbestean, ezin dela pentsatu ere bitartekook (adibidez: *mass media* delakoak) beraien eskuko soilik daudenik, nahi dutena eta nahi ez dutena egiteko moduan edo. Ez, harreman horiek aski konplexuak dira. Nolanahi ere, bitartekook dauden gizarte-klase hegemonikoen zerbitzuan daudelako dago euskaldungoa dagoen menpetasunezko egoera linguistikoan.

Aurreko determinazio-ingar horien ondotik, espazio politikoaren eskuharmena ere aipatzekoa da dialektika honen barruan. Espazio honek badu egungo Estatu-ereduaren barnean nola-halako autonomia erlatibo bat. Eta horixe zor dio hain zuzen orain euskaldunok ere espazio horretako botere-lanabes batzuren jabe egin izana. Autonomi Estatuaren barneko botere-artikulazioak bide emanik, gure eskuko ditugun lanabes hauek beren ibilbidea egin dute, beren ahalmenen eta ezintasunen muga batzu begien bistan jarriaz. Euskararen aldeko determinazio-elementu hau, hots, euskara gizarteratzeko baliabide eta ahalmenen jarduera hau ere, marko zabalago honen baitako harreman-sarean atzeman behar genuke. Bestela, izan ere, botere politikoaren liluramena nagusitzen da kolore guztietako ideologietan eta prozesu soziolinguistikoaren oharrena eragozten da. Hizkuntz botere politikoaz hitzegiterakoan ezin gara sinplekeriatan erori. Horixe litzateke, esaterako, honako uste-oinarrietan pentsatzea: insuantzia-erakunde politiko hutsetan euskaldungoak bere nolabaiteko ordezkari abertzaleak badituela pentsatzea eta hauen bidez hizkuntz botere sareko desoreka berdintzen joan daitekeela sinistea. Botere politikoaren kontzeptua horretara murrizteazina denez hizkuntz espazioan politikotasunak duen eragina muga zabalagoen baitan txertatzen dela pentsatzera derrigorturik gaude.

Ideologi-kontzientziaren eragin-ingarrek ere, noski, hizkuntz espazio zabalean beren determinazio-ingarra gauzatzen dute. Elementu hauxe da, izan, euskaltzaleon itzaropen-elementua. Bere ahalmen mugagaitzak gutxietsi gabe, hemen ere liluramenean erortzeko arriskua egon ohi da, elementu honi dagozkion eta ez dagozkion botere-kemenak eranstean dizkiogulako oharkabean. Egia borobila da ingar honi zor zaiola, besteak beste, ikastola eta gainerako euskalgintzaren esparruetan sortu eta garatu den dinamika burutu izana. Halaz ere, prozesu soziolinguistikoaren harian, eragin-ingar deribatuak ditu, izan, egitura ideologiko-kontziente honek, inoiz ahaltsuagoak inoiz makalagoak. Guk, bistan denez, eskuragarria dugun borroka-lanabes bakarrenetakoa dugu eta horrexegatik ahalik eta egokien erabili beharko genuke bere ingar-kemena.

Hizkuntz borrokaren estrategi-bideak

Atal hauxe da guztietan korapilotsuena. Hizkuntz zapalkuntzaren nondik-norakoak eta zergatikoa oker ala zuzen atzemango ditugu eta hori behar-beharrezkoa da. Guztiarekin ere, beharrezkoen, orain datorrigun auzia da: gauden gaudenetik erdal gizartea euskal gizartea hila-katzeko borrokabidean nola jokatu, zer egin, zerri eman lehentasuna etab. Gure aldetik proposamenok egin nahi genituzke, hauen arrazoi sakonak hemen esplikatzeko egokierarik ez badago ere.

Jomugatzat euskararen erabilera hartzen duten estrategibideak aukeratu behar genituzke. Ikaskuntza abiaburu izanik, erabilera jomuga. Eta ikaskuntza orain arteko dinamikaren harian jomuga bihurtu baldin bazaigu, borrokabide okerretan gabiltzanaren seinale da hori. Ez dezagun beraz ikaskuntza akademikoa lehen lekuan jarri, eta erabilpen-mekanismoez ez ohartuarena egin. Mekanismo hauen torpena da, euskararen irtenbide bakarra, eta hauen ezagutza eta zer-nolakoaz jabetzea, ezinbestekoa da gaur egun.

Mekanismo hauen inguruan, guk uste, bi ikuspegi ageri dira gure artean, bata bestea baino ezagunagoa eta onartuagoa, azken hau hautemateko zailtasun gehiago dagoelako. Besteak beste, zailtasun teorikoak.

Euskal hiztunen konpaktazioa du ideia-gida lehendabizikoak. Eta jomuga horren garapenean ikusten du euskararen aldeko borrokabide ardatza. Euskaldunok elkarrekiko batasunean «lotu» nahi dira, hizkuntz harremanetarako zirkuitu desberdinak josi, eta euskararen aldeko mugimenduan aitzindari eta bihotz bihurtu. Azken batean, hizkuntz komunitatea du ikuspegi honek bere erreferentzi nagusi eta ia bakarra. Hiztuna eta hiztun komunitatea: horra hor prozesu soziolinguistikoa-ren motorra eta eragile nagusiak

Bigarren ikuspegi batek, aurrekoaren zenbait aportazio bereganatuz eta onartuz, ez luke hain «humanista» hautemango prozesu soziolinguistikoa-ren ibilbidea. Eta hemen «humanista» terminoak zentzu erabat teorikoa du: prozesu horretako determinazio-indarren artean, bigarren kontzeptzio honek, elementu material eta inpersonal asko eta asko atzemango lituzke, eta elementu hauek besteak bezain axola handiko iruditzen zaizkio. Esate baterako, delako *mass media* horien izacra ez da batera «humanista», hauen funtzio eta helburuak ezagutzen dituenarentzat. Horrenbestez, osagai inpersonalen papera eta lekua erabakiorra da bigarren eritzi honen baitarik pentsatuta. Eta ez da estrategia zuzenegia izango hizkuntz prozesu soziolinguistikoa maila «humano» hutsera murriztea.

GIZARTE KLASEAK EUSKARAREN ARAZOAN

Aspaldikoak dira Arturo Kanpionen iritziak klase sozialen jokabideaz euskararen etorkizunari buruz. Geroztik, batek baino gehiagok ikuitu du gai eztabaidagarri hau eta, halaberrez edo, ez datoz bat aburu guztiak. Batzuentzat klase ahaltzuen egitekoa funtsezkotzat jo behar da auzi honetan. Besteentzat, aitzitik, klase horiek klase dekadenteak direlako edo, beraien hizkuntz praktika ez da faktore erabakiorra euskararen normalizazio prozesuan. Azken hauen irudiko, klase iraultzaile eta aurrerakoen eskuetan datza gure hizkuntza nazionalaren berreskurapena.

Klase ahaltzuen euskalduntzetik dator irtenbidea

Lehendabizi, klase boteretsuen eskuharmena ezinbestekotzat daukaten idazle biren aburuak aldatuko ditugu hona. Arturo Kanpion aipatu dugunez, goazen berarekin: «El día que las clases elevadas de nuestras provincias cesen de avanzar en el camino emprendido del menosprecio y olvido del idioma indígena, una de las causas más poderosas de la disminución gradual de ésta habrá desaparecido. Las clases inferiores siguen siempre la impulsión de las superiores...»

Kanpionen azken perpaus hori txit esanguratsua da Marxen harako klase menperatzaileen ideologia delako haritik begiratuta. Kanpionentzat argi dago klase ahaltzuek (noblezia, burgesia, ...) euskara zokoratu duten heinean, klase menperatuek ere atzetik beste horrenbeste egingo dutela. XIX. mende bukaeran behinik-behin ez zion hark euskarari etorkizunik igartzen harik eta klase boteretsuen aldetik hizkuntz jarrera eta praktika aldatzen ez bazen.

Federico Krutwig-en esanetara ere ez dago zalantzarik auzi honetan. Kanpionen zentzu berean, zera diosku: «Burges tipiek burges handien hizkuntza maite dute, eta proletarietiek burges tipien eta burges handien hizkuntza. Hau bethi edonon eta edonoiz hunela izan da». Klase dominanteen ideologia klase sozial guztietan barrena hedatzen eta berproduzitzen den gisara, orobat hizkuntza mailako harremanetan ere goikoan

imitazioa dago botereak eta prestijioak hartaraturik. Euskara burgesiarren mintzaira balitz, Krutwig-ek zera uste du: «Hunela herri guztiaren hizkuntza izanen da, pyramide soziologikoaren burutik basiraino; bertzenaz, euskal pyramidearen burua erdalduna bada, pyramide osoa erdaldunduko zaigu».

Autoreontzat klase gorenak euskalduntzetik dator gure hizkuntza-aren aterabidea. Goi-klaseen hizkuntz ereduak erreproduktu bide dira behekoengan. Hauen hizkuntz hautapena, horrenbestez, klase-ierarkia-ren arabera taxutzen denez, haien bidetik datorrena izango da goiz edo berandu.

Herri klaseen euskalduntzetik dator aterabidea

Beste autore batzuentzat euskararen geroa ez dago klase nagusi-ekin loturik, herri xumeari atxekirik baizik. Posizio honetarako ere bi autore aukeratu ditugu. Hasteko, Luis C. Nuñez-ena jarriko dugu: «Hoy la iniciativa les corresponde normalmente a las clases trabajadoras y populares. Si el euskara es defendido por éstas, se impondrá; si —por las razones que sea— no lo es, perderá de nuevo la partida. Y esta pérdida sería verosimilmente definitiva». Honen hitzak nolabait interpretatuz (perderá de nuevo la partida), pentsa daiteke burgesiak (euskal nazionalismo tradizionalak) bere aukera galdu zuela, ez dela gauza izan euskara euskotar eta euskaldunen hizkuntza nazional erreal bilakatzeko, eta orain txanda langilegari datorkiola. Izan ere, bere ustez klase batzu goraka doaz, beste batzu beheraka, eta norekin uztartzen den izango litzateke auziaren gakoa. Zentzu horretan zera dio: «El euskara se impondrá o perderá la partida según las clases sociales que lo defiendan. Si lo defienden las clases ascendentes, se impondrá; si lo defienden las clases descendentes, pero no las otras, perderá la partida». Autore honen arabera, hortaz, azken urte hauetako historia sozio-politikoak kontuan harturik, herri-klaseak dira gorantz doazenak eta, horrenbestez, euskararen etorkizuna klase hauen baitan dago.

E. Lopez Adan ere uste honetakoa da, hots, burgesiak jadanik galdurik dauka bere aukera historikoa: «Praktikan, gure euskal burgesantzat espainola da hizkuntza nagusia; hizkuntza honetan gertatzen dira beren sistema kapitalistaren barne harremanak, eta hizkuntza berrean kudeatzen da sistema sostengatzen duen Estatuta».

Euskal burgesiak defendatzen dituen interes orokorren baitan euskarak ez dauka lekurik, interes berberok bait daude euskaldungoaren aurka. Euskararen irtenbidea ere, beste askorena bezala, hausturatik iragan beharrean dago: «Horregatik, eta azken funtsean, Euskadi zeharo euskalduntzeko eramaten den borroka haustura bat suposatzen du, eta ez nolanhiko haustura. Ukraina merkea eginez Euskadi euskaldun burges edo faszista bat pentsa daiteke: gaurrengungo praktikan, faszistak eta burgesak dira euskalduntzearen etsaiak. Laister, euskarak eus-

kaldun guztien zapalkuntzaren sinboloa bezala zuen esanahia kamus-tuko denean, euskararekiko gizarte praktikak egonlekuak berezituko ditu». Haustura, ezinbestez, herri xehearen borrokatik datorrenez, klase zapalduon eginbeharra izango litzateke erdaldungoa euskalduntzea. Horretarako ez da aski, ezta burrik eman ere, borroka linguistiko hutsa; haustura osoa nahitaezkoa da gizarte-instantzia orotan.

Ugazaben eta langileen jarrera euskararekiko

Azken urte hauetan Siadecok Gipuzkoan burutu dituen inkesta-azterketen artean bat ugazaba eta langileek euskarari buruz duten jarrera zertan den azaltzen duenetakoa da. Jarrerok hiru motatarra mugatzen dira. Eta hauek dira bai batzuei bai besteek dagozkienak:

	langileak	ugazabak
Aldeko jarrera	%53,5	%35,0
Indiferentzia	%41,1	%57,4
Aurkako jarrera	% 5,5	% 7,6

Langileen jarrerari bagagozkio, Siadeco-k ondorengo gogoeta hauek egiten ditu: «Gipuzkoa mailan ematen den aldeko jarrera (%53,5) hiztun-portzentaia baino dexentez handiago da (%38,9). Halere, erdia justu-justuan gaingitzen du. Nahiko kezagarria gerta daiteke, besterik gabe, datu hau. Euskara gehiago erabiltzearen alde erdiak besterik ez egotea, alegia.»

Beste aldetik, ugazaben jarreraz beste ondoriook formulatzen ditu: «Langileekin konparatuta, %18,5 jaisten da aldeko jarrera eta %16,3 igotzen indiferentzia, aurkakoa ere %2,1 igotzen delarik. Aldeko jarrera %35 besterik ez izanik ia hirutatik batean kokatzen da. Indiferenteak dira ugariak (%57,4) eta aurkakoek ere kopuru adierazgarria dute (%7,6)».

Iritzi subjektiboaren arloan euskarari buruzko jarrera langileena hobe da ugazabena baino, ikusi ahal izan den bezala. Baina orohar harturik, bi klase sozial hauen hizkuntz posizioa erdaltzalea da; ez arrazoi berberetatik, jakina. Euskal Herria erdaldundu duena botere atzerriarra izan baldin bada, beti klase dominanteen eskutian egon da botere hori, ez klase menderatuen zerbitzuan eta, bistan denez, horiek desnazionalizatu gaituzte eremu linguistiko-kulturalen ere.

Horiek horrela, gure suntsipen linguistiko-kulturalaren historia «nondik» eta «nork» bideratu duen ikusirik alegia, egungo klase sozialen hizkuntz jarrera eta praktika arrotza da euskaldungoaren interesetarako. Ezin da aitortu, besterik gabe, halako klase-teoria iraultzaile eta

erdugarri baten izenean edo, euskararen berreskurapena «hemendik» pasatzen denik. Euskal Herriko langilearen interes orokorrak euskararen normalizaziotik pasatzen direla aitortzea oso asmo bikaina izango da, baina horixe besterik ez, asmo.

Jeneralizazio arrunt bat. Hortik aurrera dago hain zuzen lana: estrategia linguistiko horri dagozkion baldintza, posibilitate eta aukerak zertan mamitzen diren formulatzean hain zuzen. Bestela, nazionalismo tradizionalari gertatu zaiona gerta dakiguke: aukera historikoa galdu gure hizkuntza minorizatuaren normalizazioak, urratsez urrats eta momentuz momentu, hizkuntz estrategia zuzen bat garatu ez duelako.

INPOSIZIOAREN MAMUA ALDEZ-ALDE DABIL

Inposizioaren mamuak hizkuntz gatazkaren egoera barekorra aztoratu egin du azkenaldi honetan. Indar sozial eta politiko espainolisten aho-lumetatik etengabeko erasoak jasan dugu; beren «intelligentsia» buru dutelarik, euskal nazionalismoaren jarrera linguistiko esentzialista guztiak errotik salatu bide dituzte. Egiazko kontsentsu errealek eza, hizkuntz dekretuen aplikazio bidegabea, arrazoi eta argudioetan oinarritu ordez presio radikalaren aurrean amore eman izana, eta antzeko ildoan dauden erizpide ideologiko erdalzaleen aldetik iritsi da eraso ideologikoa.

Indarrok behin eta berriz erabili duten beste argudio-ardatza, zera izan da: euskararen beharrik eza, euskararen erabilpen simbolikoa, eta azken batean, ezarri-inposatu nahi omen dugun mintzairaren erakargarritasunik eza maila pragmatiko eta kulturaleran. Hortik, bada, zentzugabekeriaren zergatia: nazionalistok beren hizkuntza ezarri nahi digute, baina jendeak ez dauka euskara ez ikasteko ez erabiltzeko behar adina motibazio-indar. Hobe omen da, demokratikoagoa, zuzenagoa, errealtate soziolinguistikoa amets-ilusioekin nahasi gabe, arrazoi eta zentzu komunaren bidetik, jendearengan gogoia eta konbentzimendua piztea neurri «gogor»-en bidetik aurrera egin baino lehen. Hona, beraz, Estatu-hizkuntza dominatzailearen elebakartasuna defendatzen dutenek zer esaten diguten. Ba al dago guzti horretan nolabaiteko «arrazoirik», zentzuzkoa dirudien usterik? Darabilten diskurtsoan, ezin uka, eritzi publikoaren baitan nagusi diren zenbait elementu ideologiko beren alde dituztela: hizkuntz boterearen desoreka hain deskonpentsatua izanik, errealtate praktikoi-ideologikoak beren aldera lerratzen dira, eta ez bakarrik hizkuntz ideologiaz espainolizatzen har genitzakeen gizarte-indarren artean soilik, orobat gertatzen baita, neurri apalago batean bada ere, euskaldun-abertzaletzat beren buruak dituzten sektore integratuetan ere (sistema espainolean, noski).

Gizarte eragina eta inposizioa

Euskal Herriko intelektual espainolistek zehatz-mehatz azaldu dute beren ustez zertan den gaur egungo hizkuntz diskriminazioa eta zapalkuntza. Es dute noski horretarako eragozpenik izan: gizarte-komunikabideak

eta bereziki prentsa espainolista haiek eduki dezaketen oihartzun zabala emateko zabalik egon dira. Recalde jaunak, gure hezkuntz-sistema «elebidunaren» ardura zeramanak, «opresión» hitza erabili du, eta Aurelio Artetak «coacción». Kontseilari ohiak egoeraren larria honela deskribitzen digu: «Pero para que la presión sea eficaz es preciso, no sólo que existan leyes que la establezcan, sino también que estas leyes sean aceptadas por la sociedad. Y el fenómeno de rechazo puede surgir cuando las leyes, o su aplicación, no son asumidas como justas, cuando se percibe que se pasa, de una presión aceptada, a la opresión» (DV, 91-III-15). Nafar irakaslearen aldetik berriaz, aholku hauek jaso ditugu gehiegikeriatan ez erortzeko: «Así que, si de verdad quiere emprenderse la extensión del euskera entre nosotros, no basta con la aceptación pasiva de la mayoría. (...) Un auténtico consenso sobre el euskera —para ser legítima y eficaz— requiere la formación de una voluntad racional y libre. Esto es, basada en el convencimiento y no en el contagio: movida con argumentos, no por fe. Y en libertad, que no desde la coacción. llámese psicológica o política, moral o militar» (El Correo Español, 91-IV-11).

Indar erdalzaleen bozeramaileok arrazoia eta etikaren lezio ederrak ematen dizkigute, ikasi nahi baditugu. Arbuioaren datua begien bista-koa omen da, euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazio-oinarririk ez dagoenean, irakaskuntza eta administrazioaren arlotan ezarri nahi diren hizkuntz eskakizunak lekuz kanpo omen daude. Ez dagoela, alegia, presiobide «gogorrik» egiteko baldintza soziolinguistikorik. Hutsaren hurrengo duen presentzia batekin hizkuntza «minoritario» bat gauetik goizera normalizatu nahiak ez duela zentzurik; esku batean datu estadistiko zuzenak (eta ez zentsukoak) eta bestean plangintzarako diseinu-ardatzak eduki behar direla euskara borondatezko eta nahimenezko bideetatik sarrerazteko.

Hizkuntz diskurtso espainolista, zalantzarik gabe, oinarri sendoetan dago eraikia. Minorizazioaren egoerak horretarako bide ematen bait du: esaten eta egiten duten guztia esateko eta egiteko «datu objektiboak» bide dauzkate. Gorago adierazitakoaren haritik, errealitatea bera, bere gordintasun ideologiko-materialcan beren aldera funtzionatzen duen zerbait bihurtzen da egoera hauetan. Minorizazioaren ondotik hizkuntz komunitate suntsitua, nolabait esan, arrazoirik gabe geratu da. Egoera-errealitateari darizkion datu-izakerak, «berez», hizkuntz indar sozial menderatzailearen aldera moldatuak bezala ageri dira: kosta egiten da, ikaragarri kostatu ere, «ebidentzien» kontra ihardun beharra. Adibide soil bat, besterik gabe: elebitasunaren inguruko diskurtso guzti-guztia «ebidentzien» inguruan eraikia dago eta euskaldungoaren kontra funtzionatzen du «berez».

Nola saihestu inposizioa

Euskararen auzian, maila teoriko-ideologikoan aukera radikala egin dugunok ere, badugu noski hizkuntz plangileentzat ohar interes-

garririk erdaldungoko zenbait sektore beren onetik ez ateratzeko. Euskara halako oso bestelako eremu-artetan ezarri asmoz hartu diren erabakien ondorioak, egia esateko, ez dira oso pedagogikoak, are psikologikoak ere izan. Beren lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna dela eta, edota bestelako eskakizunen bat dela eta, erdal hiztunari euskara baldintza orokor hauetan eskatzeak tirabira ukaezinak sor ditzake. Eta normalena, horrela izatea da: hizkuntz ikaskuntzaren prozesu zabalean ikasbide ugari dago xede-hizkuntzaren beharra eta premia hutsaren hurrengo baldin bada, ikasle-hiztunaren aldetik arbuio eta gorrotorik piztuko dela frogatzeko.

Euskararen etsaiek, arrazoirik zerbaitetan baldin badute, honetan dute hain zuzen: hizkuntz eskakizunen politikak porrot egingo duela, aldez aurretik eta aldi berean hizkuntza hori (euskara, alegia) barneratzeko eta erabiltzeko motibazio askirik ez baldin badago. Hauxe da, izan, egoeraren gaitztoa esplikatzen lagun diezaigukena. Euskararen aldeko gizarte-dinamizak sortu eta hedatu gabe, euskararekiko atxekimendua maila akademiko-formalaren ikur sinboliko bilakaturik, zenbait barruti publikoetan euskarazko gaitasun jakin batzu eskatzen hastea, ez da metodo txarra egon omen dauden «jarrera euskaltzale zabalak» uxatzeko. Hemen, auziaren muina, honetan datza: hizkuntz politika, inposizioaren arrisku guztietatik begiratu behar baldin bada, ez dela hiztunlegoaren bizkarrean ezarri behar, honek bere burua diskriminatuzat sentituko duelako, nahiz eta gutako bakoitza hizkuntz esku-bideen filosofia guztiarekin joan.

Noiz ez da sentituko, bada, neurri batean edo bestean, ideologiaz eta politikaz erdaldundua dagoen hiztunlegoa, euskararen munduan barneratuz euskara ikasteko motibazio askirik gabe? Erantzuna, irakurleak igarri duenez, euskararen presentzia behar adinekoa denean bakarrik sentituko da «gustora» euskararen bideetan. Baina, jakina, nola garantizatzen da behar adinako presentzia hori euskara erabiltzeko mekanismoek porrot egingen badute? Ikasi, ikasten omen da, baina erabili, apenas. Gorpil zoro hau hautsiko duenik ba ai dago nonbait? Ez dirudi oraingoz, ikusiak ikusita.

Hizkuntzen erreproduzio mekanismoak berez hiztunlearekin zer ikusi handirik ez zuela konturatu bezain laster ohartu ginen batzu, egungo hizkuntz dinamika sozial honek ez zuela atarramendu onik izango. Eta azken gertakarien nondik-norakoak aurreko tesi hura are sendoago finkatu du bere oinarrietan: hizkuntz komunitatearen hizkuntz jokabide eta jarrerak hizkuntz erreproduzio-mekanismo nagusienen arabera moldatzen dira eta hauek determinatuko dute tendentzia sozio-linguistikoen arlo kontraesankorrean hizkuntz atxekimenduaren auzia. Bide bakarra, alferrikako tentsio eta liskarrik ez sortarazteko, erreproduzio-mekanismo horien baitan euskara sarreraztea da eta baina linguistiko intentsiboan bizitzea. Baina, jaunak, gure artean zer-nolako presio linguistikoa sentitzen du euskaldun-gaiak hizkuntza hori ezertarako entzun-irakurri eta hitz egin gabe bizimodua egiteko ingurunean

bizi dencan? Nola arraino, izan ere, sentituko da «motibatua», eguneroko bizi-giroan jasotzen duen hezkuntz-kultur-informazio guztiak gero lanerako edo eskatzen omen dioten hizkuntzarekin ezer ikustekorik ez duenean?

Intenbide bakarra, esan bezala, funtzio nazionalaren espazio sinbolikoan «Txepets»ek ezarri izan dituen aparatu-erakunde ideologiko-kulturaletan euskara neurri sendotan sartzea da. Bestela esan: telebista, irrati, prentsa eta aparatu kulturaletan euskarak egiazko sarbiderik ez badu, galbidera baizik ez daraman hizkuntz politikaren zurrumbilo arriskutsuan sartu gaituzte gure elebidunzale porrokatuek.

Hizkuntz inposizioaren mamuarekin aurkitu dira aurrez-aurre hitzetik hortzera, inposizioaz hitzik aditu nahi ez zutenak. Euskararen inguruko hizkuntz politikaren oinarri-zutabeak aurreritzi-beldur horren gainean eraikirik daude. Orain sektore espainolistetatik egotzi zaizkien salaketan aurrean, euskararen inguruan inolako inposizio-arrastorik ez dagoela erantzunez atera dira, gauza guztien gainetik inposizioaren mamua saihestu nahi zuten zentzudunak. Irudi luke, oso oker ez bagaude, bidean aurkitu nahi ez zuten behatoparri hareekin berarekin topo egin dutela. Eta ez gara batere harritzen.

Jarrera espainolstek beti izango dute «artazoirik» beren botere-ahalmenek biderik ematen dien neurrian, herri-eskubide oinarritzkoenak zapuzten jarduteko. Baina ukazina da, datu eta argudio asko kentzen zaizkiela, euskararen behar-premiak egiazki sortuz. Euskararen behar-premia horiek zinez benetakoak diren neurrian, jendeak gero eta gutxiago hitz egingo du hizkuntz diskriminazioaren inguruan. Jendeak eguneroko hezkuntz, informazio eta kultur jardunetan aritzeko orduan, hizkuntz erreproduktzioarako gune nagusitzat jotzen ditugun aparatu eta bide horietatik, hots, hizkuntz funtzio formalak gauzatzen diren esparruetatik, euskara atertugabe jasoko balu, luzagabe isilduko litzateke inposizioaren zurrumurrua.

Justu-justu gauzak alderantziz egin dira ordea. Funtzio jaso horiek eta beste antzeko batzu erdararen monopoliopean eduki dira, hizkuntz dinamika soziala lehengouan usteltzen eduki da euskararen aldeko politika ofiziala egiten hasi zenetik, eta orain halako eta halako funtzionari edo maisuri euskara ikasi behar duela adierazi zaito. Legitimizazioaren eta kontsensuaren diskurtsupean habestu dira legea estalpetzat harturik. Baina indar soziolinguistikoko espainolak ez daude horretarako: hori, onenean ere, lege zuzen batzuren aplikazio basatia omen da.

EUSKARAZKO ESKOLAKETAREN BIGARREN URRATS NAGUSIA

Hemeretzigarren mendean euskarazko eskolaketaren arloan egindako saiok (Pascual Iturriaga) edota gerra aurrean urratu ziren aurre-rapausoak (Altzoko Migel Olano: «El vehículo ordinario de la formación intelectual del individuo vasco ha sido y es una lengua extraña, el español o el francés; lenguas que reflejan y expresan un alma distinta de la de los vascos. Y esto es una monstruosidad pedagógica» —1933—) alde batera utzirik, orain aurkezten zaigun une historiko berri honetaz pentsatzea eta sakontzea beharturik gaude. Ikastolen sorrera izan zen oraingo honen abiaburua. Herri mugimendu horren ke-
rizpean gauzatu den euskarazko eskolaketarik burutu ez balitz, bere haitan gauzkan hizkuntz koinuntura hau mila aldiz makurragoa izango zatekeen.

Ikastolen sorrera: zergati nagusiak

1972an Arantxa Allurek honako hau idazten zuen: «Gure haurren eguneroko bizitza erdal giroak menperatu izan du: bai familian, kalean, lagunartean, irakurgaietan eta zer-esanik ez telebisió eta zinekó programetan. Giro hau aski ez bazen, haur hauek erdal eskoletara joatera beharturik ziren, hau bait zuten ikasketa leku bakarra. Esan beharrik ez da eskola hau haurrentzat arrotza gertatzen zela, nahiz hizkuntza eta pedagogia mailan ere» (Jakin-6:47). Orduko ikastola-giroaren lekuko zuzen baten ideiak dira; jakintzat ematen ditugun egoera hauek oroit arazteak ez digu kalterik egingo, denboraren poderioz ikastolaren ibilbide luze-malkartsuaz ulermen-elementu berriak sortu baitira ezarian-
ezarian. Anikulu honen motiboa, auzi honetan azken aldean argitaratzen ari diren guztiena bezala, Ikastola eta Eskola transferitu-publikoén arteko konfluentzia denez, ikastolen Elkarteá dago eztabaidaren gunean. Komeni da, beraz, Elkarte honék berak Ikastolen sorreraz duen ideia hemen jasotzea, gero esan nahi dugunaren argudio-oinarri. Hona beraz, labur eta zehatz: «Garai hartako eskola akulturizazio eta kolonizazioko tresna bat zen. Eskola honen aurretz aurre sortu zen ikastola hez-

kuntz alternatiba bezala bere hezkuntz proiektuaren barruan herri baten oinarriak biltzen dituen hizkuntza eta kultura jasoz». (Euskal Eskola:19).

Ikastola mugimenduaren sorreraz eta zergatiak hitzegiterakoan, hortaz, gainerako arrazoi guztien buru, honako hau jarri behar da: hizkuntz ordezkapenaren ondorioz erauzitako oinarri etnokultural funtsezkoenak desagertzeaz daude eta hauei nola edo hala eusteko euskarazko eskolaketa jartzen dute abiatan sektore euskaltzaleek. Gainerako justifikazio-oinarriak ez daude datu honen pare eta ez da zilegi orain orduan abiatutako norabidez aldatu nahi izatea. Orain ere, hain zuzen, euskarazko eskolaketa, erdarazkoaren parean, alderaezina baita goi-ikasketak alde batera utzia ere.

Eskolaren euskalduntze-indarra

Euskal Eskola Publikoaren berrantolaketaren une honetan nekez egin daiteke planteamendu orokor egokirik eskolaren hizkuntz indarra edo eragina zertan den zehatz jakin gabe. Orain arte esandakoaren arabera, faktore hauxe izan bait zen ikastolen sorrera eta garapena erakarni zuen motorra. Baina zertan da gaur egungo gizarte-molde honetan eskolaren euskalduntze-indar hori? Gure artean ere gutxi geldituko dira ikastolen hastapen haietako itxaropen-ilusio haiek oinarri handirik gabekoak zirela konturatu ez direnak. Oraindik ere halakorik balego baztarretan, azal ditzagun hemen, uste hura gehienbat ustel zenaren froga, zenbait azterketen irakaspideak. Ez dago horretarako, gainera, halamoduzko radikal-sutsuetara argibide bila jo beharrik. Aski da Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren aholkulari baten emaitzak hartzea.

Honela dio Fishmanek, auzi honi dagokionez, gure artean aurkeztutako txosten batetan: «Haurrek ikastetxean ordu asko ematen dutela eta, eskolagan itxaropen gehiegi jartzeak etsipen-bidea dakar berarekin, garai bateko Irlandako esperientziak eta gaur eguneko Frisiakoak eta Maorienak argi asko erakusten dutenez (...) Hizkuntza ezin du eskolak bere kabuz eta bere eragin hutsez biziberritu. Haur txikiengan hizkuntza biziberritzeko ahalegin nagusi hori familia-auzo bizigiroek eratzen duten konplexu osabetezkoak soilik eraman dezake aurrera; eta konplexu hori bera ere, hiritartze eta modernizatze prozesuek aurrera egin ahala, gero eta konplexuagoa ari da bilakatzen». Antza denez, euskararen egoera beretsutan dauden egitura soziolinguistikoetan bigarren hizkuntza, hots, herrian herriko mintzaira menderatua, eskolabidez normalizatzeke saiok huts egin dute. Huts egitearen arrazoi nagusia, bestetara jo gabe, ondo baino hobeto deskribatzen du Fishmanek berak datorren lerrokadan: «Are gehiago: hizkuntzak komunikazio —eta identifikazio— lanetan oinarritzko zeregina duelako, eskola bidez eskuratutako hizkuntzotan hitz-etorri erraza lortzeak eta hartan

irauteak gehiago zor die azkenean eskolaz kanpoko eta eskola-urteak bukatu ondoko faktoreei (hizkuntza hori erabiltzeko aukerari, erabile-raren balio funtzionalari eta antzeko faktoreei) eskola barneko faktoreei beraiei baino (ikastorduei, irakas metodologiei edo ikasmaterialei, kasu)» (Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua:181).

Fishmanek eskaintzen dizkugun zehaztapen hauen argitan, honez gero, zalantzabide txikiena bera ere ezabaturik gelditzen da aztergai-tzat dugun auzi honetan. Oinarrizko eta ertainetako hezkuntz sistema oso-osoak euskalduntze bidetan erabat barneraturik balego ere, ez luke horrek euskararen gizarteratze-bermarik eskainiko egungo baldintza soziolinguistikoetan. Oinarrizko eta ezinbesteko argibidea dugu egiaz-tapen-datu hau, Euskal Eskola Publikoaren birmoldaketa dela eta ikas-tulen aldetik aurrera eraman behar den hezkuntz politikan.

Eskola transferituen hizkuntz egoera

Euskararen gizarteratze-ezarpenean, ikusi ahal izan dugunez, hez-kuntz sistema guztia euskaldundurik balego ere, ez legoke besterik gabe itxaropenerako motibu gehiegirik. Hori horrela bada, zer egin de-zakegu gaur egun daukagun eskolaketarekin?

Hemen orain sare pribatua alde batera utziko dugu, baina sare hori bera ere, duen pisua izanik (ikaslegoaren %36,7 derrigorrezko ikas-kuntzan 1989-90ean), berehalakoan euskaldundu beharko litzateke inork ezer egiteko asmorik baldin badu herri honetan. Nolanahi ere, Euskal Eskola Publikoaren orainaz eta geroaz mintzo garenez, lot ga-kizkion honi eta azal ditzagun, geroko proposamenen euskari, egungo eskola transferituei buruzko hizkuntz aldagai azpimarragarrienak.

Eskueran ditudanak 1989-90 ikasturteko datuak dira eta irakasere-duen banaketa honelatsukoa zen eskola transferitu hauetan E.A.E.an. Eskolaurrea: A eremuan %14,7; B eremuan %21,8 eta D eremuan %9,3; hasiera zikloa: A eremuan %17,3 eta D eremuan %6,1; erdiko zikloa: A eremuan %26; B eremuan %11,7 eta D eremuan %4,9; goiko zikloa: A ere-duan %34,3; B eremuan %7,6 eta D eremuan %3,7. Guztira eremuan ba-naketa zera da: A eremuan %25,3; B eremuan %13,1 eta D eremuan %5,5. Ehuneko hauen osagarri gisa, esan dezagun sare honek ikasle guztien %44a biltzen duela bere baitan. Heziera arloko hizkuntz ikus-pegi meharra izango genuke, ikastereduak ez ezik irakaslegoaren eus-kalduntze-maila zertan den agertu gabe. Eskola publikoaren eremu ho-netan, eskolaurrea, OHO eta ertainak barne direlarik, irakaslegoaren hizkuntz egoera honelatsukoa izan behar zuen 1990ean: %38,11 EGA-dun eta %6,32 IGAdun. (Euskal Irakaskuntza: 10 urte).

Gogoan har dezagun, beraz, eskola sare horren baitan %44 inguruko ikaste kopurua dabilen bitartean, ikastoletan %20 ingurukoa dabilela. Horiek horrela, ezin ahanziko dugu erabat ertainetako irakasteredu-en egoera iturri berberak erabiliaz. 1989-90ekoa da egoera hau: A ere-

duan %84; B ereduari %1,1 eta D ereduari %14,3. Ikastetxe pribatuak ere barne daude proportzio hauetan.

Nora goaz irakaskuntzaren hizkuntz ezarpen honekin? Hau al da gure herriaren oinarri etnokulturalak transmitituko dituen eskola euskalduna? Noraino irits daiteke irakas-sistema osoan (EA + OHO) D ereduaren ezarpena %25 ingurukoa (1990-91): %24,45) denean? Euskal Eskola Publikoaren egitasmoaren ardatza faktore etnolinguistikoen garapen-berme baldin bada, eta nekez izan daiteke besterik ikastolen mugimenduaren helburu gorenak ahanzi ez dituenarentzat, egoera gordin honi darioen euskalduntze-dinamika geldo bauxe izan beharko genuke proposamen-tesi nagusi guztien ahiaburua.

Konfluentzia: giltzarrien bila

Ikastolen aldetik nagusi diren hezkuntz kontzeptuen azalpenik hermen egitea alferrikakoa izango litzateke. Jakin nahi dituenak ez du eragozpen handirik izango Ikastolen Elkarteak gizarte-komunikabideen ildotik edota barnerako argitaratzen dituen txostenen bitartez hezkuntz sare honen helburu eta strategi-lerroak nondik-nora bideratu nahi diren jakiteko. Hor daude, besteak beste, «Euskal Eskola» derizkan liburua eta oraindik-orain burutu berri den «Ikastolen II. Batzar Nazionala» izeneko txostena.

Gure azkeneko lerro hauetan, funtsean, bi gauza seinatu nahi ditugu. Lehendabizi ikastolek beren Elkartearen bidez markatzen ari diren horrokabide dialektikoa, eta bigarren Euskal Eskola Publikoaren Legea onartzeko koinuntura-unean gerta litekeen gauza arriskutsu bat.

Inolako xhetasun eta naharduratan galdu gabe, esan dezagun Ikastolen Elkarteak oinarri-garantia batzu eskatzen dituela bi sareon baterakuntza euskarazko eskolaketaren dinamikaean hezurramitua izateko. Faktore determinatzaile honekin eskuz-esku datoz hezkuntz autonomia, titularitatea, gobernuko eta funtzionamendurako egitura eta beste zenbait kontzeptu. Hor dago orobat Nafarroa eta Iparraldeko ikastolekiko elkartasuna eta finantz iturrien arazoa. Eta, esan bezala, badu arazoirik Elkarteak egiten duena egiteko, herri honek bere Eskola Nazionala eraikitzeke baldintza orokorrik ez duenean.

Eraiki daitekeen neurriko Euskal Eskola Publikoa eraikiko da ezinbestez. Eta hona, gure kezkaiturri nagusia, honenbestez: Eskolaren euskara-ekarpena baldintza soziolinguistikoa hauetan hutsaren hurrengo denean, nekez aurki daiteke arazoi sakonik Euskal Eskola Publikoaren baitan eskola transferituetako %44 hori euskalduntzeko prozesuan saihesbidea hartu eta sare berezi batean jarraitzeko. Hezkuntz edukin eta kalitatearen zer nolakoak berez duten balioa gutsietsi gabe, funtzionamendu eta autonomi-esparruen barne baldintzek duten pisu guztiarekin, ezin ahanzi dugu, kontzeptu-tresna hauek bide eta bitarteko besterik ez direla azken finean. Ikastolen aldetik ez litzateke zuzen

jokatzea izango, orain bigarren une historiko honetan (eskola sare nagusia dago jokoan ikasle-kopuruari da gokionez: %44), frankismoaren menpe sortu eta hedatu den euskal sarea bere baitan itolzea erreberba gisara mantenduaz. Erronka arriskutsua da, eta hori ez du inork ukatzen, baina arriskubide larriena ez da, orain eraiki daitekeen Euskal Eskola Publikoaren neurrizko zerbait eraikitzeko orduan. PSOE edo Buesa jauna. Mundu guztiak daki E.A.J.ren esku dagoela eraiki daitekeen eredia ahalik eta baldintza egokienetan lantzeko erabakimena.

Ez dezagula hezkuntz eredu hobe baten izenean, hain ona izango ez litzatekeen euskarazko eskolaketaren goiburua historikoa galdu, indar politiko nazionalistek egin behar zutena egin ez dutelako: Euskal Eskola Nazionala eraikitzeko baldintza juridiko-politikoak ezartzea, alegia.

EUROPA ETA EUSKARA

Hizkuntzen nondik-norakoa, dakigunez, ez dago lekuan lekuko mikro egituren baitan erabakia bere determinazio-lerro nagusitan. Azken mendeotako determinazio-barrutia Estatuaren mugak izan baldin badira, azken hamarkada hauetan hori ere aldatzen ari zaigu Europako alderdi hauetan. Euskararen geroa honez gero, espainiar eta frantses estatuen baitako hizkuntz gertakizunen katean ez ezik, Europa mailako hizkuntz komente soziolinguistikoan mailan ere erabakiko da neuriren batetan. Nekez aurriku dezakegu euskararen gero hori, Euskal Herriarena berarena, eta Estatuena beraiena, nondik bideratuko den, edota nondik-nora bidera litekeen, antzeman gabe. Abiapuntu sendorik nahi badugu, beraz, euskara gure herriaren bihar-etziko etorkizunaren baitan txertatu beharko dugu, aldiberean herri honen kokagunea Estatuaren kateamenduan planteaturik.

Estatu-nazioa: eraldaketak bai, baina ez hainbestekoak

Esan berri dugunez, Estatuak izan dira hizkuntz interbentzio eta hizkuntz ezarpen sozialaren gidaritza izan dutenak azken mendeotan. Orain, hori zerbait aldatzeaz baldin badago, jakin dezagun zertan alda daitekeen Estatuaren burujabetza nazioare mailan, eta bereziki Europako Elkartearren taiuketaren ondorioz. Estatu-nazioen barneko aldakuntzaz ari garenez, Elkarte berri honen beraien baitan erakarri ditzakeen eraldaketek egin ditzagun oinarri-oinartziko ohar-gogoetok Poulantzasen eskutik:

- a) Estatuak, klase nagusienaren lanahes hutsa ez denez, bere izakera «nazionala» ez du galtzen klasetasun interesen araberako aldaketa prozesu batean. Hala ere, ekoizpen eta kapitalaren nazioartekoizte-prozesuak eraginda, Estatu-nazioak funtzio berri batzuei eskuratzen diu eta, hainbatean, «naziogaindiko» dinamika historiko berri batetan barrena abiatzen da, europar estatuok abiatu diren bezala.
- b) Dinamika historiko berri honen harian ez al dute Estatu-nazio europar hauek beren baitako «gizarte-formazio» nazionala galduko? Prozesu honek ez al dakar berarekin Estatu-nazio hauen

iraungipena bere oinarri «nazionaletan»? Antzeko galderak dira nagusi aspaldi honetan. Eta erantzuna, cuskaldunon zoritxarreako, ezin okerragoa izan daiteke. Izan ere: Estatu-nazio hauen oinarri «nazionala», bere determinazio konplexuan (ekonomi, lurralde, hizkuntz eta ideologi-batasunean), funtsezko ezaugarriotan aldakuntza larriegirik gabe txertatuko bait da Europako Elkartearen joan-etorrian.

- c) Funtsezko aldakuntzarik ez baldin badator, zertan alda daitezke europar estatuok? Itxura guztien arabera, aldagarriak diren elementuak, ez dira berdin aldatuko estatu guztietan, eta eraldaketaren alderdi nagusi batzu hauek bide dira: errepresio internazionalaren mailako paper berria asumituko du estatuotako bakoitzak; Estatu-lurraldeaz gaindiko interbentzio ekonomikoa erakarriko du; Estatuaren barneko sistema juridikoen izakera eta funtzioa nazioartekotzearen interes orokorretara moldatuko dira. Eta abar.
- d) Guzti honek, halaz guztiz ere, ez du egungo estaturez gaindiko gain-Estatuak erakarriko Europan. Honek ez du esan nahi noski, beren baitako zenbait lokarrigunetan pitzadurarik eta desorekarik sortuko ez duenik. Ez du esan nahi orobat, bere baitako desartikulazioaren joera garatu ezina denik; baina joera honen garapena ez da berez prozesuak eragindako norabidean gauzatu, bere barruko nazionalitateen borroka-mailak determinatuko du desartikulazio horren neurria eta sakonera.

Hizkuntz inperialismoa: eraso berriak atarian

Goiko hau edo antzeko testuinguru politiko-linguistikoa kokatu behar ditugu hizkuntza minorizatu-zapalduak mendebalde honetan. Sinisteak lanak ematen ditu, baina bada fede interesaturik gure artean Europa gure bihar-etziko etorkizun nazionalaren itxaropen-iturria dela etengabeki aldarrikatzeko. Fedeak eta ekintzak, ordea, ez datoz bat hemen ere. Eta orain arte Europako Elkarteak auzi honetan urratu duen bidea urratuta, ez dirudi harako haien itxaropenek oinarririk gabeko uste hutsalak baino ezer gehiagorik dutenik beren mezuan. Ikus dezagun zertan datzan europear hizkuntz politika hizkuntza oinperatu hauei dagokienez: «Hizkuntza eta kultura horienganako politika orokorra, Europako erakunde handien markoan —Europako Kontseiluan eta Europako Parlamentuan—, era esanguratsu batean adierazi da 1981etik aurrerako gomendio eta erabakietan. Guzti horietan jakin erazten zen hizkuntza eta kultura batzutan «minoritario» eta bestetan «erregional» deituak irakatsiak izan daitezkelako gogoia, duintasunez garatu ahal izateko laguntza politiko-ekonomiko bat lor dezatelakoa eta, areago oraindik, araudi-maila batek horretarako biderik ematen badu, hizkuntza ofizial edo ofizialkide bezala garatzekoa administrazioan, goimailako ikasketetan, komunikabideetan eta bizitza publikoari doakion guztian.

Gomendio eta erabaki horiek, hala ere, ez dira behartzaitzak. Eskuak libre uzten dizkiete gobernu estatalei berriek interpretatu eta aplikatzeko orduan» (Aureli Argemi, Jakin-40).

Nazioarteko hizkuntz ingurune soziolinguistiko honetan, gauzak, zentzu batean, alderdi onera doazenaren ustea bizteko moliborik emanen badu ere, beste hainbeste arrazoi dago, gehiago ez bada, kontrako zentzuan argudiatzeko. Azken urteotako zentzu positiboak, dakigunez, ez datoz berez eta besterik gabe estatu-nazio imperialista hauen gogojokamoldeetatik: beren menpeko hizkuntz herri askoren erantzun eta borrokabideetatik baizik. Ekialdean eta, oro har, delako «gizarte-formazio nazionala» erabat finkaturik eta sendoturik ez zeuden herrialdeetan, irtenbideak aski bideragarriagoak direla ikusten da. Iku batzuta-ko odolbide lazgarriagoak (Jugoslavia) abantzi gabe. Mendebaldeko alderdi hauean, ostera, gauzak askoz ere zailagoak dira eta ez bakarrik hemengo estatuaren hizkuntz imperialismoa hortiztagoa izan delako; hori bezain baldintzatzailea da, ureago ez bada, hemengo hizkuntz herri askoren oinarri etnolinguistikoen erazupena. Ia ezerezetik abiatu beharra alegia. Eta hau biziki gogorra da, baldintzarik onenetan ere.

Imperialismoak, bere interbentzio-adar nagusienetan, baterapen joerak garatzen ditu gizarte-arlo guztietan. Inoizko bere interbentzio ekonomiko huts hura, jadanik ez da ezaguna. Gero eta nabariagoak dira eskuharmen horren efektu politiko-juridikoak eta hizkuntz-ideologikoak. Jadanik ez da mekanismo ekonomikoen sarbide eta erreproduktzio saila jokoan dagoena: kapital monopolistaren fase honi dagokion imperialismoa gizarte osoaren antolamenduari dagozkion egitura eta aparatua birsortzen ditu bere irispidean dagoen edozein herrialdeetan.

Nolakoak ote dira hizkuntz efektuak guzti honen harian? Nolako erantzun erresistentziak jarriko ote dituzte martxan bigarren edo hirugarren kategoriatuak Estatuak (Espainia, Portugal, ...) nazioarteko hizkuntza hegemonikoen sarbideari aurre egiteko? Zer egin dezakete, hizkuntz borrokaren koinuntura internazional honetan, euskara bezalako herri-hizkuntza soilek?

Hizkuntz dinamika historiko berri honetan, itxura guztien arabera, hizkuntz herri batek bere burua erabateko asimilaziotik babestu nahi badu, bere hizkuntza *status* politiko-juridiko egoki batean kokatu behar duen aurkituko da. Eta *status* hori ez dirudi honako hau baino bazuagoa izan daitekeenik: nazio hizkuntzarena alegia, beronen ezinbesteko funtzio guztiak bane direlarik. Puntu honetan ez dirudi Fishmanen tesi-proposamenak onargarriak direnik (ikus Txillardegiren «Hizkuntzaren berreskurapena Fishmanen arabera», BAT-6) jadanik hizkuntz koinuntura internazional honetan. Eta kezkarria da zeharo, tesi-proposamen hauei dagokienez, Eusko Jauriaritzaren hizkuntz politikaren oinarri teorikoetan, erreferentzigune nagusitaz Fishmanen pentsakera izatea. Honez gero, hizkuntz dinamikaren epaldi berri honetan, ez dira inolako argibide eta erreferentzi-puntu, behialako gizarte aurrekapitalistaren eredu diglosiko egonkorrak. Orain hizkuntza batek bere

existentzia sozialik ezin du bermatu erabilpen-funtzio formal/informalen arteko kopartimentazio eredu baten arabera. Oraingoan auzia, izan ala ez izan da: edota nazio hizkuntza bihurtu ala beharrezkoa ez den hizkuntza erdi-ikasi eta enbarazugarri bat mantendu.

Europako Elkartearen kapital monopolistaren eta ekoizpen-prozesuen nazioartekotze jakin bati zor baldin bazaio, batek ez daki nola ezkondu inperialismoaren ildotik ezartzen ari diren hizkuntza hegemonikoen interesak euskararekin.

Pentsa dezake bai, horren ondorioz Estatu-hizkuntza batzuek beren baitako batasuna eta lotura neurri batean galdu egingo dutela, eta abagadune horretan herri-hizkuntzen aldeko politika bideragarriagoa dela. Honelako zerbait bide dago gure arteko nazionalismo moderatuaren hizkuntz tesitatz har ditzakegun aurrikuspenetan. Hauek ordea, oker bide dabilta zera pentsatzean: Europaren hizkuntz interbentzioa Estatu-hizkuntza batzuren kalterako izango den zentzuan, herri-mintzairen onerako izan daitekeela. Estatuaren ohizko zentzu historikoa galtzeaz dagoela alegia, eta orain Europako espazio zabalean, herri-hizkuntza hauek ez dutela inguruan eta etxe barruan azken mendotan izan duten hizkuntz etsairik izango (espainiera eta frantsesa, guri dagokigunez).

Horrelako ilusio onik inori zapuzteko batera gogorik gabe, esan beharra dago, eta ozenki esan ere, ikuspuntu horiek soziolinguistikaren jakintza bideetan baino areago, planteamendu ideologiko zehatzetan dutela beren oinarria. Europaren hizkuntz interesen estrategia ez dela oraingo Estatu hauen bidez baizik hezurmamituko. Estatuok izango direla hain zuzen, nazioarteko hizkuntz estrategia berrien gokagune eta bideratzaile: hitz batez, ezin direla, adibidez, Estatu espainolaren interes linguistiko nazionalak alde batetik jarri, eta beste aldetik Europaren hizkuntz estrategiak, elkar osagarriak ez balira bezala, kontrajarriak hailiren. Kontrajartze hau, Estatuak alde batetik eta Europa bestetik alegia, nagusitzen ari den gizarte-moldea maila internazionalen Estatu-tuetarik at ezarriko balitz bezala planteatzen digute gure ideologo-politikoei. Eskema honetan, badirudi, ideologia burgesaren ikusmenak ez duela biderik ematen, ia-ia begien aurrean dagoena ikusteko: antagonismoan daudenak ez direla estatu-hizkuntzak eta nazioarteko hizkuntza hegemonikoak, guzti horiek eta herri-mintzairak baizik.

Eta horretarako egungo joera inperialistaren barne-logia kontutan hartzea besterik ez dago: logika hau, eta hizkuntzaren ere hor barneraturik dago, lekuan-lekuko Estatuaren bitartekotzat baliatuko dela bere gizarte-ezaugarri eta elementuak erreproduzitu ahal izateko. Eta Estatu honek, kontraesanak kontraesan, onetsi egingo duela ezaugarri eta elementu horien erreprodukzioa. Baita hizkuntzaren ere: ingelesaren ezagupen-behara, esaterako. Baina nola eta zertaz sortaraziko du, Euskal Herrian adibidez, logika horrek euskara ikasteko eta erabilzeko behar-baldintzarik?

Hau pentsatzea, besteak beste, inozokeria da, herri honen etorkizuna etsaien menpe uztea ez baldin bada.

EUSKALGINTZA: PRAKTIKA BATEN GORABEHERAK

Euskal soziolinguistikaren debategunea alde batera edo bestera le-
rratzen duena, azken buruan, ez dira elebitasun edo elebakartasunaren
inguruko auzimauziak. Ezta hizkuntz plangintza eta politikaren oina-
rrizko kontzeptuok ere: lurraldetasun edo norbanakoaren hizkuntz es-
tatu-eskubideak, hizkuntz funtzio-esparru desberdinen arteko lotura
eta lehentasun-sailkapenak, edota marko juridiko-politikoaren muga-
eraginak hizkuntz prozesu soziolinguistikoaren joan-etorrian. Egia da
hemen zerrendatu herri ditudan auzigaion inguruan ez dugula aho bate-
ko adostasunik agian aurkituko herri-euskalgintzan, baina, guztiarekin
ere, bigarren mailako eragina izan ohi dute. Besterik da noski, herri-
euskalgintza honen ikuspuntuok aginte autonomoetako tekniko-politi-
kockin aurriz-aurriz ipintzea: batzuren eta besteren arteko mugari teori-
ko-operatiboak laster azaleratzen dira, aurrenekoen jarrera-azterpideak
ikuspegi globalizatzailearen haritik oratzen diren bitartean, bigarrenak
hizkuntz ideologia juridiko formal-indibidualaren iturritik edaten du.

Gaurkoan ez nuke ordea goiko mugari horren alde batera eta bes-
tera daudenen artean sortzen diren ulertuezinak jorratzen jardun nahi.
Alde batera kokaturik daudenen artean somatzen dudak kontraesan teo-
rikoa aztertu nahi nuke; berriro diot, kontraesan teorikoa, eta ez ideolo-
gikoa edo praktikko-operatiboa. Honek ez du haatik, kontraesan teoriko-
aren pisua eta eragina gutxiesten. Izatekotan ere, gehitu: izan ere,
hizkuntz interes beretsuak defendatzen dira batetik eta bestetik, eta hiz-
kuntz borrokaren nondik-norakoak marrazterakoan, are eraginkorragoa
gerta liteke soziolinguistikaren oinarri teoriko-kontzeptualen arteko
tira-bira, berez eta objektiboki, interes-xedeak berberak direnean.

Bi interpretaziobide: idealista eta materialista

Herri-euskalgintzaren arloan kokatuko genituzkeen bi ikuskera
hauek hizkuntz praktikari buruzko zehaztepenetan ez datoz erabat ba-
tera. Baina nekez adieraziko dugu bata eta bestearen arteko desberdin-
tasunik harik eta hizkuntz praktika bera zertan den zedarriztatu gabe.

Bestetan hasi baino lehen, hortaz, hizkuntz praktikaren ideia-kontzeptuaz ohar batzu egin beharrea gaudu.

Kontzeptu honek bere baitan duen esanahia aditzera emateko, labur beharrez, zehaztapenok egingo genituzke. Alegia, zertan datza bere lehengai? Zer aldatzen du bere jardunean praktika soziolinguistiko honek? Erantzun bat hau izan liteke: harreman soziolinguistikoak ditu bere lehengaitzat eta hauen aldakuntza du bere helburua. Harreman soziolinguistiko horiek aldeztetik ezarria datozkio eta beren eraldaketarako lanabes teoriko, ideologiko, tekniko eta operatiboak erabiliko ditu euskara-militanteak. Haueri esker, edota lanabes hauen aplikazio zuzen-egokiari esker, harreman soziolinguistiko horiek euskararen aldera ferraraziko ditu. Praktika mota honek, bistan denez, maila asko ditu bere baitan, eta batzu aipatzeko, ondorengo hauek aipa genitzake:

a) maila ideologikoa edota hizkuntz kontzientziaren eraldaketa hizkuntz ideia sozialen barrutiko borrotagunean; b) maila tekniko-teorikoa edota soziolinguistikaren *status* kontzeptuaren baitako jorraketa (elebitasuna, hizkuntz plangintza, diglosia, etab.); c) gainerako gizarte-praktikekin dituen lotura eta harremanak edota hizkuntz praktika soziolinguistikoaren kokapena haiekin osatzen duen gizarte-praktiken sare konplexuan (hots: praktika politiko, ideologiko, ekonomiko eta abarrek dituen loturak).

Guk hemen zedarrizatu nahi izan dugun praktika-kontzeptu teoriko honek ez garamatza berarekin euskaltzalearen hizkuntz praktika pertsonalizatura. Praktika maila hau, norbanakoarena alegia, berez beti korrante-joera zabalago baten barruan determinaturik dago. Hain zuzen ere, posizio ideologiko-linguistiko sozial bati dagokion korrontean, eta hainbestean, gizarte-interes batzuren baitan determinaturik dago. Maila teorikoan, beraz, esango genuke, hizkuntz militantearen izaera eta esanahia ez dela ohargarria, bera hizkuntz praktikaren arloan elementu soil batzuk ez denez. Honek esan nahi du, besteak beste, gutxi axola zaigula halako eta bestelako euskaldunak edo erdaldun euskaltzaleak zer egiten duen, aldeztetik ez baldin badakigu zer egiten duten euskal gizarte erdaldundu honetan gizarte-istantzia hegemonikoetan gizarte-klase eta talde etnikoek. Gizarte-praktikaz ari gara, ez giza-praktikaz. Hemen jokoan dagoena hizkuntz praktikaren kontzeptua bera da, eta hau ulertzeko interpretazio-bideak. Batzuren-tzat, eta ni tartean nago, praktika honen luze-laburrak ez dira hiztun-subjektuan hasten eta delako hizkuntz komunitatean ahitzen. Are gehiago: aldagaitzat dauzkagun harreman soziolinguistikoak gizaki-hiztunaren azpitik artikulatuak daude eta ezer gutxi lortuko genuke, onenean ere, interbentziogunetzat maila determinatzaile hau saihesturik, gainazaleko giza-harremanak aldatzearekin. Euskararen arazoa, batez ere, ez da giza-harremanen mailako auzia, gizarte-harremanen arlokoa baizik; eta honek, halaber, gorago c) puntuan aipatu dugunera garamatza; hau da, zertan da euskararen aldeko praktika gainerako gizarte-praktiken sare konplexuan?

Desadostasunak, beraz, bi gaion inguruan somatzen ditut nik neuk: hizkuntz praktika sozializai daukagun ideia bera da bestelakoa batzuren eta besteren artean, eta orobat, ukazina da, goiko c) puntuan ikuitzen den auzia ere jarrera eta ikuskera desberdinen lekuko dela. Euskalgintzan nagusi den ikuskera, hatere dudarik gabe, lehendabiziko auzian (zertan dira hizkuntz praktikaren lehengaia eta lanabesa?), jarrera holuntaristaren eremu zahalean hezuramitzen da. Honi dagokionez, behin eta berriro esan beharra dago, ez dela axola handiko kontua herri-euskalgintzari buruz ari garenean. Besterik da instituzio-euskalgintzari dagokionean: hemen, elementu tekniko-operatiboak, elementu ideologiko-politikoak mende egon ohi dira eta hauen arabera gauzatuko da dena delako hizkuntz politika ofiziala. Eta nork ez daki gure artean interes politiko-ekonomikoak euskaldungoaren aurka daukela? Hau ez dakienak ez bait daki ezer.

Ikus dezagun beraz, planteamendu teoriko baten harian. Agustín Pascual Iturriagak zioen harako hura: «la destrucción de una práctica perniciosa a nuestra lengua, y la introducción de otra, que le sea favorable». Planteamendu honek, besteak beste, honako oinarri-elementuok bereganatu beharko lituzke, noragabe ez ibiltzeko:

- a) Euskalgintzaren aribidea edozein maila eta motatakoa delarik ere, ezinbestez harreman soziolinguistikoak baitarik ari da eta hauek euskararen aldera lerratzeo gara-indarra hezuramitzen ari da.

Harreman soziolinguistiko hauek ordea ezin dira inoiz giza-harremanen arlo soilera murriztu; esana dugunez, harreman soziolinguistikoak ez dira giza-harremanak (euskaldunak euskaldunarekin edo erdaldunarekin dituenak), gizarte harremanak baizik. Besterik pentsarazi badezake ere, xehetasun hau ondorio handiko kontua da: euskalgintzaren objektu-aldagaiari buruzko kontzepzio oso bat dago tartean. Bata idealista, materialista (zentzu teorikoan) bestea.

- b) Presupostu teoriko idealistak hizkuntz prozesu sozialen nondik norakoa, azken buruan, «gizatasunaren» terminoan pentsatzen du. Bai, jakina da, ez duela ukatuko politika inperialistarik, Estatuaren hizkuntz zurrupaketarik, boterearen hizkuntz interes zapaltzaileak. Halaz ere, erizpide honen harian, azken faktore hauek eta antzekoak beti mendeko eragiletzat erizten dira. Ororen buru, lehenetsiko dena, «zuk eta nik eta nik eta zuk» euskararen alde egin dezakeguna izango da asmorik omenaz. Baina honek bere faktura pasatzen du gauzak oso bideragaitzak direnean, eta euskararen gizarteratzea, ezin da ahantzi, fase terminalan dagoen hizkuntza baten problema dela. Adibide argigarri bat jartzeko, «ebidenteltzat» jotzen den hizkuntz egitura juridikoari buruzko leloa jartiko genuke: ikuspegi idealista honen argitan, lege-markoaren ondorio-indarrak egitura juridikoa-

ren itxura-formalean ahitzen dira. Nork ez du entzun hizkuntzak ez direla dekretobidez ezartzen? «Ebidentzia» hau nahikoa da nonbait, juridikotasunaren materialtasun soziolinguistikoa itxuragabeki murrizteko eta tontoak engainatzeko.

- c) Euskararen aldeko hizkuntz praktika operatiboak ondo gogoan hartu behar du, horiek horrela, harreman soziolinguistikoen materialtasuna: hain zuzen ere, gizarteko egitura eta aparatu guztietan egunero gauzatzen diren praktika sozial guztien (ekonomikoa, politikoa, ideologikoa, etab.) materialtasuna. Edota praktika politiko edo ekonomikoan giza-harreman hutsak ote daude bada tarteko? Ondo gogoan hartu beharko luke, esaterako, arlo ideologiko-informatiboan, hizkuntzagintzaren euskarri-oinarriak nolako harremanetan dauden. Zer dagoen euskararen zerbitzuan, eta zer erdararenean. Eta gauden gaudenetik abiatuta, euskararen gizareratzeak, zer-nolako ezarpen gradua eskatuko lukeen abiaburuan bertan, hizkuntzagintzaren ekoizpen-hedakuntza garantizatzen duten gutxieneko gizarte-euskarriak euskararen esku ipintzeko. Guzti honek, ederki asko frogatuko luke, egungo hizkuntz politikaren porrota: euskararen ikaskuntza, nola-halako euskal hiztunak sortzearena alegia, oinarri usteletan eraikitako hizkuntz plangintzaren eredu bat besterik ez dela, alegia.

OIN-GAINEGITURAK EUSKARAREN JOAN-ETORRIAN

Materialismo historikoaren argitan —ideologia burgesen baimenarekin— euskararen auzia tratatzeak zenbait gogoetabide ireki dezake, inondik ere. Egia da, ikuspegi honen aipamenik egin gabe ere, bere oinarrizko elementu teorikoen presentzia soziolinguistikazko azterbide askotan atzeman dezakegula. Aitormenik egon ez bada ere, ordea, hor egon da, isilpean bederen, pentsamenbide askoren euskarri, bere kategoria eta kontzeptuekin.

Askotan esan da euskararen arazoa, bere jatorrizko eta ondorengo bilakabidean, ekoizpen modu berrien ondorioz gauzatu dela. Inoizko gizarte-egitura feudal orekatuetan, gizarteazko aginte-botereak esku arrotzetan egonik ere, hizkuntza nagusiarekiko harremanak nahiko orekatuak zirela. Hizkuntza bakoitzari zor zitzaion erabilpenezko konpartimentazioa, egorera diglosiko egonkor baten baitan uztauririk zegoela. Orain, pentsa ezina, bidenabar esanda. Eta menpeko bi egoera hauek, orduko egonkortasuna eta oraingo desagertpena, ezin dira inolaz ere esplikatuta gainegiturazko elementu politiko, juridiko eta ideologikoen bitartez.

Badago beraz, euskararen zori historikoa planteatzeko orduan, funtsezkoagorik; ezin izango gara beti aldiari aldiako koiuntura ezberdinen mirabe izan. Eta ez da ondorioz gabea aipatu berri duguna. Euskararen galbidea edo normalizaziobidea aldiari aldiako koiuntura «hutsa»ren esku dagoela pentsatzeak euskaldungoaren iraungipena ekarriko du, goiz ala berandu. Karlismoaren garaian euskararen zoritxarra liberaleri egotzi izana, edo geroago frankismoari, eta orain Konstituzioaren 3. artikuluari, borroka ideologikorako baliagarria izango dela ukatu gabe, berez bere baitan ahortzen eta ahitzen den argudiobidea dela ezin ahantziko dugu. Eta ahazten badugu, gureak egin du.

Baina zertarako balio digu orain euskararen auzia erro historiko sakon eta luze batzuren efektua dela aitortzeak? Zertarako, alegia, euskaldungoaren zoritxarra behinola nagusitzen hasi zen produkzio modu material zehatz baten ondorioz eraikitako Estatu-gainegitura oso-komplexu baten emaitza dela adierazteak? Ez bait du, izan ere, arrazoiak eta jakintzak gure hizkuntza dagoen menpeko egoeratik aterako. Ezer

baino lehen, ekintza dugu beharrezko, euskararen aldeko iharduera eta borroka, maila eta esparru orotan. Hala ere, ezer hori mamitzeko borrodate eta kontzientzia, bere forma anitzetan, hori egon ohi da ezkutuari edo agerian, sendo ala ahul. Eta euskararen borrokarako sistema ideologikoak mila ezaugarri taxaturik egon badaude ere, gidaritzat hartu beharko genukeen ikuspideak ez luke, onbidetan, hemen tratatzen ari garen funtsezko erreferentzianik erabat ahantzi behar.

Egia da irlandiararen adibidea aztertzerakoan Joxe Azurmendik zihoena, eta azken aldi honetan behin eta berrito errepikatu dena: «Zail eta arriskutsu ere gerta liteke, etsaia gonbatitzeko bere buruan sinestu behar duen herri zapalduari, zein deseginik dagoen esatea, uste ona eta konfidantza bere buruan lehertarazi gabe» (Jakin-I: 108 or.). Ez da nere asmoa beraz, zailtasunak zailtasunen gainean gainezkatzea. Uste izan dut gainera, gai guztietan bezala, hemen ere mintzo-maila desherdinak daudela; eta denak direla beharrezko, bakoitza bere eginkizunean. Are gehiago esango nuke, honetara jarrita: Euskal Herri euskaldunaren egitasmoa eta mamikuntza aldiari aldiko kontraesan-efektu hutsen gainean eraikitzeak, alde on adina makur ekarriko dizkigula luzarora gabe.

Kontraesanetan barrena abiatu garenez, idazlan hau amaitu baino lehen, zenbait burutapen egin nahi nuke. Besteak beste, Europaren baterakuntza dela eta, han-hemenka entzun eta irakur daitezkeen eritziz-usteak. Projektu hau, mundu guztiak dakienez, oinarritzko elementu ekonomiko eta material batzuren gain eraikitzen ari da, eta elementu horiek beroriek dira, hain zuzen, euskaldungoa eta Europako beste hainbat hizkuntz komunitate galmendian barnerarazi dituztenak. Matrize ekonomiko eta kultural herberaren edo antzekoren batean, lehen lurperatzaile izan ziren elementu-ezaugarriak, orain komunitateon salbatzaile izan daitezkeela uste izatea, inozo samarra izatea dela dirudi. Baina ohore hori ez genieke ukatu nahi gizarte-sistema honetan sinisten dugenei. Beude horretan, horretarik bizi direnez gero, onerako ala txarrerako. Gure aldetik gauzatxo bat baizik ez genuen azpimarratu nahi: euskararen arazoa ez dela gainezkiturazko instantzia berri batzuren bidez konpon litekeen kontu gaineztatala. Eta ezin dela, horrelako mitologia berrien fededun bihurtu, idiak gurdirekiko non dauden jakin gabe.

Ezin ondorioztatuko dugu, beste muturrera joanik, abiaturuko eta oraingo gizarte molde kapitalistaren barnean, hizkuntz-herriaren patua noragabekoa dela argudiatuz, iraultza sozialistaren ildotik ez bada, zer eginik ez dagoela. Sozialismoaren izenean ere, antzeko gauzak egin bait dira hor barrena. Eta funtsezko elementu-ezaugarriak, batzutan eta bestetan, antzekoak ageri zaizkigu: ekonomiazko botere-jabetza hizkuntz esparrura hedatzen denean, bere ondorioz artikulatu diren instantzi-harreman sozialen efektuak hizkuntz-herri boteregabekoarentzat erabat makurrak izan direla. Hizkuntz-herri burujabeak, bere hizkuntzan bizi nahi duen komunitateak, orobat, bere interesen arabera anto-

latu beharko ditu oinogiturazko ekonomi-loturak, hauek bizkuntza horretan bizitzea posible egin dezaten. Posible izango litzateke noski oinogitura kapitalistaren baitan eraikitako euskal gizarte-molderik antolatzea, teoriarik bederen. Baina baldintza nagusi eta bakar batekin, gaur gaurkoz: gizarte-molde horrek, bere klase nagusi-boteretsuen bitartez, Estatu-boterez jabeturik egon beharko luke, auzo-indarren erakarpenean irentsiak ez izatekotan. Gaurko egoera horixe bera da.

II.
SOZIOLINGUISTIKAZKO
ZENBAIT GOGOETA TEORIKO

ELEBITASUNA: MITOAK ETA BESTE

Azken bolada honetan berriro hitzetik hortzera erabili izan da elebitasunaren auzia gure artean. Bere alde onak aldarrikatzeke alde bategatik, eta bere muga eta ezintasunak azpimarratzeko bestetik. Elebitasun nozioak kontzeptu ideologiko baten erabilkera duenez, hau da, egoera linguistiko errealekiko nolabaiteko hurbilpen modura erabiltzen denez, aukera eta bide ematen du bere bitartez esan nahi den guztia esateko. Euskararen etsairik anorratuenak erabil dezake terminoa herra Euskal Herriko elebitasunaren alde dagoela aitortzeko. Euskararen militanten sutsuenak ere bai, termino ambiguo horren bidez adierazten den egoera soziolinguistikoa egongaitasuna dela nabarmen eratzeko. Dirudienez, denentzat balio du, baina ez dituzte gauza bera edo beretsutat hartzen bere bidez aditzera eman daitezkeen errealitate linguistikoak.

Elebitasun mitikoa

Etiketa honen pean Valencia Herrialdeko posizio ideologiko-linguistiko bat salatu nahi izan zuen Aracilek bere garaian. Hain zuzen ere, herrialde haizetan katalan hizkuntzaren hondamendia ukatu eta mintzaira horren balio zerutiarrak aldarera altza nahi zituztenenak. Han eta hemen posizio hori mantentzen dutenak funtsean indar sozial beretsuak dira: ez genduke oker larriegirik egingo, sektore horiek gizar-tearen maila guztietan Estatu-botere espainolaren aldeko aukera garbia egindakoak direla esango bagenu. Gehiago zehaztu behar balitz, Euskal Herriko indar eta botereguneek posizio horretan kokatuko genituzke. Alegia, euskara altxor preziatu eta erakusgarritzat jotzen dute eta hortik aurrera bere ezarpen-hedakuntzarako ez dauke prest. Maila ekonomikoan, lantegi ttipi eta erdi mailako batzu salbu, ekonomigune nagusi guzti-guztiak. Maila politikoan indar estatal guztiak: PSOE, PP... Maila juridikoko instantzia guztiak. Kultur eta ideologi eremuan telebista kate guztiak ETB-1 izan ezik; prentsari dagokionez, den-denak ARGIA salbu; irratien esparruan den-denak, Euskadi Irratia eta es-

kualde-irratiren bat edo beste kenduta; Irakaskuntzaren barruti inportante eta zabalena, OHO eta Eskolaurrea salbu Komunitate Autonomoan.

Ez da egia osoa azaltzea hemen ipini dudán zerrendako guztiek euskara balio mitikotzat edo altxor hustzat daukatela esatea. Horietao erakunde eta enpresa batzuek, gutxienek, dena esateko, euskarari besterik ere opa diote, eta gogo eta nahimen kontua halitz, leku aparteko batean ere jarriko omen lukete. Bakan hauen jarrera, beraz, onurakorra da; beraiek mila arrazoi eta eragozpen omen dauzkate euskarari eskaini nahi lioketen lekua ez eman ahal izateko.

Elebitasunaren mitoa

Goiko sailean elebitasunaren izenean, hots, joku ideologiko maltzur baten estalpean katalana edo euskara desagertzeko estrategia linguistikoa izendatu nahi izan dugu. Hizkuntza horien berezko balio mitikoak (betikoa, zaharra, kuttuna, ondarea, ...) goraiatu eta hiztun-herria beren Herri-Estatuaren interesetara amildu eta iraungi nahi dutenak dira. Oraingoan jauzitxo bat emanik, hurrengo elebitasunzaleen taldera pasatuko gara. Jauziaren nondik-norakoa hobeto ulertzeko, alda dezadan hona Vallverdú-ren lerro-multzotxo hau: «Sin embargo, mientras Aracil se refería al "bilingüismo mítico" (o "mito bilingüista") como construcción ideológica que era preciso desenmascarar, Ninyoles desborda este marco y habla de "mito del bilingüismo" o "ficción del bilingüismo"». Horra, beraz, batetik bestera dagoen aldea eta ikus dezagun gure arteko elebitasunzaleen arteko norgehiagoka honetan zeintzu koka ditzaiegun bigarren sail honetan.

Elebitasunaren mitoa ez dagokio elebitasun indibidualari, noski. Nolabait esateko, elebitasun soziala edo estrukturalari baizik. Antza denez, orain arteko datu eta esperientzietan oinarriturik egindako ikerketa teoriko eta azterketa enpirikoen arauera, elebitasun sozial-estruktural hori ez bide da egonkorra egungo gizarte aurreratuetan behinik behin. Zubi bat besterik ez omen da, gehienez ere trantsizioaldi luze xamarra (gurean bezala orain hizkuntza dominantearen aurkako neurritxo batzu hartzean) abagadune batzutan. Hitz batera bilduta, gizarte-erakuntzaren moldaera elebakarretik (funtsean euskal gizarte feudaletik: euskaldun hutsezko herria) gizarte-egitura moderno eta aurreratu baterako igaraldia (egungo gure egoera: erdaldun hutsezko gizarte-funtzionamendua, hondakinezko produktiomolde batzuren aztarnak diren herrixa euskaldun batzu salbu). Baten batek esan lezake, arraioa! ez da hori oso zubi motza. Garapen ekonomiko eta Estatu motaren eskuko denez bere luze-motz izate hori, leku batzutan mendetan iraun duenak bestetan denboraldi laburreko ibilbidea egiten du.

Honez gero, elebitasun estrukturalaren mitoan sartzen direnak izendatu beharko ditugu. Hau ez da pertsonak sartzeko lekua noski,

baina ez dakit zer ematen didan, elebitasun mota honen aldeko apustuan hain korrikalari fina eta aspergaitza dugu Joseba Arregi ez aipatzea. Oroz gain destakatu da azken boldada honetan, eta ez diogu garailearen txapel hori ukatuko. Indar eta erakunde sozialei bagagozkic, ekonomiaren arlotik hasiko gara: ba omen dago hor nonbait euskal burgesiaren bat, kooperatiba eta beste zenbait gune bakanetan. Burgesia nazionalista honek elebitasun estrukturalan sinistu bide du, nahiz eta euskarari estruktura handirik ez eskaini bere produktoen ekoizpen, banaketa eta kontsumoan. Indar politikoan artean, hona hurrenez hurren, zein baino zein amorratuagoak: EE, EAJ, EA. Ohartxo bat arlo honekikoan: HB jarrera teoriko-ideologikoetan salbatzen da, ez egite-jardunetan. Kultur eta ideologiazko erakunde-sareetan, hemen sartu behar dira berriro ere komunikabide euskaldun ofizialak: ETB eta Euskadi Irratiaren hizkuntz mezu ideologikoa ez dugu uste elebitasunaren mitoa salatzen gehiegi nabarmendu denik euskaraz aritu arren. Badira, bestalde EGIN bezalako komunikabideak, espainierak leku nagusia izan arren, elebitasunaren nozioa auzipean jarririk irtenbidetzat «sal-tzen» ez dutenak. Irakaskuntzaren arloan erabat errota dago elebitasunaren ideia mitiko hori Ikastolen Federazioa eta irakasle multzo batzutan salbu. Oraintsu arte erraietaraino espainolizaturik egon diren ikastetxe eta Unibertsitateak orain «B» ereduarekin aurrenekoetan eta «euskal adarrekin» bigarrengoetan euskararen mediterraneo aurkitu bailuten dabilta.

Horiek horrela badira ere, ez dago dena esana eta argitua auzi honetan. Ez bait dugu guk beste mediterraneorik aurkitu elebakartasunaren paradisua proposatzerakoan. Egia da, nolana ere. «Txepetx», «Txillardegia», Euskal Herrian Euskaraz-ek eta beste askok egin duten informazio-lana behar-beharrezkoa izan dela: elebitasun terminoaren erabilkera ideologiko hutsala salatu eta larritu. Egia baita, Valencian eta bestetan, beste batzuk egin, hemen norbaitek egin behar zuela; batez ere bigarren saileko euskaldun-ordaldun elebitasunzaleei begira, lehendabizikoekin zer eginik ez dagoelako ideologi-teoriazko eztabaida eta dialektikan. Azken hauek, eta indarrok hegemonikoak dira Estatua-ren agente eta lekuko direnez, ez dute dialektika hau ulertzen: eta ez dira horiek sekula beren gogo eta ekimenez euskalduntze bidetan barrena abiatuko.

Hona, beraz, gure proposamena bigarren saileko elebitasunzale horiei, elebitasun mitikoan sinistu ez arren, elebitasunaren mitoan sinisten duten horiei. Itenbide estrategiko bakartzat euskarazko elebakartasun sozial-estrukturala dauka gunok euskararen aldeko hizkuntz borrokan ez ditugu saihesten epez-epeko eta aldiz-aldiko elebitasun xedeak. Elkarrekin eta elkarturik lan egiteko ez dago printzipiozko eragozpenik. Elebitasuna euskararen aldeko prozesuan aurrerakada den neurrian «bat eginik» ari gaitzke, eta luzaroan aritu ere, delako elebitasun sozial horren xede-mugak urrun bait dauzkagu euskaldunok. «Bat eginik» diogu, batzuek eta besteek nor beraren pentsakera

eta jokabide ideologiko-linguistikoaren aldetik jarduteko trubarik ez bait dago berez. Sortzen diren traba eta behaztoparriak euskadunon arteko oker aditzen ondorio dira neurri handi batean, gauzen nondik-norakoak neurtzeko gai izan ez, eta azkenean interes linguistiko, ideologiko, sozial, politiko eta estrategikoak zaku berean sartzen dira (ez diogu noski guzti horiek banaka dabiltzanik edo banagarriak direnik harako pentsakera euskaldun inozo eta aski hedatuaren ildotik). Dioguna oso sinplea da: euskararen ezarpena eta erropena euskal gizartean erabat jeneralizatzen ez den bitartean eskuz-esku jardun dezakegula ikuspegi desberdinak gorabehera. Ez al du honetan ere Gobernuaren osaketan bezala, lehen pausoa alderdi politiko nagusiak eman behar? Maria Karmen Garmendiak baluke hemen zer esanik eta zer eginik, oker ez bagaude.

HIZKUNTZ NORMALKUNTZAZ OHAR BATZU

1965ean idatzi zuen Lluís V. Aracilek bere «Conflicte linguistic i normalització lingüística a l'Europa nova» delako artikulua.

Oraindik ere badu artikulua horrek oker planteaturiko zenbait problematika zuzen bideratzeko argizpirik. Eta ezin pentsatuko dugu hizkuntz normalkuntzaren kontzeptualizazio guztia erabat eta osoki horobildua dagoenik eta jadanik esateko guztia esana dagoenik. Horra, beraz, hizpiderako aitakia, hau ere behar izaten bait da zerbait esan edo idatzi ahal izateko.

Aracilen ustetan hizkuntz normalkuntzaren muinak zer ikusi gutxi du filologo-ideologo askok egiten duen planteamenduarekin. Hauek hizkuntzaren «barne» eraikuntzaren leloa aipatu bide dute delako mintzairaren zoria beste bide batzuetarik abia eratzeko. Eta, jakina, horren kontra eta hori defenditzen duten hizkuntzalarien kontra ageri zaigu arrazoi osoz. Egia esateko, azken hauen sinpleziak ez du sarri askotan mugarik izaten, salbuespenak salbuespen. Ez zaigu horrelakorik falta gure artean, alajainkoa!

Kataluniar soziolinguistak orduan aditzera ematen zuenez, hizkuntz normalkuntza ezin daiteke zera baizik izan; hots, delako mintzairaren erabilkuntza ezarri eta bermatuko dituen baldintza linguistiko-sozialak segurtatzea, alegia. Gainerako guztia, kontua da. Eta kontu gehiegi dabil gure artean «corpus» deritzan problematika hori egiazko arazo larriak estaltzeko erabiltzen denean; inoiz, oharkabean, inoiz norbere ideologia linguistikoaren gatibu.

Normalkuntzaren iharduera osoa guztiz kontzientea omen da. Eta hori ez ezik prospektiboa ere bai, eta prospektiboa den unetik aurrerakorra. Ez dirudi beraz hizkuntz plangintza eta normalkuntzarako politika-ihardunetan mintzaira gaisoaren aldeko sentimendu eta jarrerak ezer balio dutenik aditu honen ustez. Horrez gainera eta, batez ere, normalkuntza ihardueraren funtsezko zutabe eta norabideaz ia erabateko segurtasuna ezinbesteko baldintza omen da hizkuntz politikak fin gaiztorik egingo ez badu. Lekutan gaude, lekutan gaudenez? «Geroak esango du asmatu dugun hala ez»; horrelako zerbait esan zuen gure maisuak eta horri darraizkio Idazkaritzakoek eta bestek. Linguistak so-

ziologo espontaneorena egiten hasten direnean, edozein gauza entzuteko gaude; baina are okerrago da era guztietako teknikoen teknokrazia, plangintza ororen azken buruko arazoak sekula teknikoak ez direnean (euskararekin gertatzen dena, beste sail askotan gertatu izan da teknokraten ideologia burgesa gailendu denean).

Aspaldi idatzi zuten Aracilek hizkuntz funtzio sozialen auzia arazoaren erdia baizik ez zela. Ez dela alegia funtsean ezertxo ere aurreratzeko mintzaira menderatua zenbait funtzio formal berriz hornitzearekin. Arazoaren beste erdia, determinanteena azken batean, hizkuntz funtzioen zenbatekoan ez ezik, horien nolakotasunean omen datza; guzti hori taxuera orokorrean prozesu soziolinguistikoak hartzen duen norabide-indarretan isladatzen delarik. Alegia, hizkuntz funtzio sozial berri horiek, hizkuntz indarren ierarkia sozialean, gero eta eraginkorragoak eta hegemonikoagoak izan behar omen dute. Aldi berean, zirkulu funtzional orkatu eta osagarria tailatu behar dute, hots, elkartekiko eragintzan dinamikoak eta hizkuntz erabilkuntzaren motore areagotzaile, delako mintzaira menderatuak funtzio horiek bereganatu ahala. Inozok uste izan dugu, lehenik, ikastolari esker euskara bere onera irauliko zela; geroago ETBren lilurak itsutuko gintuen; baina urteok zerbait irakatsi digute eta erabateko ideologoez eta besteko teknokratik honez gero nekez begina gaitzakete munduko aditu eta soziolinguista entzutetsuenak ekarrita ere. Jadanik badakigu Eskolak ezer gutxi egin dezakeela euskararen normalkuntzan gaurko eran gauzak planteaturik; beste hainbeste esan dezakegu ETB eta Euskadi irratiaz; beste hainbeste administrazioko hizkuntz perfilen inguruan. Eta horrela egiten den guztia. Ezertarako balio ez duen hizkuntz politika, ideologia linguistiko espainolistak ahogozatzeko edota bost urtero euskararen ezagutza hainbestekoan gehitu deneko leloa entzuteko ez bada behintzat Gasteiztik.

«Siempre la lengua fue compañera del imperio» esan zenetik guxtienez, inork ez du ukatu politikaren interbentzioa hizkuntzen nondik-norako historikoan. Interbentzio horren aintzinasuna orain eta hemen axola gutxiko gauza zaigunez, Aracilek gogora eraziko digu baldintza politikoen eragina gero eta erabakikorragoa izan dela hizkuntzen zori gaiztoan ala onean. Bere ustez, interbentzio hori Estatuaren aldetik, kontrolbide zorrotz eta gogorragotan barrena iritsi da egungo egunera. Kontrol linguistiko horri darion ondorio bat zera izango da: hizkuntzak ezinbesteko dituen funtzio sozialak, batez ere «publikoak», inoiz artez inoiz zeharka, murriztuz eta suntsituz desagertuko direla mintzaira ez-estatalarentzat. Euskararekin horixe gertatu da, halabeharrez. Baina orain Estatuak burutu duen hizkuntz ezarpena eta errealtatea, azken bururaino burutu ere (Joanes artzairik ez dugu aspalditik ikusten), botere-instantzia autonomikoetatik konponbidean jarri nahi zaigu. Ba ote dakite ordea, zertan ari diren gure autonomista euskaltzaleek? Ba ote dakite elefantearen errealtatea inurribidez aldatu nahian dabilzala?

Aracitek dioenez, «La normalització mostra com les dues funcions lingüístiques —la consciència i el control— operen de manera concomitant i complementària». Hizkuntz kontrolaren auzia testuinguru zabalago batean kokatzen dela oroitaraziko dugu. Hain zuzen ere gizarte-kontrol orokorren baitako mekanismoei atxekia dagoela gehituko du. Kontzientziaren auzia beste leku baterako utzi dugunez, hizkuntz kontrolarekiko gogoetaren ondorio gisa, honako formulazio hau egiten du. Hizkuntz herriak, dena delakoak, ezingo duela inoiz inon, gaurko fase historikoan bederen, bere buruarekiko botere politiko-linguistikoaren jabe izan gabe, bere hizkuntzatasuna finkatu eta segurtatu. Independentzia politikoa aipatzen du irtenbidetzat, eta hori ezean, zinezko eta benetazko aginte politiko-linguistikoa. Zertan gara alderdi honetatik? Isilik egotea hobe izango dugu, zeren Konstituzioaren hirugarren artikulua sasikume guztiak aipatze hutsak geure onetik ateratzen gaitu eta. Eta, otoi, ez garela juridizismoaren lilurapean hain erraz galtzen.

Gutzik ez bezala, eta hitz gutxitan gainera, zehaztu du Martin Ugaldek Euskarari zor zaiona baldin eta zinezko normalkuntzarik inork opa badio: «... que es decir a poder trabajar a la luz del día por su rehabilitación a través, no más, pero no menos, de los mismos medios de que han tenido la suerte de mantenerse vivas todas las demás lenguas que le rodean» (D.V., 89-IX-28).

Baina ez pentsa alde bateko linguista eta besteak ideologoak zera-ekin etorriko ez direnik; bai baina, euskara bezalako hizkuntza murriztu eta txikiari nola opa diezaiokegu beste indartsuen pare ipintzea esparru guztietan? Ez ote du aski izango oinarritzko zeregin sozial batzuekin? Ez ote da dena galduko maximalisten ameskeriekin ona utzi eta hobearren bila joateagatik? Joka dezagun bada, «zentzuz eta buruz», Utikan!

HIZKUNTZ BOTEREA FOUCAULTEN ESKUTIK

Gizakia gizaki denez, bere arazoak pentsatzeko lanabes egokiz ezin homitirik bizi izan da. Guri ere, euskaldun garenez, euskal arazoa pentsatzeko kategoria eta kontzeptu egokiak ez zaizkigu inoiz soberan gertatu. Are auzi zehatz eta tipiagotan ere: euskararen ingurako korapilo soziolinguistikoak pentsatzeko ere mugapen larriak ditugu, pentsabide hori aribide edo prozedura zorrotz eta sendoetan eraiki nahi izan dugunean.

Horra beraz gaurko nere lizentzia hau: besteren ahoz pentsatu beharra, beste horrek hain zuen pentsagaitzat hizkuntz gatazkarik ez zue-nean. Zein neurritan ote dira baliagarri honelako gogoeta-jardunak berez pentsagaiaren objektua zehazki gurea ez denean? Edo bestela esan da: zein neurritan da onargarria botere kontzeptu orokorraren baitan hizkuntz boterearen auzia planteatzea? Galderak galdera direnez, erantzunaren zain hor geratzen dira.

Inork eman ez digun baimen honekin, honenbestez, Michel Foucault-en zenbait hipotesi azalduko ditugu lehenik, horiei atera dakiekeen mozkin teorikoren bat edo beste ondoren itxuratzeko. Botereaz zer ulertzen duen, edo zer uler litekeen adierazten du **herak**, gure moldapen eta egokitzapen honetan, botere kontzeptua, hizkuntz boteretzat harturik. Agian boterea ez da zatigarria izango, baina ezin uka daiteke botere mekanismo eta estrategia berezi-konkreturik ez dagoenik.

Hona beraz geure buruarekin egiten dugun kontu-zuriketa: hizkuntz boterea ere, beste edozein gizarte-botereren gisa, kategoria eta termino beretsutan pentsagarria dela uste izatea. Eta luzamendutan ibili gabe, goazen hipotesi horien aurkezpenera:

- Hizkuntz boterea gizarte-gorputz osora hedaturik dago, eta ez da pentsagarria hor gizarte-atalen bat harremanen saretik at dagoenik.
- Hizkuntz boterezko harremanak gainerako erlazio-moten baitan txertaturik daude; hala nola, esate baterako, ekonomi edo famili esparruko erlazioen barnean. Eta paper bikoitza betetzen dute haiek hemen: eragin baldintzatzailea eta baldintzatua dute aldi berean.

- Hizkuntz boterezko harreman horiek ez daude debeku edo zigorraren esanetara eta hauen esku bakarrik; aitzitik, era anitzeko moldez mamituak daude.
- Hizkuntz boterearen kateamendua gertaera-izate orokorrezko menderakuntzan hezurramitzen da; menderakuntza hau nola-baiteko estrategia koherente eta baterakorraren barian antolatzen da eta bere ibilbidearen nondik-norakoa zergati anitzen eraginez moldatua eta integratua dago estrategia zabalago baten ildotik.
- Hizkuntz botere erlaziook zerbaiten «zerbitzuan» baldin ba daude ere, ez daude berez eta izatez inolaz jatorrizko interes ekonomiko baten zerbitzuan, baizik eta harako edo bestelako estrategien esanetara erabilgarriak direlako.
- Ez dago hizkuntz boterezko harremanik erresistentziarik gabe; eta hauek are egiazkoagoak eta eraginkorragoak izango dira haiek hezurramitzen direneko gune-eremutan. Hizkuntz erresistentziak ez dauka kanpotik etorri beharrik benetazkoa izateko, eta ez da bertan harrapaturik gelditzen boterekide izateagatik. Hizkuntz erresistentzia izan, hizkuntz boterea dagoen lekuan egoteagatik da: bera bezalakoxea alegia, anitza eta integragarria estrategia orokorretan.

Ondoriozko zenbait burutapen

Lehendabiziko hipotesiak, honela bapatcan, zera pentsa erazten dit. Ezin daitekeela pentsa alde batetik euskaldungoa eta bestetik erdaldungoa dagoenik, edo beste maila batean, euskalduna euskaldun izan litekeenik eta erdalduna erdaldun hizkuntz harremanen esparru autonomuan. Ezin litekeela pentsa, orobat, hizkuntz funtzio sozial batzu hizkuntza bat eta beste batzu besteari egotziz, funtzioen konpartimentazio ez gatazkatsurik ezarri litekeenik. Ezin dela, hainbestean, elebitasun sozialaren mezulariek nahiko luketen hizkuntz paradisurik ez asmatu ez egia bihurtu.

Bigarrenaren haritik, gogoetak honetara nakar: hizkuntzazko gizarte-harremanak ez direla harreman linguistikoak soil soilik. Hizkuntzazko gizarte harremanon artean ez dagoela alde batean euskaldungoa eta bestean erdaldungoa, batean euskalduna eta bestean erdalduna. Hizkuntz boterezko harremanok hiztunleko hutsaren nozio ideologiko soiletik at, gainerantzeko erlazio sozial guztien baitan dute zimentarri. Hau da: alde bateko gizarte-botereei dagozkien mekanismo eta kontrolbide guztiak eta besteko oinarri-gainegiturazko aparatu-egitura guztiak. Hizkuntz boterea zentzu honetatik kanpo pentsatzea, delako hiztun kopuruari dagozkion hiztun tipologia eta estadisika-kontuak argibidetzat hartuz, geure buruak engainatzea besterik ez da. Larria da, zinez larria, hizkuntz politikaren ardura beren bizkar dutenek beren azterketa-ikuspegietan argibide ideologiko faltsu hauen arabera jokatzea.

Teori-ikerketok euskarari dagokionez ondorio zuzen-erabakikorrik baltute, euskararen galmendia segurutzat jo beharko genuke esan dugunagatik.

Hirugarren hipotesia ez da antzu geratzen bere ondorio oparoetan. Beti aurpegiratu izan zaigu euskaldunoi funsgabeko galdera hau: «Zerk galerazten ditu euskaldunekin euskaraz hitzegitea?» Erreduktionismo itxuragabe baten ondorioz baizik formulatu ezin den galdera horren egileak ez du bururik nekatu hizkuntz erabilpenaren auzia debeku/baimen bikotearekin zerikusirik ez duen kontua dela oartzeko. Hizkuntz boterearen egitura-harremanek ez diote euskaldunari euskaraz hitz egitea «debeketzen», ezinezko bihurtu baizik. Eta «ezintasun» hori ez da halamoduzko zuzenbide eta marko juridikoari darion efektua, giza-harremanen hezur eta mani diren menderakuntzazko egoera soziolinguistiko orokorraren mugapena baizik.

Hizkuntz eremuko kontraesanak estrategia zabalago batzuren mende daudela gogorarazten digu laugarren hipotesiak. Estatu-nazioen hizkuntz bateratze-prozesuak kausa anitzen ondorioztat hartu behar direla, hasierako «merkatu nazionala»k arrazoi ekonomikoetara bagaramaiza ere. Hemen inportantea ez da faktore-aldagaiak (ekonomikoeak, juridikoeak, etab.) zer-nolako papera izan duten jakitea, zein izan den nagusi eta zein bigarrenko, baizik eta guzti hori menderakuntzazko estrategia orokor bati zor zaiola jakitea da axola zaiguna. Estrategia hori inoiz planifikatuagoa izan den, edota inoiz hizkuntz gertaera soziala gizarte-inertziaren ondorioz suertatu den jakitea ere ez da axola handiko kontua. Auziaren muina horren baitan ezarri den joera-tendentzia baita, Estaturik gabeko mintzairak desagerrarazi eta hizkuntza ofiziala gailentzeko joeraren logika. Puntu honetara, neri behintzat, besteak beste, zera iradokitzen dit: hizkuntz prozesu historikoen baldintzapena menderakuntzazko estrategia hauen mende dagoen bitartean hizkuntz borroka termino linguistiko isolatuetan planteatzea inozoen ilusioa izan litekeela. Ez gaudela hemen kontraesan eta borroka etengabeetatik kanpora, gatazka-egoeratik at, alderantziz baino: hizkuntzen arteko ezinkonpondu hau azpi-azpitik baldintzaturik dagoela estrategia menderatzaile batzuren eskutik.

Seigarren hipotesira pasako gara, boskarrena laugarrenaren hari berekoa denez gero. Hizkuntz erresistentziaren izakeraz mintzo zaigu hau: bere kokagune eta osagaiez hain zuzen. Axola handiko gauza iruditzen zait erresistentziaren kokaguneari dagokionez esaten duena. Euskararen berrezarpen soziala ez genuke guk geuk honenbesteko edo horrenbesteko hitzun kopuruen arazotzat hartuko, edo hizkuntz eza-gutzaren estrategia soilaren eta antzuan (datu hau ez du inork ukatzen) ipiniko. Euskararen arazoa, erresistentzi arazo denez, hizkuntz zabal-kundearen gune hegemoniko diren aparatuek bitartekoetan erabakitzen da, hizkuntz boterearen joan-etorriak dauden lekuan hain zuzen. Hone-taraz gero, euskararen arazoa «kalea» konkistatzea dela aitortzea ere, egiaren erdia esatea da. Izan ere, zein neurritan da «kalea» hizkuntz

boteregune erabakiorra hizkuntz interesen hil ala biziko gatazka etengabea? Kalea euskalduntzea, azken finean, ezer baino lehen efektutzat hartzeko datua da eta ez euskaldunok dugun konpondu gabeko giltzarria. Gure arteko hizkuntz konpartimentazioaren teorikoek besterik uste badute ere, egoera diglosiko egonkor horiek historiara pasatu diren gertaerak dira jadanik. Zezenari adarretatik heldu beharra dago, baina ez zaio heldu nahi. Edota, hobeki esanik, «ezin omen zaio heldu», diskurtso pragmatikoaren aldetik jakin erazten zaigun moduan: orain oraingoa eta bihar biharkoa. Ez zaigu esaten ordea, oraingoak biharkoa baldintzatu lezakeela alde batera edo bestera eta hainbestean horixe dela arazoaren kokka: oraingoa ezin dugula egin orainak posibilitatzen duen muga meharretan biharkoa oinarri pitzatuetan eraikia izan ez dadin.

BRETOIERA: BOTERE-HIZKUNTZA EZ IZATEAREN HONDAMENDIA

«Frantsesa dakienak, frantsesez mintzatu behar duen tribunalaren aurrean zaudete, eta zuek badakizue frantsesez»

(«BRETOINDARRAK AUZITAN»)

Grall eta bere aberkideak auzitara eraman zituztenean, frantsez Estatuaren «justizi aparatuko» epaimahaiburuak esandako hitzak dira goikoak. Bretoiar abertzaleek beren nazio-mintzaira erabili nahi, eta ezin. Eta ezin, badakigu zergatik:

- a) Estatu frantsesaren bortxa organizatua Britainia herriaren indar suntsitzailea izan delako.
- b) Estatu berorren aparatu guztiak, nola ekonomikoak hala gaigne-giturazkoak, besteak beste, frantsesaren inposiziorako erabili dituelako; eta, akulturazio prozesua azken muturreraino eramanik, orain, ia bretoi guztien hizkuntza nagusia frantsesa bilakatu delako. Horra, bada, justizia frantsesaren bozeramaileak zein lojistikoki diharduen: «zuek bretoiok guk bezala dakizue frantsesez, beraz ez adarra jotzen hasi hemen». Uniformizazio linguistikoa buruturik, bretoiara desagertzeaz dago munduko mapa linguistikotik eta, berarekin batera, Breizh.

Baina nola gertatu da hori? Ez da erraza jakitea garaian garaiko eta lekuan lekuko baldintzapenek bretoierarekiko zer nolako eragina izan duten aztertzea. Dena dela, aipa ditzagun zenbait datu hizkuntza ez-ofizial honen bilakabidea zedarritzatzeko.

Itxura denez, III-V. mende aldera iritsi ziren bretoiak gaur egungo lurraldera Britainia Handitik. Zenbait inbasioaldi ezagutu ondoren, beren buruaren jabe egingo dira eta mendez mendeko horrela biziko dira bretoiak. Feudalismoaren hondarrean, ordea, burgesiak bere presentzia egiten du Frantzian ere, eta harik eta klase sozial hegemoniko bilakatu arte ez du amore emango. Prozesu historiko horretan, XVI. mendean galtzen du Breitaniak bere garai hartako subirotasuna frantsez armadaren interbentzioz. Handik harat, nola-halako autonomiaren jabe izanik urratuko du bere historia herri honek. Baina gauzak ez zeuden hartan geratzeko: ia behin betirako Iraultza Frantsesaren ondorioz gaiduko

ditu autonomi-arrasto guztiak eta baterakuntza politikoa eta linguistiko-kulturala, koiuntura desberdinen arabera beren gorabehera guztiekin, ia aldi bereko prozesuak izango dira.

Bilakabide historiko honetan ix. mendean ezagutuko du bere hedapenik handiena bretoierak. Hizkuntza, gauza jakina denez, botere erlazioen sareetan harrapatua egon da betidanik, eta orduan bere gailurra izatea zentzu horretan ulertu behar da. Alegia, herri ahalsua ageri zaigu garai horietan Britainia, eta efektu linguistikoak ere iritsi ziren ekialderantz: ia Rennes eta Nantes-eraino hain zuzen. Handik laster ordea, osteria inbaditua izango da iparraldetik zetozen herrien eskutik. Kinka larri horietan bertako klase dominanteak ospa egin bide zuten. Hortik aurrera pentsa daiteke zer gertatzen den, sistema feudalaren klase menderatzaileak ia frantsezturik, eta badakigu jakin, ideologiarekin bezala, zera suertatzen dela: klase menderatzaileen hizkuntza bilakatuko dela masen mintzaira ere. Guztia denbora kontua da.

xx. mendearen hastapenetara jo behar da datu estadistikorik esku-ratuko bada. Aldi horretan %90 bretoieradunak omen ziren Behe Britainian. Mende honetan harrera aurrekoetan ezagutu ez zen abiadura ezagutuko da ordezkapen prozesuan. 1974 aldera %44,3 bretoieradun ageri zaigu zenbait iturriren arabera. Duela gutxi Erwan le Coadie-ri (EMGANNeKo militantea) EGINeko orrialdeetan irakurria ahal izan diogunez, %12ra jaitsi da hizkuntza keltiar honen ezagupena. Mintzamen gradua, dena dela, eskasagoa da: «erabiltzen dutenak gutxi direla diogunean, hala ere, ez da Euskal Herriarekin konparatu behar, edo konparatzekotan Zuberoakoa bezalako kasuren batekin egin behar da. Izan ere, Euskal Herrian baindik ere leku askotan euskaraz hitz egitea normala bada (edadeko baserriar guztiak, jaialdiak, herrietan kalean normal samar...) Britainian oso zaila da hango hizkuntza entzun ere egitea. Egon zaitezke jaialdi batean, bertako ikastolaren (Diwan) alde montatua egonik ere, ia guztiek bretoinez dakitelarik eta juxtu-juxtu norbaiti zerbait entzutea» (Artaso, ARGIA, 1984-V-13)

Frantsezkunizaren prozesu honetan, esan bezala, Estatu frantsesaren hainbat instantziak esku hartu du. Horien artean ordea, ez dirudi efikazi-maila berbera erakutsi dutenik guztiek. Azpimarratu ere, Eskola aparatuen interbenzio linguistikoa azpimarratzen da modu berezi batez. Zergatik hori? Hona, besteak beste, zenbat arazozi Artasoren eskutik: «Irakaskuntzak Frantziako estatuan hemen baino hobeto egin du berea: kalitate hobea, eta haurraren integrazio hobea. Hizkuntza aldetik ere horiek lortu ditu bere fruituak. Irakaskuntza elebidun bat ezartzeko saiok joan den mendetik ere hasiak haziren, frantsezaleek askotan erabili duten xehetasun bat da herritako jendeak berak eskatzen zuela beren haurrei erdaraz bakarrik erakusteko. Eta gaur egun bretoiera herri oso txikietara mugatua gelditu da, eta horietan zaharretara».

Aldeak alde, DIWAN mugimendua (400 bat ikasle ia) SEASKA-ren pare dabil frantses administrazioarekin funtsezko deus ezin lorturik. Erwan le Coadie-ren hitzok ez dute zalantza biderik uzten: «En

cuanto a la enseñanza del bretón hay prácticamente un bloqueo total, con lo cual el panorama se degrada más cada día». Horiek oinarritzko irakaskuntzaren lekuko badira, zer gertatzen ote da Unibertsitate mailan? Guztiok alde aurretik pentsa dezakeguna: «La Universidad francesa es, desde hace un siglo, el principal instrumento de alienación del pueblo bretón. La liberación del pueblo bretón pasa por la destrucción de la Universidad francesa en Bretaña» (E.S.B., n.º 1, Rennes, 1979, p. 28).

Bretoiarrak gauza izango ote dira «ezina ekinaz egiteko»? Eta ekin, ongi bideratua izan al da? Hala kulturalismoaren ildotara gehiegitxo lerrau dira batzu? Ez dakigu ziur. Dakiguna, ordea, zera da: eztabaidarik franko sortu dela hizkuntz politikaren nondik-norakoa zedarritzazeko orduan. Kritikak iturri askotatik etorri dira, baina bat, gure esku dagoena, Louis-Jean Calvet-ek formulatua da: «Hoy, luchar sólo contra la francofonía no sirve de nada, puesto que ésta no es más que la traducción lingüística del neocolonialismo, y sería bastante inconsecuente reclamar a un Estado que está precisamente en el origen de su menosprecio y su dominación el reconocimiento de una lengua». Bistan denez, hizkuntz burrukaren estrategia kulturalista ari da hor kritikatzen. Bide horiek, dena dela, zenbait indar sozialen aldetik obratu dira, eta indar horiek ez bide dira nagusi Erwan le Coadic-k Donostian egin dituen aitorenei so eginez. Alde batetik, esaten du «la inmensa mayoría de los que siguen las ideas nacionalistas se sitúan en un planteamiento progresista y socialista de izquierda»; bestetik, berri, «no disociamos en ningún momento los problemas nacionales de los sociales y así idioma, cultura o economía son datos primordiales de nuestros análisis y planteamientos de lucha». Eztabaigarriak dira puntuok noski, hizkuntz politikari buruzko posizio desberdinak bait daude han ere, eta horretan zerikusi handia daukate abiaburu ideologiko eta politikoez. Okerrena zera da guzti honetan: indar abertzaleak urri eta ahulak direla. Ondorioz, arazo linguistikoetan gauzak planteatzen direnean, ezinkizunak ageri dira alderdi guztietatik.

Bretoiarrak bururik altxatuko ote du berriro? Zalantzak handiegiak direla dirudi. Lehenengo eta behin kontuan hartu behar da Bretainia zera dagoen. Behin baino gehiagotan aipatu dugun ordezkari bretoiak nona zioskun: «Yo creo que el estado francés es hoy, en Europa el enemigo número uno de las naciones sin estado». Hori komeni da ez ahaztea. Eta zentzu horretan, Artasok honako diferentzia hau azpimarratzen du gure eta haien arteko alde zehaztu nahirik. «Zer da diferentzia? Espainiakoan ez bezala, Frantziakoan lortu zuela iraultza burgesak irabaztea erabat». Ez da edozein Estatu mota beraz frantsesena. Estatu burgesaren eredu aintzindaria, guzti horrek kasu honetan dituen ondorio linguistikoekin.

Artaso bera aski pesimista agertzen da bretoiarraren etorkizunaz. Izan ere, «Bretoin hizkuntzak ez du gaur egun kontserbatu ere egiteko espaziorik. (...) Ene uste apalean, eta beraici esango ez dieдан arren,

berandu iristen dira Britainiako abertzaleak. Hizkuntzaren katea etena dago».

Zentzu guztien arabera, atzera itzuliezinezko puntura iritsi direla dirudi. Egungo baldintza orokorrak begiz jota, egin dezaketen guztia eginda ere, hizkuntza hil baten ghettoa bizirik iraun erazi, hortik aurrera ezer gutxi. Burgesia tipiarene zenbait sektoretara mugatzen da hizkuntz kontzientzia, eta hauei esker «bizi» daiteke guztiz iraungi gabe. Baina ez ote da hori engainu bat. Txepetek ederki esaten duenez, hizkuntza bat ez da hiltzen bere azken hitzuna lurperatu dutenean, bere oinarri-oinarritzko funtzio sozialak betetzeari utzi dion unean baizik. Gauzak horrela, «hilda» dago. Berpiztu daiteke, hor dago hebraieraren adibidea, baina horrek ez du funtsean ia ezer frogatzen.

Halere, «Auzian, Grall eta Garabellok ez zuten onartu frantsesez hitz egin beharra».

KONTZEPTU SOZIOINGUISTIKOEN JORRAKETAN

1. Hizkuntz gizartekera mendaratzailea

Kontzeptu soziolinguistiko honen bidez oinarri-oinarrizko izaria hautematen dugu: sistema soziolinguistikoaren oinarri-sistema den kategoria hain zuzen. Hizkuntzazko gizarte-fenomenoak beti kategoria-izari honen determinaziopean egituratuak eta materializatuak egon ohi dira. Bera da, izan, joera soziolinguistikoaren norabidea markatzen duena, bere baitan dituen ahalmen-mekanismoen ildotik. Hizkuntza nagusi-menderratzailea du bere lanabesa kontzeptu soziolinguistiko honek, hizkuntza hori gizarte-klase dominanteen hizkuntza den neurrian. Orobat, Estatu-hizkuntza izango da marko estatatalen luze-zabalean eta nazioarteko hizkuntza, baldin eta Estatu horretako klase hegemonikoen eragin-itzala, hainbat eta hainbat arlo sozioekonomikotan, nabarmena baldin bada.

2. Hizkuntz gizartekera menderatua

Kontzeptu soziolinguistiko honen bidez goikoaren aurkako kategoria zedarriztatzen dugu: hain justu, hura mekanismo soziolinguistikoaren boteregunitan jaun eta jabe baldin bazen, hau menpeko eta azpiratua ageri zaigu hizkuntz fenomeno sozialen joan-etorri nagusienetan. Hark bere harreman soziolinguistikoak ezartzen eta erreproduktitzen ditu kontzeptu honek adierazten duen gizartekera soziolinguistikoaren baitan. Honek, aldiz, ezin ditu bere erreproduktzio-bide tradizionalak ere mantendu, haren interes eta praktika soziolinguistikoak txertatzen ari bait zaizkio bere errailetan bertan. Esan dezagun, hortaz, bere baitan autonomia linguistikorik gabeko gizarte-moldea dela hau, minorizazio-prozesua jasan duten guztien creduan kokatzen dela, eta gehien-gehienetan boteregune soziolinguistikoaren kontrol-ahalmenik ez duenez hizkuntz ordezkapenaren burutzapena denbora kontu hutsa izaten dela. Erresistentzia gehiagorekin ala gutxiagorekin, baina, azken funtsean, irteerarik gabeko prozesu historiko-linguistiko batetan barnerratu dauka bere patu beltza.

3. Hizkuntz botere soziala

Kontzeptu honen mugariak maila batean baino gehiagotan artikulatzen dira. Oraingoan, bere funtsezko espazioa Estatu-gunera mugatzen da mugariok ezarian-ezarian aldatzen ari baldin badira ere. Hizkuntz botere soziala gizarte-klase hegemonikoen arabera taiutua dago Estatu-barrutiaren baitako gizartekera soziolinguistikoan. Bere mugak, hor harruan, kontra dituen interes soziolinguistikoen aldetik ezarriko dira: esate baterako, espainieraren ezarpen eta hedakuntz ahalmenak, Estatu-espazioaren baitan, katalana, gailegoa eta euskararen atzetik dauden indar soziolinguistikoen esku daude. Horra, beraz, espainieran ezarpen-muga, hizkuntza internazionalen sarbide presioak oraingo kontutuan hartu gabe. Beste aldetik, katalana edo euskararen botere linguistikoaren neurhiderik zorrotzena, hauek buruz-buru duen erdal gizartekera soziolinguistikoari aurre egiteko duten ahalmen-neurrian datza. Honenbestez, hizkuntz botere soziala, kontzeptu-sistema honen baitan baizik ezin da atzeman, psikologia eta antropologiaren ikuspegietatik burutu ohi diren interpretazio-bideak botere sozialaren izakera baino areago, mekanismo sekundario-formalen deskribapenerako balio dutelarik. Hizkuntz botere sozialaren kontzeptua, eraikiezina da, oinarritzat klasetasuna, estatutasuna eta gizartekera soziolinguistiko desberdinen ezarpen-indarra kontutan hartu gabe. Hala ere, ekonomi eta politika egitura internazionalak berriztapen-prozesuan abiaturik daudenez, hauen eragin soziolinguistikoa txit kontutan hartzekoa izango da hemendik aurrera.

4. Sistema soziolinguistikoaren klasetasuna

Gizarte-klaseak eta hizkuntzen arteko harremanaz eta loturaz milaka letra eta milaka solasaldi egin badira ere, aurrerabide murrizteko argibideak eskaini izan dira auzi honetan. Egitura soziolinguistikoaren klasetasuna ez da egiaztatu daitekeen datu empiriko soil-soila.

Aitzitik, oinarri-oinarritzko premisa teorikoa da, izan, hizkuntzen historia soziala idealismo orotik begiratuaz, bere baitako determinazio-bideak barnetik hautemateko. Historia, bere materialtasun eta sozialtasun guztia barne, bere gainegiturazko agerpeide guztiak barne, ez da klasetasunari ihesi, itsu-itsuan eta noragabe, burutzen den zerbait. Ekoizpen-molde guztien arteko igarobidea eta hauetako bakoitzaren epealdi historikoa beti, ezinbestez, klase-interesen arabera taiutua ageri zaiguna, bai azpiegituretan bertan eta bai gainegiturako erakunde-pentsabideetan. Estatu-eredu desberdinak ez dira, besteak beste, prozesu horren lekuko historiko makalak. Guzti honen ondorioz, botere-hizkuntzak ez direnen patu historiko beltza, koordenatu hauetan interpretatu beharra dago: hots, garaian garaiko eta lekuan lekuko klase hegemonikoen interes orokorrak gidaritzat eta argibidetzat hartzen ez

dituen ikerbide soziolinguistiko oro, ez da sekula iritsiko klasetasunaren determinazio-maila atzematea eta, hainbestean, historia soziolinguistikoaz jabetzera.

5. Estatuaren eta prozesu soziolinguistikoa

Estatuaren interbentzioa, soziolinguistikaren eremuan, aldian aldiko estatukerak mugatu izan du. Ez da pentsatu behar halere, Estatuaren interbentzio hau Estatu-Nazioarekin batera jaioa denik: betidanik dauzkagu interbentzio horren lekuko historikoak, historiaren ia aro guztietan, eskuharmen hori izakeraz eta formaz erabat bestelakoa baldin bada ere aro bakoitzaren barruan. Honekin batera, azpianarragarria da zinez, gure arteko gaizki-aditze bat auzi honen ingurumarian: Estatuaren eskuharmen linguistikoa, izan ere, azalpide askotan ageri zaigunez, kanpotik datorren faktoretzat hartua izan da behin baino gehiagotan. Kanpoko erasoak alde batetik, Estatuarenak alegia (hizkuntza minorizatuaren herriak bere-berea duen estaturik ez duenez), eta gero barruko axolagabekeria. Hau konstante bat izan da euskararen arazo soziolinguistikoaren azalpenetan. Eta abiaburua bera da, ikuspegi horretan, inolako oinarririk gabekoa: Estatu-nazioaren interbentzio linguistiko azpiratzailea, izakeraz, gizarte-egituren eta klase-interesen barru-barrutik antolatua egon izan da, haren hizkuntz harremanak honen (menpeko gizarte-moldearen) oinarrian bertan erreproduzitu izan direnez gero. Berez, ez dago inolako «kanporik» eta «barrurik» indar soziolinguistiko guztien erakarpena eta ezarpena hizkuntz praktiken alorrean hezurramitzen direlako eta ez inolako eta inongo espazio geografiko-fisikotan. Orain zorionez berriro ere pilpilean jarri zaigun independentziaren uholdea dela eta, euskal Estatuaren beharrian linguistikoa, ukazina da azterpide honen argitan. Estatu-aparatua ez da aski (Irlanda lekukorik argiena), baina Estatu-boterea (eta hura eta hau ez dira gauza bera, datu nagusi hau ezin dugu inoiz ahantzi) ezinbesteko baldintza orokorra dugu euskaldunok. Gaur-gaurkoz, nazioarteko indar-ardatzak ez datoz Estatu nazioaren funtsezko batasun geografiko, material eta linguistikorik suntsitzera. Ezta bere zutabe nagusiak pitzatzera ere, subirotasun juridikoaren katebegi batzutan eta beste zenbait arlotan Estatuaren gainetik makro-egituren ondorio-efektuak Estatu-nazio hauen baitan eraginik baldin badute ere.

HIZKUNTZ KONTZIENTZIAREN GORABEHERAK

Ez genuke hizkuntz kontzientziaren ideia pittin bat jorratu gabe abiatu nahi azaletik bederen. Euskararen zoria dela bidé, nohiznahi, ideia honen aurrean gaude, bere ahalbideen nondik-norakoa behar bezala zedarriztatua ez badago ere. Halere, hizkuntz prozesu sozialaren «motor» gisa aurkeztuko zaigu atergabeki. Batek, ordea, eta neu tartean nago, ez dio ideia horren atzean egon daitekeenari halako «lekurik» opa, bere gogoaren kontra baldin bada ere. Gauzak horrela, goazen, lehen-lehenik, kontzientzia eta ideologiaren arteko lotura-harremanaz zenbait xehetasun azaltzera, eskuartean dugunaz argibiderik egiteko.

Praktika ideologikoaren zer-gaiatik abiatuko gara horretarako. Eta abiatu, behinola Althusser-ek zirriboratu zuen bidetik abia gaitzke. Hona zer zioen filosofo frantsesak:

«...la práctica ideológica (la ideología ya sea religiosa, política, moral, jurídica o artística) transforma también su objeto: la "conciencia" de los hombres» («La revolución teórica de Marx»:136)

Horiek horrela izatekotan, hizkuntz iharduera ideologikoaren aldagaia hizkuntz kontzientzia izango litzateke. Aldeak alde, noski. Bestalde, ideologiaren kontzeptua kontzientziarena baino zabalagoa da inondik ere. Halaxe jakin erazten digu behinik behin Therborn-ek:

«La ideología es el medio a través del cual operan esta conciencia y esta significatividad. La conciencia de cada nuevo ser humano se forma a través de procesos psicodinámicos en su mayor parte inconscientes, y funciona mediante un orden simbólico de códigos de lenguaje. La ideología, en cambio, no es reducible a una u otra cosa» («La ideología del poder y el poder de la ideología»:21)

Itxura guztien arabera, prozesu psikodinamikoak ez dira erabat eta osotara kontrol sozialaren menpe jartzen prozedura mekaniko batez edo. Gertakari-datu hauxe izan liteke, oso oker ez bagaude, gure arteko itxaropen-iturri baten agerpena. Izan ere, era horretara, neutri batean

behintzat, euskalgintzaren muga estuak gainditzeko moduan egongo bail ginateke. Beste modu batez esateko, hizkuntz ihardueraren matri-zeak mugarriztaten dituen hizkuntz jokabide indibidualak, ez daude zuzen eta artez eta nahitaez, era mekaniko batez baldintzatuak. Sistema soziolinguistikoaren barnean desajusteak posible dira eta, hainbeste-
tean, gertagarriak. Halaz guztiz, ez da zilegi gertagarritasun maila be-
rean kokatu nahi izatea norbanakoaren hizkuntz jokamoide guztiak.

Dakigunez, ideologitasunaren baitan operatzen du kontzientziak bere berezko mekanismoen bidez. Horrexegatik, hemendik aurrera, *ideologia* baizik ez dugu erabiliko, hura honen izari-eremuan gauza-
tzen denez gero.

Nola eskuhartzen du, ordea, ideologiak gizarte-prozesuen joan-eto-
rrian? Nolakoak dira bere iharduera-aldiak eta eremuak? Argibidetzat dakargu hona Therborn-en pasartea, berak aipatzen duen «procesos
lentos y graduales» delakoan barne bait dakusagu hizkuntz fenomenoa
ere. Horra:

*«El poder de la ideología no sólo opera en coyunturas de un eleva-
do dramatismo, sino también en procesos lentos y graduales. Las ideo-
logías no sólo consolidan los sistemas de poder; también pueden ser
la causa de su hundimiento y su desviación como si se tratara de ban-
cos de arena: todavía en pie, pero no de la misma forma ni en el mis-
mo lugar» (ibidem:2)*

Faktore ideologikoen eragin eta baldintzapenak, beraz, bere berezko
eraginkortasuna du neurri batean. Eraginkortasun hori, bestalde, ideo-
logitasunak gizarte-sistemaren baitan bereganatzen duen «tokia»-ren
araberakoa izango da halaberharrez. Alhatsua eta eraginkorra, maila
ideologikoaren kokagunea nagusi-gorena baldin bada. Alderantzizkoa,
beriz, mendeko harremanetan oinarriturik baldin badago.

Sistema ideologikoen hizkuntz eragina behin eta berriro frogaga-
ria izan da historian zehar. Eta sarri askotan, eite berezi bat hartu izan
du egitura ideologiko horrek. Esate baterako, erlijiotasunaren mailako
edukiz eta itxuraz agertu izan da, ondoko pasartean Mackey-k ondo
asko erakusten digun moduan:

*«On dit que l'argent n'est pas tout; et effectivement, dans les ques-
tions de langue, les forces économiques peuvent perdre de l'importan-
ce devant les impulsions d'une puissante idéologie. Ainsi la dispersion
des grandes religions —le christianisme, le mahométisme et le boudd-
hisme, certaines d'entre elles proclamant les valeurs de la pauvreté—,
a réussi à faire vivre le latin, l'arabe et d'autres langues aux quatre
coins du monde. La force d'une croyance religieuse a aussi contribué
à la survivance de langues telles que l'hébreu et le sanskrit, pas seule-
ment comme langues liturgiques» («Bilinguisme et contact des lan-
gues»:207).*

Euskaldunen aburua gai honen inguruan

Euskaldunaren eritziek badute antzeko egoeratan aurkitzen diren hizkuntz herrietako itxaropen-usteeekin oinarritzko adostasun bat gutxienez. Hain zuzen ere, hemen edo Britainan, Galesen edo Irlandan, herri-mintzairaren iraupenerako beharrezkoak diren oinarritzko baldintza material eta kulturalak birrinduak izan direnean, itxaropen-euskarria bakarra mekanismo ideologikoetan idoro nahi izaten da. Eta batzutan, dirudienez, ondorioak emankorak izan hite dira, arestian gertionaren ildotik, ideologikotasunaren egitura-maila leku garaian kokatzen denean gizarte-dinamikaren bilakaeran. Halakoa da behintzat «Txe-petx»-en aburua:

«Sólo la conciencia lingüística ha salvado a las lenguas que, bajo la fría lógica del poder, lo tenían todo perdido» («Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas»:4)

Hebraieraren kasuan bezala, badirudi ideologikotasunak bere kokagune dominantea erdietsi duela halakoetan, gizartegintza osoa bere ardatzaren inguruan eraikitzeko. Halaz ere, ez da lege bihurtu den joera kasu hori. Gehien-gehienetan bestalekoak bait dira ondorioak. Hots, ideologikotasunaren eraginkortasun-graduak ez bide du nahikotasun dinamikarik erakartzen gizartegintza osoa bere ardatzera biltzeko. Honelakoetan, eta hau bait dela lege-joera soziolinguistikaren historian, gainegitura sinbolikoaren erakar-indarra ahituz joan ohi da ia desagertu arte. Joera honen harian bete-betean datorkigu Txillardegiren egiaztapen hau:

«Hots, berrira ere geure arteko ahazkorrei gogorazi behar, herri hizkuntza hil ondoren Euskal Herrian erdaldunduta eskualdeetan ezin garbikiago ikusi dugunez—, oinarririk gabe gelditzen da herri kontzientzia» («Legebidezko etnozidua aurrera beti Euskal Herrian»:271)

Oinarririk gabeko kontzientzia bertan behera suntzitzen da, hortaz. Oinarri horiek, funtsean, oinarri sozialak dira: gizartearen egitura eta jarduera maila guztiez osaturiko osotasuna alegia. Egia da, euskal kontzientziaren desajuste honetan, maila batzuek aldeago dituela delako kontzientzia horrek, beste batzuk baino. Adibide bat jartzeko, politikotasuna hurbilago izango du euskal kontzientziak, ekonomikotasuna baino. Oraindik ere, ordea, gainegituratzat jotzen ditugun instantzien zerrendan gabilta, oinagituretatik urrun samar. Dena dela, egoeraren irauketa ez da bapatean gertatzen instantzia-maila orotan, katebegi ahulenetik hasien bait da, hasi ere, egoera soziolinguistikoa aldatzen eta hausten.

Euskararen historia desajuste historiko baten lekuko gisa ageri zaigu: une historiko jakin batean, Euskal Herriak bere garaiko subiranota-

suna galdu ahala, hizkuntzatasunaren garapenak nolabaiteko geldiunea ezagutzen du, bere gain ezarri zaizkion mintzairen garapena gizarte-bilakaerarekiko sinkronikoa den bitartean. Karlos Santamariak gertakari honi euskararen azpigarapena deitu zion behinala:

«Sin embargo, esta situación sociolingüística de la lengua, que hemos llamado subdesarrollo, está compensada por otra parte por un hecho, si no nuevo, sí completamente renovado, que es el siguiente: en el momento actual se manifiesta entre muchos vascos, y con mayor fuerza que nunca, la conciencia de la pérdida de la lengua y la enérgica voluntad de salvarla y elevarla a sus niveles más altos y profundos de utilización.» («El euskera como lengua escolar»:467)

Kontentsazio-indarrez mintzo zaigu Santamaria, beraz. Pentsatze-koa da nazionalismoaren zurrunbiloak sor erazi lezakeen uhinean sinisten duela. Hau da: politikotasuna gehi ideologikotasuna berdin euskal kontzientziaren indar hegemonikoa. Ekuazio hau, betegarria baldin bada ere, ez da beti betetzen. Halakorik gertatzeko, indar nazionalisten aldetik, lehen-lehenik, hizkuntzatasunaren lehentasun-mailari gure artean inoiz aitortu izan ez zaion tratamendua eskaini beharko litzaioke. Egitez aitortu, ez hitzez. Azken hau ez bait zaio falta izan euskarari ia inoiz.

Euskaldunon artean, esango nuke, ez ditugula gauzak ikuspegi berberatik ikusten auzi honi dagokionean. Hona aldatu ditudan pasartee-tan, orohar, baikortasuna nagusitzen da euskal kontzientziaren ahalme-nei buruzko erizpidetan. Eta Martin Ugalde ez da atzera geratzen, inondik ere, balorazio horren azalpenean. Ikusi bestela datorrena:

«Ez du Euskal Herriak sekula gaur egun adinako kontzientziarik izan. Eta kontzientzia horrek kristorena armatu dezake.» («Euskal Kulturaren Urtekarria-89»:191).

Kontzientziaren prozesu psikodinamikoetan barne dauden meka-nismo inkonstzienteak gutxieteko asmorik gabe, ideologikotasunaren erreferentzigune materialetara so egiteko joera dudanez, ateak irekita utziko dizkiogu etorkizun-itxaropenari. Irekita, bain zuzen ere, gauzak gurean bezala ia fase terminalean sarturik baldin badaude ere, erabat galduta ez daudelako. Posible delako oraindik ere, euskararen gizarte-ratzea, baldin eta glotopolitikaren jakintza eta prozedura zuhur eta era-ginkorrenak aplikatzen badira, norabidea aldatzea. Baina uxa ditzagun, era berean, amets-ilusio alferrak, utopiaren alderdirik makurrenak, gauden gaudeneko ezagutzera eta aldatzera, baino areago, burubide inozoetan barrera garamatzatelako.

EKOIZPEN-MOLDE KAPITALISTAK ERAKARRI DITUEN HIZKUNTZ ORDEZKAPENAREN FASEALDI OROKORRAK

Hizkuntz herri edo komunitate bat menderatua dago eta beste batekiko azpiraturik, bere baitako egitura ekonomikoa, politikoa eta ideologikoa osatzen duen artikulazioak bere gain oinarriturik daukan hizkuntz komunitatearekiko, menpekotasunezko botere-harremanak isladatzen dituenan. Hizkuntz herri menderatuotan eratzen den gizarte-klase eta Estatu-aparatuen arteko harreman-egitura, hizkuntz komunitate-Estatuarekiko jasatzen duen menpekotasunezko lotura-sarean bertan erreproduktitzen da. Zentzu honetan, hizkuntz herri menderatuetakoz gizarte-klase eta sektore aurreratuenak eta antolatuenak, gizarte-molde tradizionalerik atxekirik daudenak baino lehenago txertatuko dira hizkuntz asimilazio prozesuan. Orobat gertatzen da Estatu-aparatuekin ere. Estatu moderno-kapitalistaren ezarpenean uztarturik sortu eta hedatu diren erakundeak (administrazioa, eskola, komunikabideak, ...), herrian herriko ekoizpenbide tradizionalerik atxekirik dauden kulturbi-deak baino lehenago txertatuko dira hizkuntz komunitate menderatzailearen baitan. Feudalismoaren hondarretan, edota Estatu-Nazioen aurrerakuntzako hizkuntz baterakuntzaren prozesu historikoa, hizkuntz herri menderatuaren baitako produkziobide zaharkituak eta gizarte-klase desegituratuak ahitu ahala amaituko da.

Azken batean ekoizpen-molde kapitalistak eta Estatu modernoak erakarki duen hizkuntz ordezkapenaren prozesu historikoa, fase desberdinetan berrera bideratua izan da. Faseok, funtsean, hiru epealdietara murriztu ditzakegu beren lerro-ezaugarri nagusienetan:

1. Elebikuntza edota ekoizpen-molde kapitalista modernoaren hastapenak

Erdi Aroko sistema feudalaren eredu desberdinen baitan, etni-herrien arteko harremanak monarkia absolutuaren botere-sareen bidetik gauzatzen hasten dira. Botere-sare erdirakoi hauek, hala nola militarra, hala nola aparatu administratiboa, etni-herri ahaltsuenen eskuko jar-

Izen joango dira besteen kaltetan. Guztiarekin ere, ekonomi-egitura produkzio-molde erdi-feudaletan edo aurrekapitalistetan kokaturik zegoenez, aipatu dugun menpekotasunak ez du hizkuntz herriotan asimilazio linguistikoki azkarrik erakarriko Estatu mota honen aroan. Herrian herriko hizkuntza, seguruenik, goi-mailako zeregin formaletatik saihestua egongo da botereko klase nagusiak arrotzak direlako, edota arrotzuak daudelako neurri baten edo bestean. Gauzak horrela, hizkuntz herriak bere ohizko produktibideen ildotik antolatuko du gizarte-eredua, nahiz eta bertako klase nagusiak egitura ekonomiko eta politikoki aurreratu eta erdirakoituetan kokaturik egon. Egoera sozial honetan posible izango da egoera diglosiko egonkortzai ezagutzen duguna: hau da, gizarte-maila desberdinetako hizkuntz konpartimentazioa, non hizkuntza bakoitzak beregain dituen funtzio-esparruak bere eskuko izango bait ditu autonomi-eremu zabal baten barruan. Elebidunduko diren hiztunak, halaber, produkzio-molde kapitalistaren hastapenei dagozkien ihardun-bideetan ari zirenak izango dira soil-soilik. Elebitasun indibidualaren eragin-barruti arrotzak ez dira herri-sektore zabaletara hedatuko; hauek artean ez bait dira ekoizpenbide berriaren orduko katean sarturik aurkituko eta katea honen ezarpen-indarra ez da ahaltsua agertuko Estatu absolutu erdi-feudal horietan.

II. Elebikuntzatik elebakartasunerako trantsizioaldia: elebitasun sozialaren ezarpena edota ekoizpen-molde kapitalistaren hedakuntza

Hizkuntz ordezkapenaren lerro historiko nagusietan, bigarren zedarriztapen-puntura iritsi gara. Aurreko fasearekiko etendura dakar honek: jadanik konpartimentazioan oinarritzen zen egoera diglosiko egonkorra pitzatzen hasia dago bere oinatri etnolinguistikotik eta hizkuntza menderatzailearen aldera lerraturik dagoen elebikuntza elebakartasunean bihurtzen ari da.

Aurreko fase soziolinguistikoa oinarri sozioekonomikoa gizarte-molde aurrekapitalistarena baldin bazen, jadanik kapitalismo lehiakorren elementu ekonomikoak (ekonomia merkantilistatik industri-ekonomiarako igaroaldian) gailentzen hasiak daude aurreko ekoizpenbideekiko. Elebikuntzaren epealdia, beraz, ekoizpen-molde kapitalistaren garapenari dagokionez, honek bereganatzen duen forma lehiakorrean datza. Bizimodu eta egitura soziologikoan, kapital lehiakorren agente-klaseek, burgesaren hegemoniapean, beren nagusitasuna ezarriko dute Estatu-aparatuaren adar-sare desberdinetan. Betidaniko administrazio-aparatuaren modernizatze eta erdirakuntzarekin batera, eskola-irakaskuntzaren arloan aurrera-pauso nabarmenak eman-go dira ekonomi-sektore berri eta nagusien ildotik.

Produkzio-molde kapitalistaren fase lehiakor honetan, gainegiturazko erakunde eta instantzien (eskola, soldaduska) ezarpena arago-

tuz doazen honetan, ekoizpenbide berrioi atxekirik dauden gizarte-klaseak (lanaren zatiketa sozialaren ondoriozko lan-sail kualifikatuena) elebiduntzen joango dira, eta elebidundu ahala, elebakartzen. Orain ia, aurreko fasean ez bezala, hiztun elebakarrak ez dira soil-soilik Estatu-aparatuei aldez edo moldez loturik zeuden agente-funtzionarioak izango. Horiei bertako gizarte-sektore berriak erantsi behar zaizkie. Harek, egia esan, ez dute erabat eta osoki agian bertako hizkuntza galduko; askok eta askok bestalde, ama-hizkuntza izandakoa. Nolanahi ere, hizkuntz joera soziolinguistikoa, fasealdi honetan, ezaugarri nagusi honen pean gauzatuko da: ekoizpen-molde kapitalista lehiakorra herrian herriko gizarte-egituren baitan txertatu ahala, industrialdiaren lehen urratsak ekonomi-egitura berrian gailendu ahala, ezarian edo bortizki (segun eta herri-eskualdeak zer-nolako artikulazio sozioekonomikoa zuten bere baitan), gizartegintza industrial-hiritartuak oinarritzat duen hizkuntza, hots, Estatu-hizkuntza barneratu egingo da gizarte-ehun nagusien artean.

Inoizko elebitasun indibidual arrotz hura, gizarte-egitura aurre-kapitalistan hizkuntz herritik at zegoen hiztun-talde isolatu hura, jadanik ez da gutxiengo soziologikotzat hartzerik izango. Oraingo fasealdi honen beste ezaugarri bat, hain zuzen, elebitasun sozialarena delako: berrikuntza eta eraldatze sozioekonomikoein batera gailentzen joan den hizkuntza ofizial-boteroduna, herrian bertako gizatalde kualifikatuenengan ezartzen joango da beroien hizkuntz behar guztietan.

Hala nola, esaterako, funtzio-esparru formal-modernoetan ez ezik, herritarren arteko mintzabide-sareetan ere. Hemen, dudarik gabe, hizkuntz fenomeno berri baten aurtean gaude: hizkuntz talde edo komunitate garailearen barneko eredu linguistikokoak hedatzen ari dira herri menderatuaren barneko sektore herrikoietan. Ez dago garaia bateko isolamendu etniko eta soziologikorik. Ez dago hizkuntz herrien arteko koexistentzi linguistiko autonomorik. Hizkuntz ukipenak gizatalde bat bestearen barruan irentserazi du: inolako autonomiarik gabe geratu da honez gero herri menderatua, bere ohizko bizimodu eta ekoizpenbide tradizionaletan izan ezik. Hauetan ere berdin-berdin gertatzen da hizkuntz asimilazioa noski: kontua da, formazio sozial tradizional hauek geolinguistikoki non kokaturik dauden. Hor dugu, inora joan gabe, Nafarroa eta Arabako esenplua: hizkuntza dominantearekin mugakide izatean, nekazaritza eta egitura tradizionaletako gizarte-moldeak ere bere baitara erakartzen ditu hizkuntz ukipenaren erakarpen-indarrak.

Fasealdi honetan, ukituena eta erasanena, kanpo-harreman edo ukipen-eskualdeetako hiztunlegoa izango da alde batetik, eta bestetik, hizkuntza gailenduaren sarbide-zirikituak gero eta zabal eta erosoagoak izango dira etni-herri beraren barnealdeko zenbait gune herrikoietan. Pentsatzekoa denez, gune hauek merkataritza eta industri-prozesu hasiberriak erakarri dituen hirigune mugatueta kokatzen dira. Oro har, hiriburuak eta zenbait eskualdeetako herriburuak.

III. Hizkuntz baterakuntzaren burutzapena edota ekoizpen-molde kapitalistaren erabateko ezarpena

Itxura guztien arabera, kapitalismoaren ezarpena ekoizpen, zabal-kunde eta kontsumoaren arloetan aro berri honetara iristean, hizkuntz herri menderatuaren oinarri etnolinguistikoaren autonomia guztia erdiz-erdi zartatua eta desegina dago. Honez gero, herri minorizatuon mikro-gizartearen egiturak ezin dio, inolaz ere, bere garai bateko isolamendu erlatiboari eutsi, eta irentsia izango da horrenbestez, bere hizkuntzazko sustrai etniko eta gizarte-euskarri tradizional guztiak barne direlarik.

Kapitalismo garatuaren aroan, beraz, hizkuntz ordezkapenaren prozesu historikoa here azken burura iritsiko da: herri-mintzairaren transmisiogune guztiak porrot eginik, elebitasun soziala ezinezkoa bilakatu da, eta horren ondorioz norbanakoaren elebitasuna zimentarri sozialik gabe, bere hizkuntz gaitasuna galtzen eta desagertzen joango da. Hizkuntz uniformetasuna lege nagusi bakarra bilakatu, zirikiturik ixikienak ere bertan behera hertsiz. Famili-esparruaren porrota izango da hizkuntz iraungipenaren «argi gorria»: honexek eutsi izan bait dio belaunaldiz-belaunaldi, herri mintzairari, azken mendeetako hizkuntz eraso arotzei nola edo hala aurre eginez. Baina bide hau ere galdurik dauka herri-mintzairak, oraingo honetan. Agian ahalegintxo batzu egingo dira, hizkuntza etniko hori, ezertarako balio ez duen «altxor» prezialutzat gorde nahirik edo, eskolaketaren haserako ikas-mailetan simbolikoki irakasteko eta horrela bere desagertzea luzarazteko. Guztiarekin ere, «odol jarria» ezin izango da moztu, batzuen asmorik onenaz eta besteen sentimendu folklorikoaz.

Kapitalismoaren garapen aro honetan gainegiturako elementu batzu nabarmenduko dira aurreko aroaldiekiko. Estatuaren aparatu ideologiko eta kulturelek ikaragarritzko eragina izango dute. Aparatu informatiboa da, horien artean, azpimarratzekoa: honen bidez iritsiko baita herri-mintzairaren zokondo guztielara, idatzizko eta ikusentzunezko multimedien ohiartzun etengabea beren mezu ideologiko-linguistikoe-kin. Kontsumoaren maila gorenak, orobat, beste hainbeste eragingo du, gizarte-ohitura eta moldeak batzen eta, hainbestean, hizkuntz-kulturazko arau eta ereduak ezartzen. Guztiz azpimarragarria da, beraz, Estatuaren funtzio linguistikoa fasealdi honetan. Inoiz ez bezalako ahalmena erakutsiko bait du, izan ere, egitura sozioekonomikoak lagundurik, bere baitan dauzkan herri-identitateen asimilazio-dinamikan. Ez du jadanik inoizko «eraztuna»ren eskola-zigorrik ezarri beharko herri menderatuetaiko eskolameak «integratzeko». Ez du, halaber, hain bereak zituen debeku-dekreturik inposatu beharko, herri-mintzairon erabilpena eragozteko: eragotzi, esparru-funtzio formaletan ez zenean, kale gorrian bertan eragotzi ere, Estatu horrek inoizka bereganatzen zituen diktadura-errejimen moldeen arabera.

Laburbilduz, esan dezakegu, Estatu-hizkuntzaren elebakartasuna erabat ezarriko den epealdi honetan, elebitasun-oinarriak suntsituak

geratuko direla egitura soziolinguistikoaren luze-zabalean. Egia da, halere, orain gurean bezala, ahalegin-saio batzu egin ohi direla bertiro ere hizkuntz ordezkapenari aurre eginez, hizkuntza «zaharra» mundu «berrira» egokitzeke. Baina denborak ondo erakutsiko digun bezala, ahalegin-saio horiek arrakastarako aukera gutxi dute, hizkuntzen gizarteratze prozesua ez delako mintzaira horrek galdu dituen esparru eta eginkizun batzu formalki orain bertiro eskuratzearekin erdiesten. Hizkuntz ezarpen soziala, batez ere, gizarte-arazoa denez, gizarte-antolakuntzaren oinarritzko botere-zutabeen esku egon ohi da, eta ez familia edo eskola bezalako erakunde-transmisiogune «autonomoen» erabakimenean.

Azken batean, orain arte esandakoaren harian, zera izan beharko genuke ondo gogoan: hizkuntzak ezin duela bere egitekorik bete, hizkuntz herriak ezin duela ere biziraupenik bermatu, bera barneko den ekoizpen-molde kapitalista nagusiaren eskuko ez bada. Bestela esanda: gizartearen egitura eta botere-mekanismoen kontrola beste hizkuntz-komunitate baten eskuko diren bitartean, hots, gizarte-molde nagusia (orain eta hemen, kapitalismoaren epealdi monopolistari dagokiona) eta herri-mintzaira hori instantzia guztietan bat ez datozen bitartean, herri-mintzairarenak egin du. Korrespondentzia hori gabe, oinarritzko kontrasesan nagusia hizkuntza nagusiaren aldera ari da lerratzen, eta besteak ezin du erakarpen-indarrak ezarri egitura soziolinguistikoak huts egiten diolako oinarrian bertan.

Azken iruzkinak

Ez dugu sekula uste izan, gure arteko pentsakera nagusiek besterik erakutsi nahi izan badigute ere, euskararen arazoa arazo pedagogiko bat denik. Are gutxiago arazo psikologiko bat. Eta, dena esateko, *corpus* eta *status plangintza* bezalako kontzeptuek ere ez dute, inondik inora, hizkuntzaren gizarte-dimentsio hau beren baitan estaltzen. Izatekotan ere, lanabes teoriko eta operatibo bezala baliabide eraginkorrak izan dakizkiguke, baina ez, eta hauxe da gakoa gure hausnarketa honetan, azalpen teorikorako argibide. Gauzen zergatiak hauteman nahi genituzke, kausa historikoen iturburuak eta egungo dinamikaren logika, ororen gain. Eta hain zuzen ere, nekez bideratuko ditugu behar bezain zuber eta zuzen euskararen aldeko indarrak, harik eta bere gaitz historiko-sozialaren bame-logika hori ondo ezagutu gabe.

Esan herri dugunari, hau da, giza-jokamoldearen nondik-norakoa aztergaitzat duten disziplina zientifikoaren eskuharmena aski ez bada, ez da hor abitzen planteamendu zalantzagarrien zerrenda. Areago jo beharra dago ikuspegi kritiko honen haririk: ez baita aski izango, oro bat, Estatu moten teorizazioa bera ere, hizkuntz ordezkapenaren ibilbide historikoa bere oin-erroetan ezagutzeko. Estatu moten teorizapen hau, eginkizun dugu, zoritxarrez. Eta lehenbaitlehen ekin beharko litzaiokoe ikerlanari, oinarri teorikoak sendotzen joateko. Guztiarekin ere, aitortu

bezala, beste urrats bat eman beharko genuke ikerketa soziolinguistiko-koen bide malkarretan eta «beste urrats hori» hemen zirriboratu nahi izan dugun haxe bera da. Alegia: ekoizpen-molde eta gizartekera desberdinen sorrera, aldakuntza eta ezarpenen logikapean kokatu nahi izan dugu hizkuntz ordezkapenaren ardatza. Lan gaitza da hau, besteak beste, zehaztasun metodologiko bati loturik garatzeko, erreferentzia historiko-sozialak ondo gogoan edukitzea eskatzen duelako, eta hori ez dago edonoren esku, bistan denez. Gure zirriborro honek ez du seguruenik aztergaiaren premia agerian ipintzeko baizik balioko, eta hori erdietsi baldin badugu, gustora egotekoa izango da.

Planteamendu teorikoaren norabidea, honez gero, garbi samar da-goelakoan gaude. Hizkuntz ordezkapenaren sustraiak ezin dira esplikatatu koiuntura batzuren gorabeherak arakaturik eta horko jazarpen politiko-juridikoak azaleraturik bakarrik. Ezinbestekoa da feudalismotik kapitalismorako trantsizioaldian lehenik, Estatu absolutuan gero, eta kapitalismoaren ekoizpen-molde eta eredu desberdinen joan-etorrian hizkuntz ordezkapenak bereganatu dituen ezaugarri eta epe berezi-zehatzak teorikoki zedarriztatzea. Oinarri ekonomiko eta sozial hauen logikapean ez bada, arrisku bizia egoten baita gainazaleko geruza soziolinguistikoaren gorabeheretan galtzeko. Eta, hemen, galtzeak, ez ezagutzea esan nahi du. Eta ezagutu gabe, diogun bidenabar, are zailagoa egingo zaigula, hain sustrai sakonak dituen auzia aterabidean jartzea.

III.
«EUSKARAREN AUZIAZ»:
AITA VILLASANTEREN PENTSAKERA
SOZIOLINGUISTIKOAREN
HAZTARREN BILA

«EUSKARAREN AUZIAZ»: AITA VILLASANTEREN PENTSAKERA SOZIOLINGUISTIKOAREN HAZTARREN BILA

Bada denbora mordoska Aita Villasanteren «Euskararen Auziaz» kaleratu zela. Liburu irakurgarria da «batasunari» dagozkion ezin kontatutako xehetasun dakartzalako. Nik neure aldetik ez dut «corpus plangintzaren» barrutian sartuko litzatekeen gairik arakatuko; besteak beste, gai-eremu horretan umezurtz nabilelako. Villasanteren liburuan bada problematika horretatik kanpo kokatzen diren beste zenbait puntu eztabaidagarri. Eta honetara mugatuko da gure jardunaren egitekoa.

Esan berri dugun bezala, Villasantek gehienbat standardizazioaren inguruko auziak aztertzen ditu egokiro. Liburuaren hitzaurrean bertan argi utzi nahi izan du bere iharduera-arloa: «Badira euskara salbatzeko noraezko diren eta guk hemen ukituko ez ditugun gauza asko eta asko: agintarien atzekaldea eta babesak, komunikabide eta prentsan, administrazioan etab., sarreka izatea. Gu ez gara gauza horietan artez sartuko, inoiz iragaitzaz zerbait esango badugu ere». Nolanahi ere, Villasantek barkatuko ahal digu «inoiz iragaitzaz» ikuitzen dituen gai eztabaidagarri horiei buruz jardun izana.

Elebilasun kontzeptua edo oker-adituak

Guk uste, hizkuntz ideologia menderatzailearen bozeramaileei beren interes soziolinguistikok zaintzeko euren eskuko jar dakiekeen elementu ideologiko bat zera da. Alegia, Euskal Herriko hizkuntza bakarra ez dela inoiz euskara izan, eta espainiera ere euskara bezain zaharra dela lurralde hauetan. Aita Villasantek ikergai honi buruz idazten dituenak lehendik beste batzuk esanak eta idatziak dira gehienbatean. Salatu nahi dugun ideiaren orain arteko formulazioa, euskararen etsai ideologikoentzat ez da izan lanabes makala. Horra beraz, daturik, orain berriro Villasantek, inolako zehaztapenik gabe, gauzak berresaten dituen beikoen faboretan. Pasarteak, aukeran luze samarra bada ere, hona aldatuko dugu: «Horregatik, eta aspaldidanik etxeko dugulako —espainieraz ari da—, esan zuen behin Mitxelena Euskal-

tzaindiko batzarre batean: "Erdara ere hemengoa da, gero!" Denek isil-isilik entzun eta inork ez zion fitsik erantzun. Eta beste behin: Esaten denean "Euskara da Euskadiko hizkuntza", badirudi mugaketa edo zehaztapen batzuk egin beharko genituzkeela, era honetara: Euskara da —eta izan da— Euskadiko zenbait tokitako hizkuntza, eta izan da, gainera, gaur egun Euskadi ez diren beste zenbait lekutakoa ere; eta, alderantziz, Euskadi osatzen duten zenbait lekutan gaur ez da euskarak egiten, eta, itxuren arabera, horietako batzuetan lehen ere ez...»

Guzti honetan, ordea, arazoa zein da? Halako eta halako bazter edo eretzetan erdara ere hitz egiten zela, edo bestelakoetan ez zela euskara erabilia izan. Ez dirudi arrazoipide horiek inolako indarririk dutenik, halako batean, gure herri honek bere hizkuntza nazionala zein izan behar duen erabakitzerakoan. Guk uste, «Txepetx»-ek aski garbi utzi du elebitasun kontzeptu anbiguo batek orain arte sortu dituen nahasmen-duak. K. Mitxeleneri zehaztapen hau egiten dio bere azken obran: «Pero era un bilingüismo individual. Todos los datos que tenemos apuntan a que en el centro de la territorialidad euskaldun el bilingüismo social generalizado es un hecho moderno». Arazoa ez da hortaz, erdara erabiltzen zen edo ez jakitea, baizik eta orduko Euskal Herrian zein elebitasun mota sustraiturik zegoen jakitea.

Euskal Herriaren jatorrizko elebitasun soziala, dudamudazko hipotesi teorikoekin, hizkuntz ideologia dominante espainiarren bazka bihurtzen segitzea, gauza larria iruditzen zaigu egun bizi eta jasaten dugun kointura soziolinguistikoan. Baina dirudienez, kontua ez da hemengoa soilik, minorizazio edo azpiraketa nazional-linguistikoa sufritu duten herri guztietan beste hainbeste gertatu bide da. Beude, Aracilen hitzok, lekuko: «En todos los casos estudiados, se sabe con certeza que, tiempo atrás, la gran mayoría de la población era hablante unilingüe de (gaélico, ...) tan unilingüe al menos como lo era la gran mayoría de la gente inglesa, por ejemplo. La gran mayoría de la gente inglesa continúa siendo unilingüe. ¿Qué ha ocurrido en Escocia, en Irlanda y en Gales? si nos limitamos al ámbito británico.» Gure herrira itzulita, kontua zera da: espainiarrek eta frantsesek inoiz izan ez duten jatorrizko elebakartasuna izan dugula euskaldunok historian barrera, baina herri minorizatu eta azpiratuak, hizkuntza desagitearekin batera, hitza ere lapurtu egin zaiela, eta halako batean, eta bertako batek gainera, «Erdara ere hemengoa da, gero!» esan duenean, euskaltzain gizarajoak isilik geratu direla. Villasanekek, ordea, ez luke harritu behar gertaera horren aurrean. Horri egunero gertatzen zaigu euskaldunoi, eta halaxe gertatuko zaigu gainera gure diskurtso soziolinguistikoa mugitzen den koordinadatan mugitzen den bitartean.

Atal honetan beste gauzatarxo bat aipatu nahi nuke: aurreko auziarekin zerikusirik ez ducna, baina elebitasun-kontzeptuaz egon daitekeen oker-aditzearekin bai agian. Aztergai-puntua zein terminotan planteatzen den jakiteko, onena Villasanecki berari hitza ematea izango da: «Euskadin erdaldun direnek euskaraz ere ikas dezatela, eta euskaldun

direnek erderaz ere bai: badirudi xede hori jarri behar genukeela helburutzat, elkarrekin anaikiro bizitzen ikasiz, bi hizkuntzetako hiztunen eskubideak zainduz. Hau izan bedi helburua edo ideala: bi hizkuntzoz ezagutza orotara zabaltzea». Ulertzekoa da Arantzazutik gauzak modu zerukoiaogan ikustea, eta asmo onak lau haizetara hedatzeko gogoia edukitzea. Gauza hauetan, halere, ez dirudi «asmo onekin» inora goazenik, eta are gutxiago Villasantek berak behin eta berriro errepikatzen duen «buru argiz» eta «zentzuz» jokatzeko bidean harrera abiatzen garrenik. Euskararen egoera soziolinguistikoak, pentsamenduen arlo honetan bederen, problematika termino teoriko justuetan planteatzea eskatzen du. Eta Villasanteren proposamenaren funtseza frogatzeko, hizkuntz politika ofizialeko dokumentu bat hartzea aski da: «Euskal Herrian nagusiki erabiltzen den elebitasun kontzeptoa hemen aipatuta koetatik aurrenekoa bada, elebitasun osoarena alegia, esan beharra dago Europan eta munduan honelako gizarte elebidunik ez dagoela» (Euskararen politikarako oinarriak, Eusko Jaurilaritza).

Euskararen atzerakada

«Esta lucha espiritual emotiva, en la que se batien con desiguales armas la lengua oficial, con los medios poderosos que le presta el Estado, y el idioma propio, que cuenta con la sola energía de los hombres dignos y patriotas conscientes, es merecedora de un singular estudio». Bidelagun zorrotza aukeratu dugu oraingoan: «Aitzola» eta bere jakintza sakona. Inor gutxi bezala marraztu zigun Estatu zapaltzaileen interbentzio linguistikoak. Villasantek ere ez du ukatzen interbentzio hori guztiarekin ere, zenbait zehaztapen egin nahi genituzke Estatu eta euskararen atzerakada dela eta, euskaltzainburu ohiak egiten dituen gogoetei buruz.

Aurreritziak salatuz datorkigu: «Beste aurreritzi bat ere egoten da euskaltzale askorengan: Estatuaren inposaketaz gertatu dela euskararen atzerakada. Baina hori ere gauzak gehiegi sinpletzea da. Hori ere egon dela, batez ere azken mendeotan, ez dugu ukatzen. Baina bai lehen eta bai gero ere, Bizi eta Herrok beren jokoa aski libreki egin dutela dirudi. Euskaldunak ere ez ziren gehiegi axolatzen gauza hauetaz, eta hala, pixkanaka, euskarari bere bazter-eremuak gero eta meharrago gertatu zaizkio. Hortxa eta inposaketaz landara, beste faktore asko egon ohi da hemen tartean». Bat geroz Villasanteren zerarekin; alegia, hizkuntza ez ofizial estatalen galera eta suntsipena ezin dela esplikatuta Estatuaren interbentzioa eremu linguistikoan aparatatu errepresiboetara murriztuz. Are gehiago, interbentzio mota horretan aparatatu ideologiko-juridikoak emankorrakoak bilakatu izan zaizkio botere estatalari mintzaira ez-ofizialak lurperatzeko. Nolanahi ere, goazen urratsez urrats.

Aipatu izan da, baina berriro aipatzeak merezi du: Euskararentzat Estatu kapitalista ez ezik, honen aurreko Estatu-formak ere arerioak

ziren. Besterik ezean, dakargun honako aipu labur hau: «el ideal de la lengua (rechazo de los provincialismos) resulta de la centralización política inaugurada por los reyes de Francia y se encuentra en oposición con la actitud centrífuga en política y en lingüística del feudalismo». Pentsatu behar da, gutxienez, trantsizioaldiko (feudalistotik kapitalismora) Estatuak ordurako herrian herriko mintzaireren etsaiak zirela. Honek zer pentsa ugari ematen du, hizkuntz komunitate bakoitzarentzat Estatu propio bat beharrezkoa den planteatzerakoan.

Bigarrenik, Villasantek aditzera ematen digu, «Bizi eta Herioak beren jokoa aski libreki egin dutela» hizkuntzen arteko harreman historikoaren bide luzean. Estatu modernoaz ari baldin bada, eta halatan ulertzen dugu guk, ideia horri bigarren parteren bat falta zaienaren susmoa dugu. Irakurleak hobeki ulertuko du zer esan nahi dugun Mitxelenaeren pasartea letu ondoren. Zera dio errenteriarrek: «La tolerancia, el *laisser faire*, *laisser passer* en materia de lengua, ha sido siempre, y es todavía hoy probablemente, la política más practicada. Sus resultados no son malos, a corto plazo por lo menos, a juzgar por una larga y varía experiencia. Hay dos puntos, sin embargo, que han de ser tenidos en cuenta al enjuiciarla. En primer lugar, esta política, como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra —más eficaz en realidad, puesto que supone omisión, no una acción con cuya responsabilidad alguien tiene que cargar— de favorecer a unas lenguas y de postergar a otras: es por lo tanto, una política, no una falta de política».

Hirugarrenik eta azkenik, euskararen atzerakada azaltzeko orduan, ez omen da euskaldunen axolagabekeria ahantzi behar. Gaur zenbait sektoretatik, eta nik esango nuke, botere instantzietan mamitzen den diskurtsoaren lelo ahalguztiduna bihurtu zaigula hau. Hori buruz, ordea, zenbait gauza garbi utzi behar da, behingoz «euskaldunaren hizkuntz jokabidea» delako hori «non» eta «nola» burutzen den atzemateko. Lehenengo eta behin, ez dezagun ahantzi elebitasun sozialaren baitan gauzatzen eta determinatzen dela hiztunaren ihardura linguistikoko osoa, eta gaurko egoera diglosiko latz honetan euskal hiztunari «sarkrifikazioak» eskatzea, inozokeria galanta dela (ez gaude, haatik, militantismo linguistikoaaren aurka). Euskaldunaren «axolagabekeria», lehen eta orain sistema soziolinguistikoaaren baldintzapenetan aztertu behar baldin bada, euskaldunak horrela jokatu izana ez dela bere «kabuz» hautatutako ezer, euskaldun izatearen status sozial zapaldu eta baztertuaren efektua baizik. Euskaldunari euskararekiko leialtasuna eta bere mintzaira erabiltzeko eskatzea egoki da, aldi berean euskararen «status ofiziala» (hots: juridikoa, kulturala, ...) benetan egiazko gauza bihurtzeko botereak hartu behar dituen neurriak hartzen baditu. Baina, gaurko egunean, diskurtso oportunistak horrek, alde batetik euskara-erdara indar-erlazioak gauzatzen direneko instantzia eta erakundeetan euskara ezartzeko ezer egiten ez duen bitartean, euskaldunari hau eta bestea eskatzeko ausartkeria dauka, eta nolakoa gainera! Ohartxo bat,

halere, oker ulertzerik ez egoteko: botere kontzeptua ez dugu «botere publikora» murrizten.

Euskaldun «erresuminduak» ez dio «botere publikoari» berak ezin duena egitea eskatzen. Euskaldun «erresuminduak» botere politiko-linguistikoa eskatzen dio, urte mordoaska haueko eskarmentua ezagutu ondoren eta «Txepetx»en delako «tensión de ruptura» hura gertatuko bada, gauzak beste modu batera egin behar direla. Eta euskaldunok «indarrak» ez badugu euskararen alde hartu behar diren erabakiak hartzeko, indar politikoei galde egin beharko zaie zer arraiotan ari diren. Galdetu beharko zaie, esaterako, orain arteko neurriak «etendura-tentsio» horretara abiatzeko baldintza minimoak betetzen ez badituzte. Euskal Herriko hondamendi linguistikoa ez dela soilik burutu indar estatualisten eskutik, beraien konplizitateaz baizik. Gauzak horrela, euskal hiztunaren «axolagabekeria» ez dezagula aitzakitatzat erabili, benetakoa arazoaren luze-laburrak etengabeki ezkutatzuz.

Ama-mintzairaren lekuaz hezkuntz sisteman

Oraingoan irakaskuntzaren eremuko puntu zalantzarari bat ikuitu nahi nuke. Eta horretarako bide ematen du aita Villasantek, zeren bera ere kezkatu ageri bait zaigu arazo pedagogiko horri buruz. Honelatsu ager dezakegu problematikaren mamia: ea haurraren ama-mintzairak zer leku eta funtzio bete behar duen irakaskuntzaren prozesuan. Pedagogiaren arloan, egia esan, aski hedatua izan da auzi hau eta UNESCOk berak ere txosten bat baino gehiagoz azaldu izan du bere jarrera oinarriko eskubide hau inon azpiratua izan ez dadin.

Aita Villasanteren hitzotan argi dago kezkaiturria: «Eta euskal eskolak porrot egitea nahi ez badugu, zehurtzia handiz jokatu beharko da. Lehenago bidegabekeria egiten bazen haur euskaldunak erdara hutsuz eskolatuz, ez dezagun orain gauza bera beste aldetik egin. Amaren hizkuntzan eskolatu behar baldin bada haurra, erdaldun diren haurrekin ere neurri bera gorde dezagun -erdal giroan bizi badira batipat—, traumak eta sesio-bideak sort ez daitezten».

Eskolako traumen problema hori inon ezaguna izatekotan, herri minorizatuetan izan denez (honck eragin izan du UNESCOren jarrera hartzea), euskaldunak badaki zer bait gai horretaz. Kezka modu horretan formulaturik, eta zor zaizkion zenbait nabardura argi zehaztu gabe, badirudi orain euskaldunok garai bateko jokabide bidegabecetan erori gintezkeela. Ikus ditzagun bada, besterik ezean, arazoaren bi alderdiok: lehenik alderdi ideologikoa, eta ondoren pedagogikoa.

Nolabait planteamendu ideologiko-politikoa aztertzen bada, ez dirudi euskaldunoi egin zaiguna eta orain hemen erdal haurrei egin daiekeena, inondik ere parekatzeokoa direnik.

Ez da ahantzi behar euskaldunari eskolan egin zaiona harrotzek bere herrian egin diotela. Estatu atzeritar batzuek beren bortxa eta ofi-

ziantasunez baliaturik, euskalduna bere herrian bizkuntza arrotzez «eskolatu» izan dute oinarri-oinarrizko eskubide guztien kontra. Gauzak horrela, pasarteko «ez dezagun orain gauza bera beste aldetik egin» ideiak adierazten duena, berez beteezina da: haur erdaldunarekin modurik ankerrenean jokatuko bagenu ere, ez litzateke inoiz guri egin digutenaren pareko izango. Eta hau ez da ahaztu behar: Eskola dago tartean, eta gauza jakina da guztiz, erakunde hauxe izan dela botereak maila ideologiko-linguistikokoan ezarriak zituen xedeak eskuratzeko gehienbat erabili duena, eta planteamendu pedagogiko guztien gaine-tik eta azpitik interes sozial eta nazional horiek erabakitarrak izan dire-la. Ez al da zentzuzkoa bada, Eskolak bete izan duen funtsezko zeregin hori dela medio, pedagogiak pedagogia, norik bere etxean egindako hutsegite pedagogikoak barkagarriagoak direla pentsatzea Estatu bi-rrintzailearen eskutik egindakoak baino? Ez dezagun ahantzi hortaz, auziaren alderdi hau.

Arazoaren izaria gutxiesteko batere asmorik gabe, ez dirudi gauzak hain larriak direnik gure testuinguruan. Hori diote bederen zenbait aditu-k. Eta horietako batek, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzak berak aholkulari gisa darabilenak, aski sakonki ikertua du arazo hau. Beste askotan bezala, gure erizpideak oinarrizko darabiltzagun aipua aukeran luzeegiak izanagatik, ondokoak halaz guztiz merezi duelakoan gaude. Hauek dira, bada, James Cummins-en ondorioak: «Los niños en los programas de submersión a menudo se frustran a causa de sus dificultades de comunicación con el maestro. Estas dificultades pueden surgir porque el maestro no sepa comprender la LI del niño y también porque éste tenga expectativas diferentes, determinadas culturalmente, en cuanto a la conducta apropiada. Al contrario, en un programa de inmersión al maestro le es familiar la lengua del niño y su medio cultural y puede, por tanto, adecuarse a sus necesidades. En un programa de inmersión el maestro no desprestigia nunca la LI de los niños y reconoce su importancia al introducirla como materia escolar en cursos posteriores». Hizkuntza minorizatueta gertatu dena lehendabizikoa da (submersión), eta orain Euskal Herrian «D» ereduko erdal haurrekin gerta litekeena bigarrena da (inmersión). Irlandarraren ildotik dator UNESCOren eskariz Sigüán eta Mackey-ek burutu duten txosteneko azterpidea ere: «La inmersión o la enseñanza total o predominantemente en otra lengua, puede proponerse sin peligros cuando los sujetos de la enseñanza hablan una lengua de más fuerza o de más prestigio social que la lengua de la enseñanza». Ez dirudi beraz arrisku handirik dagoenik «gauza bera beste aldetik egiteko». Arriskua besterik da, gauzak ez direla funtsean aldatu (ikusi barizik ez dago «D» ikastere-duaren pisurik eza gure hezkuntz sistemán). Eta horrenbestez, jakina, Eskolak herri hau erdalduntzen eta arrotzen segitzen du, Eskola modu nagusi batez interes linguistiko-nazional arrotzen zerbitzuan dago; bona euskaldunak betidanik izan duen arriskua bere izate nazionalaren funtsezko elementua erauzteko.

Klaseak eta independentzia hizkuntz azuzian

Aita Villasantek bere liburuan Broussain-en aipu bat dakar, non ipar euskaldunak euskara beste hizkuntzen gradura igoko bazen, urratu behar zituen urratsen berri ematen bait digu. Bada aipu horretan klase sozialekiko egiten den kontsiderazio bat, eta antzeko gauzak geroztik noiznahi esan badira ere, orduan esan izanak badu bere garrantzia. Frantsesez dago: «... afin de devenir au bout d'une ou deux générations, l'idiome unique de la bourgeoisie et du clergé (les classes laborieuses-paysans et ouvriers-adoptant tôt ou tard, fatalement, la langue des classes dirigeants)». Hizkuntz normalizazio sozialaren muinera zuzentzen da Broussain-en aipamena: klase sozialek hizkuntzarekiko duten jarrera eta praktikara alegia. Esanak esan, hizkuntzen joan-etorri historikoa harnegaz baretatik determinatzen duen prozesua, klase sozialen arteko burruka-arloan erabakitzen bait da azken finean: eta arlo hau, ez da guztiz eta erabat estatu-aparatuera eta erakundeetara mugatzen den eremua. Noraezekoa da, bada, arlo honen azterketa, hizkuntza nola dagoen eta nondik nora bideratuko den jakin nahi bada. Interesgarria izango litzateke egungo eguncan Euskal Herriko klase eta kapa sozialeen praktika zertan den jakitea bi hizkuntzekiko.

Gure tesia, labur eta zehatz, honetan datza azken muinean: botere linguistikoa ere, azken buruan, klase burrukaren arloan gauzatzen den erlazio-indarren materializazioa izango litzateke. Hemendik abiatuz, agintearen mamu horrekiko perspektiba hobean gaudela dirudi. Zeren eta, Irlandako porrota dela eta, Villasantek hitz hauctan azaltzen bait digu han gertatu bide dena.

«Gobernua saiatzen da, hai, irlandera irakaskuntzan sartzen eta irlandarrek, beti ere, han, bihotzcan, tokitxo bat izango dute beren hizkuntzarentzat, baina hori gora-behera, eguneroko bizitzean, ingelesak du aginpidea. Beste hitzez esanik irlandarrek ez du bururik jaso». Irlandako Gobernuaren «saiatze» hori zalantzapean jarriko genuke, baina ez da hori kontua. Kontua da Irlandako klase sozial nagusiak ingelesaren aldera turratu izan direla erabat herriaren hizkuntza nazionala desagerraraziz. Egoera minorizatuaren leizera amildu diren herrialde guztietan datu beretsua daukagu; salbuespenak eta egin behar diren nahardurak eginez (Kataluna). Euskal Herrian gauza bera. Garaian garaiko klase gailenduen erantzukizuna izan da euskararen iraungipena. Eta une honetara iritsiz, beste horrenbeste esan behar da: nork posibilitatzen du gaur Euskal Herrian gertatzen dena gertatzea? Hots, hizkuntzak erreproduzitzen direneko arlo eta eremuetan euskararen presentziarik eza klase sozial nagusien interes materialek eragozten dute azken buruan. Zergatik dira espainolak alderdi politiko abertzaleak beren hizkuntz ihardueran? Ez da batera dudarik: erakunde eta instantziak beti klase sozial jakin batzuren eskuko dihardutenaz, haien interes linguistikoa espainolak izatean, hauek ez dute errakzionatu eta herri osoa hizkuntz ordezkapenaren leizera amildu dute.

Aita Villasantek Irlandaren esenplua aipatzen digu, eta nik ez dut hori hona ekarri klase sozialen gorabeherak arakatzeko soilik. Batez ere Estatu independentearen auziaz zerzelada batzu egiteko aitzaki ona da Irlandako adibidea; eta are gehiago, Villasantek esenplu horretaz baliaturik, independentziaren beharra auzipean jartzen duenez gero. Hona bere argudioen haria: «Herriük desagertua eta zeharo itzalia den hizkuntza askatasunaren edo abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dela uste izatea, ameskeria hutsa besterik ez da. Inoiz kontrara ere gertatu izan dira gauzak. Esan nahi dut: independentzia edo askatasuna lortu izanak, lagundu beharrean, kontra egin diola hizkuntzaren berreskuratzeari».

Villasanterekin bat gatoz Estatu independentea lortze hutsak, besterik gabe, ordezkapen prozesu aurreratuan aurkitzen den bertako hizkuntza ez duela mirariz edo, status nazionalera jasoko. Nik uste, harako irlandar hark esan zuena, alegia, «Guri burujabetza lortu izanak mesede baino kalte gehiago egin digu hizkuntza berreskuratze-lanean», zenbait zehaztapenen beharrean dagoela, oker aditzerik sortuko ez bada. Hori horrela gertatu dela uste izateak auresuposatzen du hizkuntz kontraesanak guztiz ingelesaren alde zeuden unean gauzatu zela independentzia politikoa. Eta lehen aipatu dugun klase sozial eta indar politikoen letrazte kontuagatik, baldintza materialek ezinezko bilakatu dute gaelikoaren berpizkundea. Geroago, hau da, burrukaren burrukaz gaelikoarentzat abagadune egokiago balean, hizkuntz kontraesanak bere alderago lerraturik egon zitezkeen aldi balean independentzia politikoa erdietsi izan balitz, agian gaur egun irlandera dagoen baino zori hobean zegokeen. Baina guzti honek, dena dela, ez du ukatzen burujabetasun politikoa ezinbesteko baldintza ez denik hizkuntza minorizatuaren eraikuntzarako. Datu horrek, gure ustez, momentu historikoari egiten dio erreferentzia: independentzia agian une desegokian egia bihurtu zela gaelikoarentzat, eta ez da idoro behar hor besterik inolako «trabarik».

Andoni Sagarnak oraintsu burutu du bere tesi doktora, besteak beste, hebraiera eta suomiera aztergai dituelarik. Eta bera ere independentziaren auzi honetan, ondoko eritziora makurtzen da: «Cabe preguntarse incluso si la normalización lingüística es posible sin la conquista de la independencia política». Hizkuntzalariak maizenik alde batera uzten dituen hizkuntzaren dimentsio politiko, ekonomiko, juridiko eta ideologikoak kontuan hartzen badira, ez dirudi posible denik egungo Estatu modernuen baitan hizkuntz komunitate autonomo bat eraikitzea, independentziaren formula politikoa aplikatu gabe. Hau da gaur gaurkoz auzi honetan hauteman dezakegun datu nagusia; beste kontu batzu dira, independentziaren noiz-nolakoak.

Literatura marxistan bada aski ezaguna den proposamen teoriko bat. Hauxe da labor esanda: gauza bat dela Estatu-aparatua, eta beste bat, guztiz desberdina, Estatu-boterea. Inpresioa dut Estatuaren aspektu honi dagokion proposamen teoriko horren argipean askoz ere hobeki ulertuko litzatekeela Irlandan gertatua.

Irlandan momentu historiko jakin batean (ez du zertan bat etorritik independentziaren datarekin), bertako klase dominanteak Estatu-apatuaz jabetzen dira, baina klase horiek ez dira gaefikozaleak, ingelesak edo inglestuak baizik. Itxuraz, Estatu-apatua irlandarren esku dago eta ez ingelesen esanetara. Itxura hori ordea, ez da itxura baizik, zeren eta botere linguistiko-politiko klase nagusi ingelestuen eskuko denez, bere autonomi erlatiboan funtzionatzen du aparatatu-administratiboaren barnean eta kanpoan. Hitz batez esateko, irlandarren esku dagoen Estatu-apatua, ez dago irlandar nazionalisten zerbitzuan, eta botere-erlazioen sare guztia (eta sare honen baitan erabakiko da gero irlandarren patu gaiztoa) Estatu-boterea beren eskuko zeukaten indar sozial ingelestuen aldera lerratuko da zeharo.

Esplikazio borribilen bila

Hizkuntzen iraupen eta erreproduzio sozialerako aldiak aldiko eta lekuan lekuko mekanismo nagusiak zein izan diren eta diren zehazki seinalatzea gauza zaila bada ere, ukacina da halere mekanismo horiek botere politiko-ekonomikoa hezurmamitu deneko gune beretsutan kokatzen direla beren izate eta funtzionamenduan. Gune horiekiko euskararen urruntasuna nabarmendu nahi digu aita Villasantek lerro haueetan: «Hizkuntza bat bere kasa utzia inoren jabetasunik gabea, babesik eta laguntzarik gabea, kultur zentzurik eta lantzetalderik bat ere edo oso gutti izan duenik baldin bada munduan, euskara izan da». Gure hizkuntza nazionalaren gainbehera eta galmendia hizkuntza batek ezinbesteko dituen erakunderik bere eskuko ez edukitzetik dator. Oraingo egoera tamalgarrira ere hor dago: erakunde subordinatu batzuren eskuko baizik ez dela (ETB, Euskadi irratia, eskola aparatuaaren barnean guztiz indargabea da «D» ikastereduaren eragina...)

Hizkuntzen nondik-norakoa determinatzen duten erakunde edo egitura-sistema nagusiak zein izan diren jakitea gauza gaitza denez, «azken esplikazioaren» bila jotzeko arriskupean egoten gara beti. Eta horietako esplikazio borobil bat, ikuspegi ekonomizistatzat jo dezakeguna izan ohi da. Villasantek anekdota gisa dakarrena, guk hemen aipatzeak, badu orobat bere esplikazioa: askotan entzun izan dugula alegia «azken esplikazio» hori zenbait euskaltzaleren artean, euskararen noraeza argitzeko. Goazen katalan batek behin berari esandakoarekin: «Hauxe esan zidan: "Hizkuntz-auzi horiek ekonomiak erabakitzen ditu. Bost milioi mintzatzaile dituen hizkuntza ekonomiaren gaurko martxan, ez da gai behar diren komunikabideak, egunkariak etab. ordaintzeko. Hori mende honen hasieran oraindik posible zen; gaur ez". Katalanak 5 milioi hiztun ditu. Guk milioi erdi besterik ez!»

Garai batean Jaunaren nahia hartuko zen «subjektu zentral» gisa gauzak gertatu ziren bezala gertatu izanaren azalpena emateko orduan. Orain, horren lekuan, ekonomizismoa delako korrante ideologikoak

(teknokraten artean txit indartsua izan ohi da korrante hau) ekonomia jarriko du. Eta hor hasiko zaigu prozesu ekonomikoaren bere berezko legeez, eta instantzia horren autonomiaz mintzatzen, beste instantzia-mailetatik bere joan-etorria norabideragarria ez halitz bezala. Eta, dirudenez, hizkuntza minorizatuen destino petrala esplikatzeko ere, ez da nonbait bitarteko txarra.

Munduan ordea ez dira falta Islandia bezalako esenpluak: Nazio-Estatu txikiak, eta beren hizkuntzak betetzen ditu nazio-mintzairari dagozkion funtzio soziolinguistiko guztiak. Beraz, demografia eta ekonomian oinarrituta hizkuntza «ahulen» patu gaiztoa «a posteriori» esplikatzen hastearen funtsik eza, itzala da zinez. «Ideia» hauek, jakina, ez dira batere neutralak eta herritarraren garuntaraino sartzen ditu beti presente dagoen ideologia menderatzaileak; euskaldunok, aurrerapen ekonomikoaren truk, utzi ezazue alde batera zuen baserriar-hizkera hori! Iturri honetatik edan zuen «gure» intelektual unibertsalak ere; hots, Unamunok. Betiko kontua, beraz: euskaldunok ezin gaitela izan eta ezin dugula pentsatu, gure alboetako espainolak eta frantsesak bezala, hala egiten dugun neurrian asimilatuak gaudelako hitz honi egotzi lekiokkeen zentzurik zabalenean. Negarrez hiltzekoa litzateke, umore pitiñ bat ez bagenu, Europa dela eta, euskaldunok irentsi behar omen dugun unibertsalitate izariaz politikoez eta intelektual askok, ahoa iriki orduko, jaurtikitzen dituzten ergelkeriak entzutea.

Eraman dezagun bada, euskararen arazoa, maila teorikoan beste lekurik ez duen planteagunera: maila honetan, eta ez, ikusi bezala, ekonomikotasunari dagokion arloan. Labur beharrez, hona proposamenaren muiña: instantzi-maila hauxe delako hain zuzen gainerako guztiak (dela ekonomikoa, dela juridikoa...) bere baitan kontzentratzen dituen, eta hainbestean, orobat gertatzen delako hizkuntz kontradikzioekin ere. Kontradikzio soziolinguistikoan gauzapena, azken batean, maila politikoa erabakitzen bada, bistan da nora bildu behar diren euskal indarrak. Kontu hauetan, halere, honako hau gertatzen denaren susmoa daukagu: euskararen auzia termino politikoetan planteatzeak, ageriko gauza denez, ondoreza sortzen du zenbait «lekutan». Ez da beraz, batere atsegina. Orduan zer egiten da: ba, arrazoi ekonomikoak, edo euskaldunaren «axolagabekeria», edo auskalo zer aipatzen den euskararen auzia ez «ideologizatze» (euskarra gaisoa, seaskako haurra antzo, garbi eta ezti zaindu behar baita). Horra, maiz askotan nahi gabe, egin izan ohi den ideologizaziorik itzalean: saihestu nahi zen leize berberean amildu, hau da, auzia termino ideologikoetan planteatu, politikaz hitz egin nahi ez zelako. Bitxia benetan,

Hizkuntzaren izakera dela eta

Aita Villasantek hizkuntzaren tresna-izaera behin eta berriro nabarmendu nahi du, horretarako hizkuntzalaritzan eta Mitxelenaren aipuetan oin harturik. «Zer dira, baina, hizkuntzak bere izatez eta eitez? Gi-

zonek elkar ulertzeko eta beren gogoetak elkarri adierazteko erabili ohi dituzten ikur edo ezaugarri batzuen sistemak, aho-mihiz ahoskatutako adierazkailuak, alegia. Tresna batzuk, beraz». Nik ez dakit hizkuntzalaritzarako definizio hori baliagarria den, baina gauza jakina da soziolinguistikaren esparruan, argitu ordez ilundu egiten dituela definizio horrek hizkuntzaren izakera sakonak.

Hizkuntzaren ikuspegi erredukzionista hauek alde batera uzteko, gutxien-gutxienik behinola Krutwig-ek egindako adierazpenetan esandakoa esan behar da. Eta hizkuntzalariek kritikatzeko bete-betean datorrela dirudir: «...se olvidan de una cosa muy importante que es la realidad social; es decir, que una lengua en sí, más que un método de comunicación es casi un medio de estructuración social» Hizkuntzalariei ez zaie burutik pasa ere egin, XVIII. mende inguru hartan burgesia buru zelarik hasi zen prozesuaren ondorioz eraiki diren Estatu-nazioen antolakuntzaren oinarri materialeko osagai funtsezko bat izan direla «hizkuntza nazionalak». Hizkuntza tresna ala hizkuntza baldintza material ezinbestekoa? Prozesu historiko horretan ezin dugu hauteman Villasantek sinistarazi nahi digun izakera hori.

Gauzak beti kateamendu komplexuen ondorioz sortzen eta finkatzen dira, eta pentsamenduaren arloan beste horrenbeste jazo ohi da. «Tresnatasun» kontu hau ez genuen lerro hauetara ekarriko, berez inolako ondoriorik izan ez balu. Agian Villasantek pentsa dezake gauzak esajertzeko joera dudala, edota hau bezalako «xehetasun hutsaletan» arakatzeko obsesioa eduki dezakedala. Ezetz esango nuke; eta ahaleginduko naiz horren zergatia argitzen. Hizkuntza tresnatasunera murrizten dituen ikuspegi erredukzionistaren haritik, badirudi, tresna hori norbaitek erabili egiten duela hartarako edo honetarako, eta azken batean, hizkuntz komunitatea, alde batetik hiztunlegoak eta bestetik hizkuntzak osatzen dutela.

Ni halakoan nago. Eta horrela izatekotan, euskararen auziaz hegemonikoa den diskurtso dominantea (azken buruan euskararen kontra eta espainieraren alde funtzionatzen duena, ez da ahantzi behar hori, hor materializatzen bait dira efektu praktikoak) ez da soil-soilik elementu edo interes ideologiko-politikoetan oinarritzen, ikuspegi teoriko hauek ere beren efektua eta lekua bait dute hizkuntz politikaren eremuan. Gauzak horrela baldin badira, indar politiko abertzale gehienek hizkuntz jokabide espainolista ezin da esplikatuta soil-soilik hauek ideologia dominante espainolarekiko daukaten subordinazioaren bitartez. Horra teoria soziolinguistikaren eragina eta inportantzia hain zuzen.

Salba gaitzazu ideologiatik

Hizkuntzak ideologi sistemarekin dituen loturak ikertzea gauza benetan gaitza da. Arrisku bizia dago, hortaz, gai horretan barrera abiatu orduko, huskeriak eta betiko lelokeriak errepikatzeke. Eta neurri batean edo bestean, guztiok bezala, damurik, aita Villasante ere, arrisku berean

jausi dela uste izateko elementuak daude bere liburuan. Harako hark zioen bezala, planteamendu ideologikoetan ez erortzeko, ideologiari buruz sistema ideologikotik kanpora pentsatu behar omen da; ez da beraz gauza zaila jausialdi hori edukitzea.

Nolanahi ere, goazen bere idatz zatia hona aldatzera, gauza zertan den ikusteko: «Hizkuntza herri baten ondasuna da, guztion ondarea. Orduan ez du inork beretzat eksklusiboki hartu behar, beronen jaun eta jabe balitz bezala. Aukera eta ikusmolde partikularren gainerik dago hizkuntza. Pluralismoa dagoen herrian euskara ezin lot daiteke partikularismo batekin. Euskara zinez maite duenak ahaleginak egin behar ditu guztiona dena beretzat bakarrik ez hartzeko; ez luke honetan hain itsu izan behar. Zorritzarez, beldur naiz itsutasun hori gure artean zabaldugegi ez ote den».

Aita Villasanteren asmoak asmo zuzenak dira, nola uka. Baina testu teoriko bezala hartuta, pasarteak betiko topikoak errepikatzen ditu. Ez da hau lekua hizkuntzak laino guztien azpitik eta sasi guztien gainerik ez daudela frogatzen hasteko; luze joko luke alde batetik, eta gogaikarria bihur liteke irakurle nekatuarentzat bestetik.

Halaz guztiz ere, ohar batzu egin ditzagun puntu honen jirabiran. Villasantek aditzera eman nahi duena, bi planotan arakatuko dugu apur bat. Lehenenguan, hizkuntzak sistema ideologikoarekin izan leza-keen lotura frogatzat harturik, seguru aski bere begiko den autoreen baten zita hau dakargu. Honela dio Saussurek bere obra txit ezagunean: «Esto nos lleva a un tercer punto: las conexiones de la lengua con las instituciones de toda especie, la iglesia, la escuela, etc. Estas, a su vez están íntimamente ligadas con el desarrollo literario de una lengua, fenómeno tanto más general cuanto que el mismo es inseparable de la historia política». Honez gero, hizkuntzak aparatu eta sistema ideologikoarekin daukan barne-barneko lotura, itsurik itsuenarentzat, ukaezina bihurtzen da. Euskara, bistan da, ez dela horretan bestelakoa izango, eta herri hohon prozesu ideologiko orokorraren baitan erabakitzen dela, besteak beste, bere oraina eta gerua. Hil ala bizikoa da hortaz, euskara sistema ideologikoan gailentzea, eta aparatu ideologikoetan (eliza, eskola, komunikabideak...) berandu baino lehen ezartzea. Premisa hau gabe euskararen normalizazio sozialaz hitz egitea, zentzugabekeria hutsa da. Badakit Villasanteren mezua agian ez zihola problematika orokor honen harian; planteamendu orokor hau gabe, ordea, nekez atzeman daiteke ondoren datorrena.

Tresnatasun nozioak, izan ere, nahitaez, horra darama pentsakizuna: mailu edo kotxe baten gisara, hizkuntza ere, halako edo bestelako «sujetuak» erabili egingo du, honetarako edo hartarako. Zer litzateke, adibidez, kontzepzio honen ildotik, hizkuntz aldaketa edo ordezkape-na: ba, inolako konplexutasunik gabekoa, zeren halako batean, hau eta bestea gertatu delako, herri batek bere hizkuntza «utzi» egiten du eta beste bat «hartu». Oso ederki: dena garbi dago, tresna bat utzi eta beste hartu. Ez dago alegia besterik: hiztuna eta hizkuntza eta horien ar-

teko ez dakit zer. Bidenabar, bapatean datorkidan burutazioa botako dut; ez al litzateke gauza erraza izango euskararen normalizazio soziala, euskara hemendik hartu eta han jar litekeen tresna balitz? Egin beharreko operazioa aski simplea dirudi, eta hortaz, ez oso bururagaitza. Baina, onerako ala txarrerako, euskararen izakera ez da batipat tresnatasunera murrizten eta bere ezarpen soziala erabat proiektu nekeza bilakatzen zaigu euskaldunoi. Eta horren arrazoiak zera izan daitezke: tresnatasunaren ikuspegi horretan ez dela gauzarik inportanteena kontuan hartzen. Alegia, hizkuntza gainazalean bera eta hiztunaren arteko erlazio sarean baizik atzematen ez bada ere, hiztunarekin zerikusirik ez duten egitura, instantzia eta praktika sozialen barrunbean hezurramitzen dela eta bere patua ere hantxe erabakitzen dela. Aita Villasantek agian lehengoan segituko du, eta ezer argitzen ez duen nebulosa bat itxuratzen ari naizela pentsatuko du. Horrela balitz, adibide jakin bat jarriko diot, esan nahi dudana ilustratzeko. Gauzak esaten diren bezala zergatik esaten diren pentsatzen jarrita, ondorengo testu-zati hau ez ote da kontzeptio instrumentalista horretan oinarritzen?: «Barka ezineko arinkeria litzateke ahaztea euskara, azkenean, euskara erabiltzen dutenek salbatuko dutela, gizarte baten edo gizarte hori osatzen duten giza-banakoan erabakia, sikelogia, borondatea etabar direla medio» (Euskararen politikarako oinarriak).

Goazen hortaz, «tresnakeriaren» zentzu hertsian, mezuaren esanahia aztertzerik. Alegia, euskara norberaren xede politiko-ideologikoak eskuratzeko erabiliko litzatekeen «tresna» edo manipulagailua izango litzateke. Amodioak ere ez bide du askorik laguntzen horretan: «Amodio batzuek, maite den gauzari mesede baino kalte gehiago dakarkiotela esan ohi da, eta egia». Begira dezagun orobat ideologia politikoaren peligroetarik: «Herri baten ona den euskara ez dadila ideologia politiko batzuei lotua ager; bestela zatiketa gertatuko da eta euskara bera aterako da kaltetik». Zentzu hertsiko interpretaziotan berrera abiatuta ere, onartezina egiten zaigu Villasanteren testua, baldin eta, jakina, testua testu ideologikotzat hartzen ez bada. Hori beste kontu bat da. Eta onartezintasunaren iturri teorikoa batere susmagarria ez den Sausuren aipuan bertan dakusagu. Ez al du suizarrak adierazi etenezinezko lokarritz loturik daudela hizkuntzak lekuan lekuko erakunde ideologiko-kulturalekin? Guk dakigunez, alderdi politiko bat, beste gauza askoren artean, instantzia ideologikoan kokatzen den aparatu bat izan ohi da. Beraz, atera kontuak.

Gontzal Mendibil kantariari oraindik orain zera irakurri diogu: «...eta ez da izango "euskararen politizaziorik" alderdi guztiak euskararen alde eta euskaraz lehiari jardungo balute». Ez ote du arrazoin Gontzalek? «Tresnakeriaren» auzi hau ez ote da jazozen maiz asko gure herriko indar politiko hegemonikoek euskararekiko daramaten jokabideagatik? Zergatik ez da alegia euskararen arazoa ideologikoki instrumentalizatzeko baldintzak desagerraraziko litzuzkeen hizkuntza politika bat martxan jartzen? Ez al litzateke zinez eta benetan hau, ir-

tenbide bakarra? Hala dirudi: eta erne, gonde gaitzala gorde behar gaituenak, planteamendu hau ideologikoa baldin bada. Euskararen inguruko manipulazioak ez dira sortzen «erresumindu» batzuren ahalmen zerutiarrez, baizik eta egoerak horretarako bide ematen duelako.

Besterik uste badu ere, nik neuk oraindik zera pentsatzen dut: euskarari dagokion borroka soziolinguistikoa, nolazpait ere, autonomia dela borrokoa politiko nazional orokorraren baitan, eta hainbestean tratamendu espezifikoa eskaini behar zaiola estrategia mailan. Orain dela bi urte «Txepetx»-ek egindako adierazpen hauetan ere, horrelako zerbait somatzen da: «Euskal nazioaren berreraikitzea euskararen normalizaziotik pasa behar du nahitanahiez, eta gero bai, euskaldunak aukera politiko desberdinetan destolestu ahal izango dira, beti ere hizkuntza amankomun baten inguruan elkarturik daudela jakinik».

IV.
HIZKUNTZ LEGERIAZ OHAR
OROKORRAK

MAILA JURIDIKOAREN ERAGINA HIZKUNTZAZKO GIZARTE-HARREMANEN BAITAN

Lehen-lehenik ezabatu eta desegin behar den irudia, duda handirik gabe, honako hau dela esango genuke: hizkuntz eskubide eta *statusaren* eite juridikoa eta hizkuntz erlazio sozialak modurik mekanikoenean bata bestearekin kidetzea. Ikuspegi oker honen «argitan», izan ere, kontraesan soziolinguistikoak harreman juridikoen barrutira murrizten eta makurtzen bait dira eta, hori horrela den bezanbatean, ez du biderik ematen sistema soziolinguistikoa bere sakonera guztian aztertzeko. Ondorioak, guk uste, begien bistan daude. Horrelako tesi baten arabera erralitate soziolinguistikoa «ikusit» baino areago «estali» egiten da. Euskaltzalea eta euskararen militantea teori-argiz hornitu ordez, desarmaturik uzten du noraezean.

Hizkuntz komunitateak, bai gailentzen direnak eta bai menpean hartzen direnak, ez dira ez definitzen ez mamitzen, besterik gabe, instantzia juridikoaren esparruan. Hori kontuan hartzeko gauza delakoan gaude. Ez diogu, haatik, legeriaren esparrua hutsaren hurrengoa bailitzan, inolako eraginkortasun eta erabakimenik gabeko egitura formal huts eta hutsala denik. Nolanahi ere hemen azpimarratu nahi dugunak oinarri teoriko sendoak dituela uste dugu eta hainbestean tinko ezarriak.

Alegia, instantzia juridikoari zor zaion lekua eta funtzioa eman behar zaionez, jakin beharko da zehatz-zehatz bere kokagune berezia zein den eta non dagoen. Begiz jo alegia, bere efektu linguistikoak nondik isurtzen dituen jakin ahal izateko. Ondoriook, bestalde, funtsezkoak izan dira, esaterako, delako «hizkuntza nazionala»ren erakuntzan, eskola-erakundearekin eta batera.

Pentsatzekoa da hizkuntz prozesu sozialaren nondik-norako historikoa, hizkuntz herriaren etorkizuna, ez dela ez erabakitzen ez mamitzen maila edo egitura sozial bakar baten mailan. Uste izatekoa da orobat, instantzi-mailok, nola juridikoa hala ekonomikoa, nola ideologikoa hala beste edozein, osotasun soziala taiutzen duen gizarte-sistemaren baitan kokatuak daudela. Eta osotasun honen elementu osatzaile eta eraikitzaile den bezanbatean, maila juridikoa ere bere baitan gaindeterminaturik dagoela. Beraz, historiako une jakin batean maila juridiko

konkretu batek egitura soziolinguistikoa mamitzen dituen efektu-harremanak zeintzu diren jakin ahal izateko, bere ezugarri zehatzak begiz jotzeko, ez da aski izango bera bere baitan autonomia osoz ikeritzea. Izan ere, bere berezitasunak ez daritzio bere egitura propioari bera modu isolatu-batez harturik, baizik eta gaindeterminatzen duen sistema sozial osoaren erreferentzia teorikoa noraezekoa izango da berezitasun zehatz horiek hautemateko. Esan daiteke, beraz, gaindeterminazioa jaiutzen deneko egitura orokorraren baitan, gainerako instantzien efektu-harreman soziolinguistikoak kontuan hartu beharko direla, bere-bereak liratzekoenak ere ezin bait dira bere autonomia erlatiboan baizik hauteman. Argi eta garbi dago horrenbestez, maila juridikoari dagozkion neurri linguistikoak hartzerakoan, ezin dela hor hizkuntz plangintza erabat autonomo bat ezarri, bideanbar gainerako maila dagozkien neurriekin koordinatu gabe.

Maila juridikoa hartzen diren neurriak eraginkorrak izango badira, hain zuzen ere, koordinazio hori ezinbestekoa da eta, bestela, bistan da, ezin dela hizkuntz plangintza behar bezala kontrolatu. Eman dezagun maila jakin batean hartutako neurri linguistikoak, euskararen aldekoak adibidez, ez direla osagarriak dinamika soziolinguistiko bakar baten logikapean. Horrenbestez, instantzia batzuei darizkien efektu-harreman soziolinguistikoak beste batzuei darizkienekiko kontrajarriak daudela. Ez da oso azkarra izan behar horrelako hizkuntz plangintza baten zentzugabekeria; jabetzeko: alde batzuetatik datozen eragin soziolinguistikoak beste alde batzuetatik datozen eskutik ezabatuak izango bait lirake. Neurri batean bederen, euskarari horixe bera gertatu bide zaio orain arte. Adibidez, nola azal dezakegu euskararen ikaskuntz prozesua mintzaira horren beraren erabilpen dinamikarekin ia erabat etenda egotea? Nola esplikatu dezakegu irakaskuntzako zenbait esparutan egindako ahalegin-neurriek hain ondorio apal eta murrizak sortaraztea? Nola ulertzen da «D» ereduaren porrota eskola-barrutitik kanpoko hizkuntz jardueran eskolumeen aldetik? Ageriko gauza da, itxura guztien arabera, Eskola ez dela aski, baina hau esatea ez da asko esatea, erakunde honen ondorio linguistiko antzuak ez bait dira Eskolaren beraren baitan soilik idoro behar. Hain zuzen ere, gorago esana utzi dugu, esparu-erakundeon autonomia erlatiboa ukatu gabe, ezin dela horietako edozein banaka hartu eta bere funtzionamendu soziolinguistikoa ikertu.

Beste alde batetik, ohargarria egiten da, hizkuntz komunitateen arteko kontradikzio linguistikoen arloan, hizkuntz terrakuntza hauek sistema soziolinguistikoa banean duten kokagunearan arabera gauzatzen direla. Zentzu horretan, ez da aski izango nola-halako eskubide juridiko batzu halako edo bestelako Konstituzio batean aitortzea, gauzak menpeko mintzairaren aldera higitzen hasteko. Norbaitek esan dezake apika, gauzak jakinak baino jakinagoak direla, eta lekuz kanpo daudela inolako teorigintzaren mailatan. Baina ebidentzien auzian badakigu Galileoren harako hura sarri baino sarriago suertatu izan dela; alegia, «mundu guztiak ikus zezakeen lurra ez zela mugitzen».

Oso oker ez bagaude, eskuartean darabilgun gar honetan, bada eritzi bat euskal popularean baitan erro sakonak egin dituena. Egungo abagadune politiko-linguistikoan, delako eritziaren arabera, frankismoa jadanik lurperaturik, euskararen normalkuntza soziala bide seguruetan barrena abiatuak dago, espainierarekin batera hizkuntza ofiziala omen denez gero, Eritzi publikoaren artean uste hori gailendurik dagoela jakiteko aski da han-hemenka buruak diren inkestei so egitea. Ofizialtasun horren irudiak, hau da, ideologia juridiko nagusiak itxurazten duen «ilusioak», euskararen baldintzapen latzak bapatean ahantz ezazten ditu. Azkenerako «ebidentzia» bilakatu da: euskararen aldeko neurrien aurrean gure hizkuntzaren etorkizun beltza aipatze hutsak betiko erresuminduen lelokeria dirudi. Hots, «egia» bihurtu da, eta guztia, hein handi batean behinik behin, apatu dugun ideologia juridikoaren liluramenaz.

Eritzi «publikoaren» okerra, hain zuzen, arestian marraztu dugun parekatze edo kidetze horretatik dator: euskarak Euskal Herriko sistema sozialaren egitura eta harremanen maila eta esparruetan dauzkan kontraesan errealak, maila juridikoan (Konstituzioa dela, Autonomi Estatutuak euskarari eskaintzen dion babes-eitea dela, etab.) gertatzen dena murriztuko dira eta, hainbestean, konponbidean jarriko gauek goizera.

Gainazaleko ikuspegi eta azterketa horiek alde batera utzi nahi dituenak berehala ohartuko da honako honetaz, nahigabe ere: euskararen normalkuntz prozesua ez dela ahitzen maila juridikoan hartutako erabaki eta neurrietan, hori abiapuntu soilizat harturik. Bizi ditugun garai historiko hauetan, Estatu moderno erdirakoiek ez dute oraingoz itenbiderik eskaintzen berdintasun juridiko-linguistikorik erakarri ahal izateko. Horrek ez du esan nahi, ordea, egungo baldintzetan gauza daitekeen hizkuntz politika, muga itogarrien barnean jardun behar izanda ere, alferlan hutsa izango denik nahitaez. Egia da noski, alferlan bilaka daitekeela, baina geroan gauzak bide hobetik joango balira, gaur egindakoa abiapuntu sendoa gerta liteke. Guztia euskararen aldeko indar sozialen esku dago, hauek mamituko duten hizkuntz praktikan, hauen botere-ahalmenetan.

Gauzak uste izaten ditugun haino askoz ere korapilotsuagoak izan ohi dira munduan, eta zer esanik ez eskuartean dugun auzi honetan. Alde batetik jokabide pragmatikoak guztiz urbiatu gabe, eta bestetik «ideologia juridikoaren» zepopean erori gabe, maila teoriko goren eta argigarrien arabera jokatu beharrean gaude euskaldunok. Ez da aski izango boluntarismo itsua, ezta ere aktibismo soila. Orain arte egindako ikerketa soziolinguistiko askok ere, zoritxarrez, ez digu bide finkorik erakutsi, baste arazoan askoren artean, ikerketa horien estatus teorikoa aski deskriptiboa izaten bait da. Hots, ez dute maila empirikorik gairatzen. Itxuraz, argibide batzu ematen dituzte maila batzutan, zenbait arazo konkretu lokalizatzeke gai dira, eta hizkuntz plangintzarako oinarritzko materiala bihurtu daitezke. Guztiarekin ere, gehienetan ez

dira gauza testu empiriko hauek, auzia marko teoriko egoki batean kokaturik, ezkutuko hizkuntz harreman sozialen nondik-norakoa determinatzen duten kontradikzio sakonen berri emateko. Ia-ia «begiz» ikus daitekeenaren berri baizik ez dute ematen; erabilpenak huts egiten du halako eta halako transmisiobideetan, harako hiztunlegoaren gaitasun linguistikoa x da, euskararekiko atxekimendua gradu hauetan dabil biztun-tipo horren barruan, etab.

Harira itzulita, hots, euskara eta maila juridikoaren arteko harremanak nola bideratzen diren jakin nahirik gabiltzanez, lantxo hau amaitu aurretik gure tesi formulatu nahi genuke. Ea ulergarria bihurtzen dugun, nahiz eta kontzeptuen esanahi zehatzak askotan mugagaitzak izan. Honelatsu josiko litzateke tesi hau diskurtso zabalago baten gune gisa:

Euskararen bilakaera historiko-sozialaren nondik-norakoa taiutzen duten gizarte-instantziak alde bateik, eta horien efektuz artikulatzen den hizkuntz ihardueren harreman-eremua bestetik, ezinbesteko erreferentzia teorikoak dira kontraesan soziolinguistikoen kokalekua lokalizatzeke. Kontraesanen mamikuntzaren kokalekua gogoan delarik, pentsatu behar da instantzia juridikoan euskarari ezartzen zaion baldintzapen material makurra ez dela azken funtsean erabakiorra bilakatzen bere aldetik soil-soilik. Maila horren efikazia soziolinguistikoa erlatiboa izanik, aldian aldiko indar erlazio soziolinguistikoen koinuntura berezietan aztertu beharko da, bere eragina norainokoa den hizkuntz prozesu orokorraren ardatzean. Ardatz honen norabidea, gizarte-osotasuna taiutzen duten egitura-maila guztiek aldi bereko efektuz eta harremanez determinatzen dutenez, hizkuntz borrokaren eskuharmena izango da, azken finean, indarrak alde batera edo bestera makurtuko dituenak. Hots, hizkuntz praktikaren kontzeptuak baizik ez digu argituko azken batean, prozesu soziolinguistikoen motorraz jakin nahi duguna. Motor hori borroka da, euskararen aldeko indar sozialen eta hizkuntza menderatzaileen aldeko indarren arteko borroka amaigabea, hil ala biziko borroka, elebitasun sozial orekaturik finkatzea ezinezkoa bilakatzen duen motorra hain zuzen.

Gure tesi honen barruti teorikoan gauzak pentsatzen baldin badira, legetasunaren eraginkortasun erlatiboa aldian aldiko abagaduneeen arabera hauteman beharko da. Kontua ez da beraz, legetasun-azua lehen edo bigarren mailan edo nahi den mailan baloratzea. Kontua hizkuntz bilakaera historikoaren ardatza eta ardatz hori mugierazten duen motorra begiz jotzea da eta, jakina, motor horren eragin-mugak zedarriztatzeko dituen maila sozial eta gizarte praktiken lekua eta funtzionamendua ezagutzea. Gauzak zentzu honetan planteatzen diren neurrian, ezingo dugu bada legeari buruzko «tresna» ikuspuntutik inolaz ere onetsi. Hau ere erredukzionismo idealista hutsa da. Legea, Nicos Poulantzasen hitzetan esateko, ez bait da inoren eskuko, lanabes soil baten gisa trukaturik erabiltzeko modukoa: «Si la ley siempre está ahí, en el orden social, en el sentido de que no llega sólo a posteriori, para orde-

nar un estado natural preexistente, se debe a que es constitutiva del campo político-social como codificación, a la vez, de prohibiciones y de mandatos positivos». Legetasunaren auzia alde batetik tresnatasun mailara murriztu ezinezkoa baldin bada, bestetik gizarte-formazio osoaren elementu eraikitzailetzat hartu behar da, eta ez *kanpotik* edo datorren osagaitzat. Beste horrenbeste esan beharko litzateke, dirudienez, hizkuntz maila juridikoari buruz: ezinbesteko euskarri eta elementu eraikitzailea baizik ezin da izan gizarte sistemaren harremanetan.

Gltopolitika izenez ezagutzen den praktika hori burutzeko orduan, euskaldunok zorrotz jokatu beharko genuke auzi honi doakionez. Lege-esparrua Euskal Herriko indar soziolinguistikoen egoerara aplikatzeko eta egokitzeko tentaldia arriskutsua somatzen dugu gure inguru ofizialetan. Badirudi, hizkuntz politika ofizial horretan lege-kontua Poulantzasen *a posteriori* delako ideiarekin bat datorrela; hots, instantzia juridikoa ez dela elementu eraikitzailetzat hartzen euskal gizarte linguistikoa funtsatzeko, baizik eta halakoxe «egokitzapen» bat burutu nahi dela aldian aldiko indar politiko-linguistikoetara moldatuz. Zentzu honetan, diskurtso ofizial honen argudiorik nagusienetako bat ia beti, norabide honetan formulatua dago. Ezin dela alegia edozein hizkuntz politika aplikatu, ezin dela alegia mapa soziolinguistikoetako datuak kontuan hartu gabe hizkuntz plangintzarik burutu, ezin... Berez, jakina, noraezko baldintzak dira informazio-elementu horiek errealtate soziolinguistiko baten baitan eskuhartzeko. Baina iharduera operatibo-praktiko horien sostengu teorikoak dira huts egiten dutenak, ez maila praktikoa ageri diren faktoreak: aipaturiko argudio «zentzudun» horiek ez bait dute euskara inora eramango, euskararentzat maila juridikoak duen lekua eta eragin erreala zahartu gabe. Delako «egokitzapen» hori, lege-arategien aplikazioa *a posteriori* egin beharko balitz bezala, legeria linguistikoa egoerari «gero» aplikatzen dion hizkuntz politikak alegia, galmendira eramango du euskara eta euskaldungoa. Eta, izan ere, engainu ideologiko bati ezin bait dio aldegin: hizkuntz instantzia juridikoa ezin du gizarte-formazio osoaren baitako elementu eraikitzailetzat ulertu, eta gizarte-formazio horren baitako indar harremanei «kanpotik edo» aplikatu nahi zaie euskararen aldeko politika linguistikoa. Era honetara, gauza jakina da, ezin dela maila juridikoaren eragin soziolinguistikoa zehazki hauteman, ikuspegi sektorialak gailentzen dira eta, horrenbestean, oinarri teorikoek huts egiten dute osotasun soziolinguistikoaz jakintza teoriko sendo bat edukitzeko.

Dena dela, guzti honek ez du aditzera eman nahi hizkuntz plangintza sektorialak beharrezkoak ez direnik, ezta ere halaber hizkuntz barruti bereziei darizkien baldintza jakinak kontuan harturik, tratuera espezifikoak zor ez zaizkienik. Ezta hurrik eman ere, ez da hori gure kritikaren zentzuan adierazi nahi duguna. Hau guztia egin behar da noski, eta ez dago beste erremediorik gainera. Ohartarazi nahi izan duguna, azken batean, euskararekiko maila juridikoak sortarazten dituen efektu-

harremanak «nondik» eta «nola» sortarazten dituen zertxobait mugariztatzea izan da. Ez dago beste xederik lero hautetan.

Azken proposamen gisa, honako galdera hau zuzenduko genuke gure arlo teoriko honetan: ba al daukagu gaur ikerketa teorikorik maila juridikoak euskal gizartearen harreman linguistikoetan nolako mami-kuntza burutzen duen seinalatuko digunik? Maila horren interbentzioa bere izakera konplexuan hautemateko baliabide teorikorik menderatzen al da gure inguruko azterketa soziolinguistikoetan? Ezezkoan gaude, gure aldetik behintzat.

Honez gero, zera aurreratuko genuke, hipotesi gisa, problematika teoriko honen ildoan. Gizarte maila guztiek beren eragin eta indarra dutenez egitura soziolinguistikoaren harreman-arloan, ezin litekeela zehatz jakin legetasun linguistikoaren eraginkortasuna gainerako eremu sektorial guztiak aldi berean aztertu gabe gai honetan. Eta hor zehar zertxobait arakatu dugun gaindeterminazio kontzeptua, behar-beharrezko elementu teorikoa dugula auzi honen korapiloa askatzeko. Baldintza legalak, hortaz, maila formaleko balorazio eta azterketak egiten diren bitartean, ezin direla beren sakontasunean hartzeman. Eta hori horrela baldin bada, ezingo dela glotopolitika zuzenik gauzatu maila guztien efektu soziolinguistikoak batasun batean uztartu gabe.

Bada beste puntu bat, amaitu aurretik, gaingiroki bederen jorratu nahi genukeena. Puntu hau zertan den adierazi nahiko balitz, definizio honek balioko lukeelakoan gaude: egungo legeria linguistikoak babesten duen euskalgintza mamiz eta edukiz «betetzeko» ez dagoela ez ahalmenik eta bitartekorik gure artean. Eritzi aski hedatu honen arabera, bistakoa denez, instantzia juridikoaren mugak kritikatzeari utzi eta, beraz, lege-baldintzak «onartu» eta lanari ekin behar zaio desajustea desager erazi arte. Gero gerokoak. Hizkuntz legeria behaztoparri bilakuzten hasten zaigunean, orduan hasi behar omen litzateke presio politikoa zentzu horretan egiten. Bitartean badago eskubete lan.

Horrelako ikuspegi bati berehala nabari zaio praktika enpiriko itsuenari darian pragmatismoa: dena esateko, beste muturrean egon litekeen aktibismo eta boluntarismoaren bizkia da, gezurra badirudi ere. Batak nahiz besteak, ezintasun teoriko izugarria dute hizkuntz joeren faktore determinanteak beren proposamen teorikoetan barne kokatzeko. Auziaren gakoa, izan ere, euskararen alde lan egitea da, euskalgintza horrek inolako arrakasta-baldintzarik betetzen ez badu ere. Gaur gaueko, gainera, ikuspegi hauek dira jaun eta jabe zenbait korrante sozialen artean.

